goiena

DEBAGOIENDARROK DIOGUNA

2012-03-09
EGUBAKOITZA
500. ZENBAKIA
12. URTEA
DOANEKOA
GOIENA.NET
TOKIKOM

Hip-hop musika onena Arrasaten

Goienetxe hip-hop egilea. | GOIENETXE

Euskal Herriko artista onenek jaialdia egingo dute asteburuan gaztetxean | **15**

Goiena paperak 500 zenbaki bete ditu bertako informazioa ematen | 2

500

300 atleta baino gehiago bihar, Oñatiko duatloian | 28

Emausek etxez etxeko batze zerbitzua abiarazi du | 4

BERDINTASUNA ALDARRI, TAKARRARAN BIHAR ARRASATEN

Martxoaren 8aren bueltan, Takarraran lasterketa izango da bihar Arrasaten, Emakume Txokoak antolatuta; emakumeak kirola egitera animatzearekin batera, berdintasuna aldarrikatzea du helburu. 12:30ean abiatuko da Portaloitik eta ia 2.820 metro ditu. Bihar ere eman daiteke izena. | **13**

Amets Beltran de Gebara, Rosa Urtzelai eta Maite Barreña, Emakume Txokoaren aurrean, Takarraraneko kamisetarekin eta kartel iragarlea eskuan dutela. | MONIKA BELASTEGI

SINADURAK

Eurovegas? Ez, eskerrik asko | 7
ENEIDA ITURBE

7 | **Oñati, Itzulirako prestatzen**
GOIATZ ARANA

'Dona-dona katona' | 40
MIKEL IRIZAR

ASTEKO GAIA **2** | DEBAGOIENA **4** | IRITZIA **7** | ELKARRIZKETA **8** | HERRIAK **10** | KIROLA **28** | KULTURA **31** | ZURE IRAGARKIAK **35** | TELEBISTA-IRRATIA **36** | ESKELAK **36** | EZKONTZAK **37** | NON-ZER **38**

Papera kasuak bikoiztu egin dira bailaran azken hilabetean

Oñatin izandako brotea da arrazoia; kontrolpean dago | **5**

Alderdi nagusiek atez atezkoaz hausnartuko dute Bergaran

Hilaren 14an mahai ingurua egingo dute Zabalotegin | **5**

"Ikastolen hautua egitea ez da umea eskolan uztea kuota baten truke"

Iñaki Etxezarreta
IkasElkar erakundeko zuzendaria | **6**

Atxorrotz gaztelua kultura ondare izendatu du Jaurlaritzak

Gune arkeologikoari monumentu izaera eman diote | **24**

500 aste egin ditugu elkarrekin!

▶ GOIENA paperak 500 zenbaki bete ditu

▶ Debagoieneko eta mundu osoko albisteak euskaraz ematen daroa 11 urte pasa

LEIRE KORTABARRIA | ARRASATE

GOIENA papera da orain, baina jaio zenean eta orain dela urtebete pasatxora arte, *Goienkaria* zen. Izen horrekin hasi zen zabaltzen eta ezagun egiten Debagoien osoan esku artean duzun aldizkari hau, 500. zenbakia egiten duen aldizkaria.

Bide handia egin du 2000. urteko abendutik hona. Izena ez ezik, itxura eta egitura zeharo aldatu zaizkio urte hauetan, baina ez edukiak eta ezta helburuak ere: Debagoieneko jendarte osoari gertuko informazioa euskaraz ematea, astero-astero eta, gaur egun, astean birritan.

Urterik urte, hobeto

Sorreran, aldizkari bakarra zen, egubakoitzetan argitaratzen zen, eta ordurako herrietan oso sustraituta zeuden herri aldizkariak osatzera zetorren, haien atzean zeuden euskara elkarteen ekimenez. Aldizkari horiek, *Arrasate Press, Berrigara* eta *Aretxagazeta*, argitaratzen jarraitu ziren. 2001eko urrian, *Goienkaria*-rekin batera argitaratzen hasi ziren, Oñati ez beste herrietarako sortutako aldizkariekin batera. 2006an, itxuraz eta barruko edukiz aldatuta aurkeztu zen berriz *Goienkaria*, eta orduan, edizio bakarrean integratu ziren herrietako albiste guztiak. Gaur egungo GOIENA papera aldaketa horien guztien emaitza da, urterik urte hobetuz, osatuz eta aberastuz joan den eskualdeko aldizkaria. Hasieran zituen 24 orrietatik gaur egungo 40ra pasatu da, eta herri bakoitzeko informazioak gero eta pisu handiagoa hartu du.

Sailak ere eraberritzen joan dira. Betidanik GOIENA paperaren parte izan dira Asteko Gaia, elkarrizketa nagusia, iritzi saila, herriei eskainitako saila eta kirol eta kultura albisteak. Eta, nola ez, debagoiendarrek diotena: euren kontuek, iritziek, zorion-agurrek, bailarako jaioberriek eta ezkontzen diren bikoteek... horiek guztiak dira GOIENAko protagonistak.

Historiaren laburpena

Debagoieneko kontuez gain, Debagoienetik kanpokoek –Euskal Herrikoek zein mundu osokoek– ere lekua izan dute GOIENA aldizkarian. Horren erakusle dira 500 azal edo portada horiek. Berebiziko garrantzia edo oihartzuna izan duten istorioek eta gertakizunek isla izan dute aldizkari

2001-12-28 EUROA IRITSI DA

Moneta berria zalantzaz eta beldurrez inguratuta jaio zen. Urteko azken erreportajea horiek argitzeari eskaini zion *Goienkaria*-k.

2002-05-10 HILKETA ELGETAN

Estankoko arduradun Arrate Elkoro, 60 urteko emakumea, labankadaz hil zuten. Aitor Mendikute 34 urtekoa atxilotu zuten.

2002-09-06 BATASUNA

Batasuna legez kanpoko aitortu zuen Espainiako Auzitegi Nazionalak. Bost orriko erreportajea egin zuen *Goienkaria*-k.

2002-12-27 'PRESTIGE'

Prestige petroliontziak isuria eragin zuen Galiziako kostaldean. Goienako hiru kazetari hantxe izan ziren eta erreportajea egin zuten.

2003-01-17 BILLY PETERSEN

C.S.I. telesaileko Billy Petersen, Oñatin bizi izan zela inork baino lehenago atera zuen *Goienkaria*-k. Oihartzun handia izan zuen.

2005-10-21 MONDRAGONEK 50 URTE

Mondragon Korporazioa sortu zela mende erdi bete zen. Arizmendiarrieta omentzen hasi zituzten kooperatibistek ospakizunak.

2006-06-16 GELMA AUZIA

Arrasateko udal gobernua utzi zuen Aralarrek, EAJ eta EA gutxiengoan utzita. Gelmako etxeekin *pelotazoa* salatu zuen Ezker Batuak.

2008-04-25 HILKETA ETA ONDORIOA

Isaias Carrasco hil zuen ETAk martxoan, eta apirilean, Ino Galparsoro alkatearen aurkako mozioa ipini zuten PSEk eta EAJk.

2008-09-05 EDUKIONTZI MARROIA

Aretxabaletan, bosgarren edukiontzia ipini zuen Foru Aldundiak, plan pilotu baten barruan. Hondakin organikoak batzeko zen.

2009-01-23 UROLOGIA, GERTUAGO

Debagoieneko Ospitaleak urologia zerbitzua aurkeztu zuen. Ordura arte, pazienteek Gasteizera joan behar izaten zuten.

Hainbat aurpegi

Hasieran, 24 orri zituen *Goienkaria*-k, eta ia guztiz zuri-beltzean zetorren. 2004an, European Newspaper Awards sariketa ospetsuan Europako ondoen diseinatutako lekuko aldizkari aitortu zuten. 2006an aldatu zuen diseinu osoa lehenengo aldiz.

Beste sari batzuk irabazi ditu: 2002an, Argia saria; 2004an, Rikardo Arregin aipamen berezia.

Lehenengo zenbakia.

Argia saria.

Diseinu berria.

2003-02-21 'EGUNKARIA'

Egunkaria itxi egin zuen Guardia Zibilak, Espainiako Auzitegi Nazionalak aginduta. Erreportaje berezia atera zuen *Goienkaria*-k.

2004-03-12 M-11

Madrilgo trenetan atentatua izan zen eta sarraskia eragin zuen, Espainiako hauteskunde orokorren atarian.

2004-12-10 MONARKIA ARRASATEN

Espainiako errege-erreginak Arrasaten izan ziren, Mondragon taldearen eskutik. Bisita eta erantzuna jaso zituen Goienak.

2005-04-08 AITA SANTUA

Joan Paulo II.a Aita Santua hil zenean, hainbat debagoiendarren balorazioak jaso zituen *Goienkaria*-k erreportaje nagusian.

2005-04-22 ISTRIPU LARRIA

Lau gazte oñatiar auto-istripuan hil ziren Arrasatetik Oñatira bidean. Debagoiena hunkituta geratu zen gertakariarekin.

2010-02-05 ERREPIDEA, ITXITA

Lur-jauzia eragin zuen euriteak Aramaion eta Eskoriatzan. Arrasate-Aramaio errepidea itxita geratu zen.

2010-02-26 OBRAK DEBAGOIENEAN

PSOEren E Planaren 10,7 milioi euroko diru-laguntzek 30 obra finantzatu zituzten. Emaitzak erakutsi zituen Goienak bi orritan.

2010-06-18 PRIMERAKO REALA

Reala 1. mailara itzuli zen, eta taldea Debagoienera etorri zen, babesa eskertzera. Baskonia ere gurean izan zen.

2011-03-18 ATEZ ATEKOA

Antzuolan atez ateko zabor bilketa ezarri zen, eta arrakastaz: lehenengo astean, %86 birziklatzea lortu zen.

2011-10-21 "JARDUERA UTZI"

ETAk "jarduera armatua behin betiko amaitzea" erabaki zuen. Donostiako Konferentziako eskaera aintzat hartu zuen horrela.

honetan. Bi orri hauetan, azal horietatik hogei aukeratu ditu GOIENAk. Horien bidez, azken 12 urteotako Debagoieneko eta munduko historiaren laburpen bat izango dugu.

Aukeratutako hogei azal horietan agertzen diren kontuez gain, beste istorio garrantzitsu askok izan dute leku nabarmena Goiena aldizkarian: Abiadura Handiko Trena, Deba ibaia saneatzeko sarea, AP-1 edo bidegorriak bezalako azpiegituren jarraipena egin du; halaber, Debagoienerako gakoa izan diren beste batzuen berri eman zuen. Baita bere garaian komunikabideetan zein jendartean oihartzun handia izan zuten eta egunotan hizpide ez diren beste batzuena ere, Debagoieneko trenbidea edo Bus Rapid Transit, kasu.

Pil-pilean dagoen hondakinen inguruko eztabaida ere ez da gaur egungoa: 2002an hasi zen dagoeneko zeresana ematen, egoera oso bestelakoa izanda ere.

Arantzazuren itxura-aldaketa, Zubillagako hiltegiaren auzia, Debagoieneko ospitale berria, Kilometroak jaiaren bi edizio –Leintz bailaran eta Bergaran–, Euskal Eskola Publikoaren beste bi –Oñatin eta Bergaran–, Lezetxiki kobazuloko zein Atxorrotz gazteluko indusketak, Kulturate eta Arkupe kultur etxe berriak, Agorrosin kirolgunea, Lurreko Telebista Digitalaren sorrera, euskara elkarteen urteurrenak... guztion eta askoz gehiagoren berrien lekuko izan da GOIENA papera.

Antonio eta Felix dira bilketa zerbitzuaz arduratzen diren bi beharginak. | MONIKA BELASTEGI

Emausek etxez etxeko bilketa zerbitzua abiarazi du

Altzariak, etxetresna elektrikoak, arropak... sal daitekeen edozer batzen dute

MONIKA BELASTEGI | ARRASATE

Emausek etxez etzeko bilketa zerbitzua jarri berri du martxan Arrasaten. Urtarril erdialdean hasi zen zerbitzua, eta denetarik batzen dute: era guztietako altzariak, liburuak, etxetresna elektriko txiki eta handiak, liburuak, arropak... Egoera onean dagoen eta sal daitekeen edozer, azken batean.

Zerbitzua emateko bi lagun kontratatu dituzte, Arrasateko Udaleko Enplegu eta Garapen Ekonomiko Zerbitzuaren laguntzarekin, eta 3.500 kiloko kamioian egiten dute batzea bi langileok.

Doako zerbitzua da

Deba ibar osoari erantzungo dio Arrasateko zerbitzu berriak –Irunen ere badute halako beste zerbitzu bat–, nahiz eta beharren arabera, beste leku batzuetara ere egingo dituzten irteerak.

08:00etatik 16:00etara bitartean egingo dute lan eta zerbitzua erabiltzeko 902 45 58 55 telefono zenbakira deitu baino ez dago, ordua hartzeko. Batze eguna eta ordua zehaztuta, bi langileak erabiltzailearen etxera joango dira eta dagokiona batuko dute.

Zerbitzua doahinekoa da, baina kontuan hartu behar da etxetik kendu nahi ditugun tresna horiek egoera onean egon behar direla, saltzeko moduan.

Asmoa ganbara, etxea... traste zaharrez hustutzea bada, zerbitzu hori ere egiten du Emausek. Kasu horretan baina, kobratu egiten dute –aurrekontua egiten dute–, tresnen helburua ez baita salmenta, Garbigunea baizik.

2009an ireki zuen Arrasateko Nafarroa etorbideko 23an duen lokala Emasuek. *Sin desperdicio* tailerrarekin hasi ziren. 2010ean bigarren eskuko arropa dendari ekin zioten; iaz, bigarren eskuko altzari dendari eta aurten, bilketa zerbitzuari. Hiru langile hasi ziren eta gaur egun zazpi dira.

Pello Zabala | Frantziskotarra

"Nahiko udaberri goxoa izango da, loretsua eta polita datorrela dirudi"

Nahiko epela eta euri eta haize gutxiko udaberria iragarri du Pello Zabalak

M.B. | ARRASATE

Eguaztena, martxoaren 7a, izan zen kontratenporen azken eguna. Arantzazuko frantziskotarrak horren araberako iragarpena egin du, ohi bezala.

Laster sartuko gara udaberrian.

Ez diot kasu handirik egiten egutegi ofizialari. Gehiago begiratzen diot Kandelariari. Hor sartzen naiz ni udaberrian, eguna ordu eta erdi inguru luzatzen hasten denean. Zeltek -eta egiten zuten: Domu Santu egunean hasi negua eta Kandelarian, udaberria.

Eguaztena izan zen kontratenporen azken eguna. Ze irakurketa egin daiteke?

Kontratenporen lehenengo egunak, hau da, eguaztena, eguena eta egubakoitza udaberrikoak izan genituen benetan; 20-22 graduren bueltan. Eguraldi goxoa, hego-mendebal puntutxoarekin, baina haizerik gabe. Zapatuan mendebala hasi zen; goian lainoak, baina, hala ere, nahiko itxuroso. Eta domekan, itsasoko haizea, lainoak, euria, Arantzazu inguruotan elur apur bat ere ikusi dugu. Eta azkena, eguazteneko frantziar-iparra izan da. Zeruak garbitu zituen, eguzkia ikusi genuen eta epeldu ere egin zuen.

Eta hortik ibiliko da udaberria.


Pello Zabala. | GOIENA

Hala ematen du. Nahiko goxo esango nuke, nahiz eta tarteka itsasotik ere haizea sartuko den. Baina sartu denetan hain fundamentu txikikoa izan da... Otsaila bera ere oso euri gutxikoa izan da. Baina nahiz eta gutxi egin duen, euri egunak asko izan dira. Negua esango nuke portatu dela. Eta udaberriak, bada, euritik gutxiago, baina haize oso suabe horiek hor ibiliko dira, eta, tarteka, , mendebalarekin ekarriko du zaparradatxo bat edo beste.

Hortaz, epel, haize gutxi eta euria ere gutxi.

Euria, aukeran, gutxitxo. Nik uste dut nahiko udaberri goxoa izango dela alde horretatik. Udaberri loretsua eta polita datorrela dirudi.

San Blas opila eta txokolate dastatzea bihar Bergaran

M.B. | BERGARA

Deba Garaia Landa Garapen Elkarteak, Mankomunitateak eta Bergarako Turismo Bulegoak antolatuta, San Blas opilak eta txokolatea dastatzeko aukera egongo da bihar, zapatua, Munibe plazan, 19:00etan. Euro baten truke, antolatzaileek *gozo-pote* izendatu duten ekimenean parte hartzeko aukera egongo da.

Ekitaldia Debagoieneko X. Jardunaldi Gastronomikoen barruan antolatu dute eta gozogintza tradizionala mantentzen duten Bergarako hiru gozotegik parte hartuko dute: Larrañaga, Mujika eta Raizabal gozotegiek, hain justu ere. Dastatzearekin batera, gozotegikotako ordezkariak ere Muniben izango dira euren produktuak erakusten eta saltzen.

Papera kasuak bikoiztu egin dira bailaran azken hilabetean, brote baten ondorioz

Oñatiko ikastetxe baten gertatu da brote hori, baina egoera kontrolpean dago; edozelan ere, sasoi hauetan ez da harritzekoa kasuek gora egitea

G.A./M.B. | ARRASATE

Azken hilabetean nabarmen egin dute gora kasuek Gipuzkoan eta, batez ere, Debagoienean. Oñatiko ikastetxe batean papera agerraldia edo brotea izan da eta horrek igoarazi ditu zifrak gurean: iazko urteko lehen bi hilabeteetan 12-13 kasu diagnostikatu zituzten bailaran, eta aurten 25 dira dagoeneko. Gipuzkoako datuekin alderatuz gero, urtarrilaren 1etik martxoaren 6ra, Gipuzkoan, 131 kasu diagnostikatu dituzte; horietatik 25 Debagoienean, iazko kopuruaren bikoitza.

Hain justu, azken asteetan egin dute gora parotiditis edo, arrunki esanda, papera kasuek eta, uneotan, epidemia dago; epidemia txikia edo arina, baina epidemia, Eskualde Ospitaleko Larrialdietako zerbitzu buru Alejandro Masieren esanetan.

Edozein kasutan, garai honetan ez da harritzekoa papera kasuek gora egitea. Izan ere, negu bukaera aldera, hotzarekin, gazteak gehiago batzen dira eta, ondorioz, errazagoa da euren artean kutsatzea.

Mutikoa txertoa hartzen. | GOIENA

Listu-guruinen inflamazioa, sukarra, buruko mina eta ondoez orokorra dira sintomarik ohikoenak, baita barrabilen handitzea ere gizonezkoetan eta obarioena emakumezkoetan. Erraz kutsatzen da eta, hori saiheste aldera, berebiziko garrantzia du higieneak.

Prebenitzeko, bakuna

Hiru bakuna hartzea da paperak prebenitzeko modua, hiru bakuna hartzea: lehena, 12-15 hilabeterekin hartzean da, bigarrena 4 urterekin eta hirugarrena 11-12rekin. Kontua da, ordea, askotan ez dela lehen dosia besterik hartzen eta, ondorioz, ez dela inmunitatea behar bezala garatzen; horixe da, hain zuzen, uneotan paperak dituzten gazteen %85en kasua, Masie medikuaren esanetan. Hiru bakunak ondo hartuta, edo behin paperak izan eta pasata, bizi osorako inmunitatea lortzen da.

Behin paperak diagnostikatuta, komeni da astebetean etxean geratzea atseden hartzen, klase kideak edo lankideak ez kutsatzeko. Bizpahiru astean erabat osatzen da eta ez du inolako arrastorik uzten, nahiz eta kasurik txarrenean meningitisa eragin dezakeen. Dena den, horretara ailegatuta ere, gaixotasun birikoa litzateke eta ez bakterianoa, kontrolatzeko errazagoa, beraz.

Alderdi nagusiak mahaiaren bueltan jarriko dira Bergaran atez atekoaz berba egiteko

Hilaren 14an, eztabaida saioa izango da Zabalotegi aretoan, Mankomunitateak eta Goienak antolatuta

M.B. | ARRASATE

Hiri hondakinen kudeaketa egokiena gaur eta hemen. Horixe datorren eguaztenean, hilaren 14an Bergaran egingo den eztabaida saioaren izenburua. 19:00etan izango da Zabalotegi aretoan, alderdi politiko nagusi guztien partaidetzarekin eta Debagoieneko Mankomunitateak eta Goiena Komunikazio taldeak antolatu dute. Hain justu ere, bost alderdi nagusienetako ordezkari banak hartuko du parte Goiatz Arana kazetariak gidatutako saioan: Juan Karlos Alduntzin, Foru Aldundiko Ingurumen diputatuak; Maria Eugenia Arrizabalaga, EAJko legebiltzarkideak; Denis Itxaso, Gipuzkoako PSE-EEko Ingurumen saileko idazkari eta Donostiako zinegotziak; Rafael Olaizola, Zarautzeko zinegotziak; eta Rebeka Ubera, Aralarko Gipuzkoako batzarkideak.

Goieba telebistan, osorik

Goiena telebistak oso osorik hartuko du mahaingurua eta 21:30ean emango du, eguaztenean bertan.

Aipatzekoa da, bestalde, bertaratzen diren herritarrek parte hartu ahal izango dutela galderak eginez.

Horrez gain, *Goiena.net* ataritik zuzen-zuzenean emango da saioa *streaming* bidez eta erabiltzaileek uneoro, galderak, iruzkinak edo iritziak bidali ahal izango dituzte sare sozialak baliatuz. Twitter bidez, esaterako, *#hondakinak* erabiliz parte hartu ahal izango da.

Herritarren parte hartzea bultzatzeko tailerra Oñatin

Gipuzkoako Foru Aldundiak antolatuta, erakundeetan herritarren parte-hartzea bultzatzeko tailerraren hirugarren saioa egingo dute aste bukaeran Oñatiko Enpresagintza fakultatean. Partehartzeari buruzko Gipuzkoako sarea osatu nahian, dagoeneko bi tailer deitu ditu Aldundiak. Lehenengoa Orion egin zuten urtarrilean eta parte-hartzearen gaineko diagnostikoa egin zuten. Bigarrena Usurbilen egin zuten, otsailean, sarearen beharraz jarduteko. Oñatin, *Nola antolatu sarea?* delako gaia landuko dute.

Zinemaren estetika eta historia izango dute hizpide Oñatin

Datorren martitzenean, hilaren 13an, *Nola hurbildu film batera. Hizkuntza zinematografikoa* izeneko hitzaldia izango da Oñatiko kultura etxean. 18:00etatik 20:00etara bitartean izango da saioa eta Zigor Etxebeste Zinematografiaren Estetika eta Historian adituak emango ditu azalpenak.

Aulas Kutxak antolatu du hitzaldi hori, Bergarako Uned zentroaren eta Goienagusi elkartearen laguntzarekin batera.

Saioa dohainekoa da eta interesa duten herritar guztiak daude gonbidatuta.

Aste Santuari begira, ondo senti zaitez kanpotik eta barrutik!

Murriztu itzazu soberan dituzun gorputzeko zonak.
Pertsonen beharren araberako tratamendu pertsonalizatuak eskaintzen ditugu.

Zelulitis tratamendua • Tinkotzea • Formen birmoldatzea
Zirkulazioaren aktibazioa• Drainatze linfatikoa • Programa nutrietikoa

Behar duzun tratamenduan
%20ko
bonifikazioa
aplikatuko dizugu.
Eskaintza baliagarria martxoaren 30era arte.

LILURA
EDERTZE INSTITUTUA
Guadalupe Garcia
Mikropigmentazioan espezialista.
Nº 1793

Etor zaitez eta informa zaitez konpromiso barik!

Bidekurutzeta 7 1 a. 20570 • Bergara • Tel.: 943 76 31 71
lilura@lilura.com • www.lilura.com

Iñaki Etxezarreta, Arrasateko Otalora Lizentziaduna kalean, atzo, eguena. | ENEKO AZKARATE

Iñaki Etxezarreta | IkasElkar erakundeko zuzendaria

"Ikastolen hautua egitea ez da umea eskolan uztea kuota baten truke"

- Ikastolen Konfederazioko zuzendari ohiak ikastolen gainean dihardu
- Berbaldia egingo du 'Gu izateko ikastola egin' gaiaren inguruan

ENEKO AZKARATE | ARRASATE

Urretxuarra da, 56 urte ditu, eta ia bizitza osoa daroa ikastoletan, gazte-gazte zela bere herrikoan irakasle hasi zenetik. Euskal Herriko Ikastolen Konfederazioko zuzendaria izana da. Duela bi urtetik, Elkar argitaletxearekin batera ikastolek sortutako IkasElkarko zuzendaria da. Ikastolen izaeraz, orainaz eta etorkizunaz dihardu. Izan ere, Arizmendi Ikastolak antolatuta berbaldia egingo du datorren eguaztenetan, 18:00etan, Arimazubi gunean, Arrasaten. *Gu izateko ikastola egin* izenburuaz.

***Gu izateko ikastola egin*. Zer esan nahi duzue?**

Ikastolen gainean diharducunean, berehala, euskara, euskal kultura, euskaldun hezkuntza… etortzen zaizkigu burura. Hori guztia da, hain justu ere, ikastolen arima eta motorra. Baina hori baino askoz ere gehiago badira ikastolak. Konplexuagoa eta aberatsagoa da. Geroago eta globalizatuagoa, indibidualagoa eta inpertsonalagoa den jendarte honetan, jendartea ez ezik herria ere egiten saiatzen gara. Horretarako, irakaskuntzak ematen du sekulako aukera. Eta gure kasuan, ikastolen ohiko eskaintzaz gain, saiatzen gara bilatzen gurasoek zelan parte har dezaketen gure proiektuan. Hori da garrantzitsua. Ikastolen hautua ez da umea eskolan utzi eta erabat ahaztea, kuota baten truke. Ikastolara mentalitate horrekin datorren gurasoak, seguruen, ez du hauturik onena egin. Gurasoak aktiboa izan behar du bere umearen hezkuntza proiektuan. Etengabe, tradizioa eta berrikuntza uztartzen gabiltza ikastolan, eta horretan, gurasoak ezinbestekoak dira.

Ikastolek bizi izan dute urte gogorragoak eta hobeak. Zein da une honetako egoera?

Ikastola bakoitzak du bere nortasuna eta euskal herriak ezagutzeko modua da ikastolak ezagutzea. Euskal Herriaren ugaritasuna islatzen dute ikastolek. Euskal Herriko Ikastolen Konfederazioko zuzendaria izana naiz eta esan dezaket ez badituzu ikastola guztiak ezagutzen ez duzula Euskal Herria ezagutzen. Tuteratik Muskizera edo Baionatik La Puebla de Labarcarainoko tarte horretan dauden euskal herriak oso ondo islatzen dituzte ikastolek.

Zein da ikastolen etorkizuna?

Bi besok mugitzen dituzte ikastolak: batetik, zelan egonkortzen da, juridikoki eta ekonomikoki, ikastola mugimendu deitzen dugun hori? Izan ere, ahazten zaigu Gipuzkoaren barruan bizi dugun egoerak, esaterako, ez daukala zerikusirik beste lurraldeetan bizi den egoerarekin. Nafarroan, hainbat ikastola dago herio txarrean. Iparraldean, egoera egonkortzea lortu dute ikastolek, baina edozein unetan eror daitezke. Euskal Autonomia Erkidegoan zaila egiten zaigu ikastolei eustea edo berriak sortzea, hain justu ere, gobernuen aldetik presio gogorra daukagulako ikastolak ez daitezen hazi edo ugaldu.

Bigarren besoa?

Lotuta dago izaera berritzailearekin. Azkeneko urteotan erabaki estrategikoak hartu dituzte ikastolek. Eta horietako bat da euskal curriculuma. Curriculum euskalduna izateaz gain, irakaskuntza moderno eta abangoardiazko bat aurrera eroateko estrategia, datozen 12 urteak markatuko dituena.

Kanpotik datorrenak ikastolak definitzeko eskatzen badizu, zer esango zenioke?

Nortasun juridiko propioa duen hezkuntza entitate euskalduna da ikastola. Ez da eskola publikoa; hortaz, ez dago administrazioaren mendean, zuzenean. Ez da Elizaren eskola bat. Kooperatiba elkarte bat da, edo kultura elkarte bat. Guraso guztiak, gutxienez, hartzen dituen erakunde propio bat. Erabaki aktiboak eta kolektiboak hartzen ditu, beste erakundeen zain egon barik. Eta hori egiten du euskalduna eta abangoardiazkoa den hezkuntzaren alde.

Gaur egun beharrezkoak dira ikastolak?

Izango dira baita Euskal Herria independente eta guztiz garatu batean ere. Ez gara izango herri txiki honetan, nor, inoiz, gu ez bagara. Ez dugu lortuko burujabetzarik, geure burua proiektuetan murgiltzeko gauza ez bagara. Ikastola da inplikazio leku bat. Horrekin ez dugu ukatzen, jakina, esan beharrik ere ez dago, norbaitek seme-alabak administrazioaren arburapeko eskola batean hezi nahi izatea edo eliza-eskola batean hezi nahi izatea. Bi aukerak dira guztiz zilegi. Baina gure interpretazioa da herria, jendartea, egiteko modu esanguratsua dela ikastola egitea.

Gauza bera dira ikastola, ikastetxea, eskola, kolegioa... Jendeak nahastu egiten ditu?

Eskola publiko guztiak ez dira euskaldunak. Kristau eskola guztiak ere ez. Eskola publikoek edo kristau eskolek ez dituzte materialak egingo inoiz. Arrazoia ez da bertako profesionalak ez direla hori egiteko gauza. Arrazoia da ez dutela nortasun juridikorik hori egiteko. Ezin daitezke, kolektibo moduan, ekintzaileak izan. Ikastolak badira, horretarako bideak jarri dituztelako. Hori da ikastolen bereizgarria: har ditzake erabakiak tokian-tokian, baina, era berean, har ditzake nazio mailan ere. Horrek aukera handiak ematen digu; arazoak ere bai, jakina, batez ere botere publikoarekiko. Eskola, hasieran, Elizaren monopolioa izan zen; gero, Estatuarena. Ikastola da hirugarren espazioa.

Horregatik esaten da, batzuetan, ikastolak pribatuak direla?

Ikuspuntu juridikotik, publiko ez den erakundea pribatua da. Baina publikoak badu morrontza. Juridikoki izango da publikoa, baina Estatuaren edo administrazioaren eskola publikoa izango da, boterean dagoenaren eskola. Ez da izango eskola hori osatzen duten herritarren eskola, ez dutelako eskumenik eskola horretan agintzeko, zuzenean. Erabaki estrategiko eta ideologikoak, komunitate bati erantzuten dionak, ezingo ditu hartu. Gaurko ikastolako jabeak ez dira sorrerakoak. Transmititzen den propietatea da.

Zein da Debagoieneko ikastolen egoera?

Arizmendi da ikastolarik handiena. Eragin ahalmen handia du eta berrikuntzarako aukerak ematen dizkio. Baina badauka bere alde ahula. Handia izateak burua ateratzera behartzen zaitu. Edonork ikusten zaitu, eta, horregatik, beti auzitan egon zaitezke. Txantxiku Ikastola, bestalde, oso ondo kokatuta dago. Gorpuztu egin du bere espektro soziala, bere estiloa. Jakin izan du herrian bere lekua topatzen. Pedagogikoki, garabidean dago. Bergarako Aranzadirena partikularra da. Bizi du herriko beste eskolen artetik presio gogorra. Aranzadik bi gabezia izan ditu: bata, eraikinarena, konpontze bidean dagoena; bestalde, azkeneko urteotan freskotasuna galdu du eta ez du asmatu bere lana herrian proiektatzen. Marketin ezaren paradigma izan da.

"Euskal curriculuma da azken urteotako erabaki estrategiko inportantea"

"Erabaki aktibo eta kolektiboak hartzeko burujabeak dira ikastolak"

"Gobernuen presio gogorra daukagu ikastolak ez daitezen ugaldu"

"Herria, jendartea, egiteko modu esanguratsua da ikastola egitea"

ZABALIK

ENEIDA ITURBE
http://goiena.net/iritzia/

Eurovegas? Ez, eskerrik asko

Krisiak gauzak diru gutxiagorekin egitera behartu gaitu eta, ondorioz, sormena eta irudimena gehiago lantzen omen ditugu. Kreatiboagoak izatera bultzatu gaitu, beraz. Askok hala ulertzen dute krisia eta ideia berrien iturri dela diote. Beste zenbaitentzat, aldiz, edozer justifikatzeko aitzakia da. Azken lan erreforma, esaterako. Edo Eurovegas bezalako makro proiektu espekulatiboa.

Madrilek eta Bartzelonak etxera eraman nahi dute Las Vegas europarra. Lanpostuak sortuko dituela eta dirua eramango dietela diote. Horren truke, baina, Sheldon Adelson multimilionario estatubatuarrak nahi duen dena egiteko aukera eduki nahi du.

"Inguruneak eta gizarteak kalte ugari jasango lituzkete"

Hark eskatzen dituen baldintzak bete ahal izateko zenbait lege aldatu beharra legoke, ez baitu zergarik ordaindu nahi eta beste zenbait erraztasun eskatzen baititu. Kasinorako eta inguruan eraikiko liratekeen hoteletarako eta bestelako zerbitzuetarako lan-esku merkea lortu nahiko luke Adelsonek. Horretarako, beste herrialde batzuetatik eramango luke jendea, lan baldintza eskasetan eta eskubide gutxiagorekin aritzeko.

Bartzelonan eraikiz gero, El Prateko aireportutik gertu kokatuko lukete makroproiektua, Baix Llobregat eskualdean. Kataluniako eskualderik populatuenetakoa da hau eta gehiago urbanizatzea pentsaezina litzateke.

Adelsonek antzerako beste kasino eta *resort* ugari dauzka munduan zehar. Ekologistak Martxan taldeak leku horietan droga, prostituzio eta mafiak mugitzen direla salatu du.

Inguruneak eta gizarteak kalte ugari jasango lituzkete, beraz, Eurovegas Bartzelonan ezarriz gero. Zeinek gozatuko luke, bada, kasino eta bestelakoekin? Generalitatearen arabera, itsas gurutzaldietan Bartzelonan porturatzen diren turistentzat denborapasa ona izango litzateke.

Turistei begira, pertsonen esplotazioan oinarritutako proiektu espekulatiboa nahi? Ez, eskerrik asko!

USTEAK USTE

GOIATZ ARANA | goarana@goiena.com

Oñati, Itzulirako prestatzen

Argitu da azken asteetako zalantza. Euskal Herriko Itzulia egingo da eta munduko txirrindulari onenak ikusiko ditugu Debagoienean barrena. Oñatin duela zazpi urteko argazkia errepikatuko da; bertan bukatuko da azken-aurreko etapa eta jokatuko da azkena, diferentzia batekin: Contadorrek irabazi zuen orduko erlojupekoa eta hirugarren geratu zen sailkapen orokorrean; aurten ez du parte hartzerik ere izango. Bien bitartean, herriko dendariek ez dute denborarik galdu eta ekimen berezia gertatu dute: Txanda elkarteko txartelarekin ordainketak egiten dituztenen artean txirrindularitzarekin zerikusia duten opariak zozketatuko dituzte. Herria hasi da girotzen.

MARRAZKIZ

ALEX UGALDE | http://goiena.net/iritzia/

HANDIK ETA HEMENDIK

Asteburuan elebitasun pasiboa praktikatzen

Onintza Irureta Azkune
http://argia.com/erredakzio-mahaia/

Guillermo Gomezi *Profesor de ELE en apuros* blogean irakurritakoaren harira akordatu naiz asteburuko bi egoeraz. Gomezek aitortzen du elebitasun pasiboaren oso zalea ez dela izan, baina orain bide interesgarria izan daitekeela uste duela. Elebitasun pasiboaren bi adibideren erdian izan naiz asteburuan. Larunbatean Euskal Herriko Bilgune Feministak antolatutako topaketetako tailer batean izan naiz. Nire alboan duela urte batzuk atzerritik etorritako kazetaria eseri da; ezagutzen dut, ez du euskaraz hitz egiten eta pixka bat ulertzen du, nahiz eta berak esan poliki hitz eginez gero ulertzen duela. Korapiloa egin zait eztarrian, hiru bat orduko saioa aurretik, gutxi gara tailerrean eta gaztelaniaz egin behar ote dugu? Gaur nekatuta nago, ez daukat gaztelaniaz egiteko gogorik, euskaraz ez dakien bakarra da, nik paso egingo dut eta euskaraz egingo dut… Tailerreko gidariak bakoitzak aurkezpentxoa egitea eskatu du, "ea, ea zer gertatzen den…" pentsatu dut. Atzerriko kazetariak hitz gutxitan egin du aurkezpena, euskaraz, eta gero gaztelaniaz esan du entzutera etorri dela. Gidariak esan dio ea ulertzen duen euskaraz, eta besteak baietz, makal eginez gero baietz. Ez da egia, nik badakit gutxi ulertzen duela, eta berak ere honezkero bazekien zenbat ulertuko zuen eta zenbat ez. Txalogarria iruditu zait kazetariaren jarrera, hantxe egon da hiru orduz, entzuten, elebitasun pasiboa praktikan jartzen, euskara ikasten.

Igandean, Lilatoia. Betiko lagun korrikalariarekin bazkalduko dut. Herri euskaldunean jaioa da, Espainiatik etorritako gurasoak… betiko perfila. Ez du hitz egiten euskaraz eta pixka bat ulertzen du, nahiz eta berak esan ondo moldatzen dela ulertzeko. Zer egin? Dena euskaraz egiten badut beste lagunekin berak ez du lortuko konbertsazio bat bera ere jarraitzea. Bietara egin dugu. Euskaraz egin dugunean oso adi jarri da, batzuetan igartzen zaio ulertzen duela eta beste batzuetan ez du haria segitu. Berarentzat egoera gogorra dela pentsatzen aritu naiz, herri euskaldunean jaio, beste herri euskaldun batean bizi… eta kapaz ez herrikideen euskara ulertzeko. Ez ezazue ordea, bestela ulertu, niri pena eman dit berak, baina segitzen dut pentsatzen deseroso sentitu behar dutela, alegia, behin eta berriz deseroso sentitu behar dutela euskaraz jo eta su ari direnen erdian, adi-adi… ikasi arte, sikiera ulertzera heldu arte. Beste kontu bat litzateke hitz egiten ikastea.

Politena gero etorri da. Hegoamerikar tankera duen zerbitzariari edaria kobratzeko eskatu diot euskaraz, jakin gabe ulertuko didan ala ez, eta albotik, barrez, aipatu berri dudan lagunak: "Baina ba al dakizu ba ulertuko dizun euskaraz?", eta nik "Probatu egin behar da!".

Ez dakit zerbitzariak entzun duen gure konbertsazioa, baina "sei euro eta hamar" erantzun du euskaraz. Nik lagunari, "ikusten?". "Es verdad!, es verdad!".

Betiko kontuak dira, nobedaderik ez, baina asteburuko bi pox txikitxo niretzat.

goiena
KOMUNIKAZIO TALDEA

Argitaratzailea Goiena Komunikazio Taldea Kooperatiba Elkartea
E05 Basabe Poligonoa,
20550 ARETXABALETA
Lehendakaria Estepan Plazaola
Zuzendari nagusia Inazio Arregi

Zuzendaria Eneko Azkarate
Erredaktore burua Monika Belastegi
Sailetako arduradunak Xabi Urtzelai (Kirola), Iñaki Iturbe (Diseinua), Mireia Larrañaga (Publizitatea)

Maketazioa Iñaki Iturbe, Imanol Soriano, Kepa Martelo.
Publizitatea Mireia Larrañaga, Amaia Mundiñano, Ziortza Martin, Imanol Elortza.
Testuen zuzenketa Sergio Azkarate
Harpidetza eta banaketa Marta Leturia
Administrazioa Agurtzane Gaintzarain, Ane Berezibar, Iratxe Bengoa.

EGOITZA NAGUSIA - GOIENA PAPERA
ARRASATE 20500:
Otalora Lizentziaduna 31 | 132 posta-kutxa
Tel.: 943 25 05 05 | Faxa: 943 25 05 00
arrasate@goiena.com

ORDEZKARITZA
ARETXABALETA 20550: Durana 11
Tel.: 943 79 86 21 | Faxa: 943 77 18 54
aretxabaleta@goiena.com

Publizitatea Aretxabaleta 20550
E05 Basabe Poligonoa | Tel.: 943 25 05 05
Faxa: 943 25 05 09 | publi@goiena.com
Harpidetza Aretxabaleta 20550
E05 Basabe Poligonoa | Tel.: 943 08 10 50
harpidetza@goiena.com
Lege Gordailua: NA-3329/2000
ISSN: 2174-369X
Tirada: 20.100 ale.
Difusioa: 19.951 ale.

OJD erakundeak ikuskatutako astekaria.

GOIENAk ez du bere gain hartzen IRITZIA eta GUTUNAK orrialdeetan, edo bestelako orrialdeetako kolaboratzaileek, adierazitako iritzien erantzukizunik.

LAGUNTZAILEAK

Gipuzkoako Foru Aldundia | Arrasateko Udala | Bergarako Udala | Oñatiko Udala | Aretxabaletako Udala | Eskoriatzako Udala | Antzuolako Udala | Aramaioko Udala | Elgetako Udala | Leintz Gatzagako Udala

Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak diruz lagundutako aldizkaria

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

GUTUNAK

Atal honetan argitaratzeko diren gutunek, gehienez izan behar dituzte 1.900 karaktere (hutsuneak barne) edo 50 lerro. GOIENAk eskubidea du gutuna laburtzeko.

Gutunarekin batera bidali beharrekoak dira: egilearen izena eta abizena, herria eta harremanetarako telefonoa.
Gutuna helarazteko bideak dira: Otalora Lizentziaduna, 20500 Arrasate | papera@goiena.com | Faxa: 943 25 05 00

Ikastolak hemen beharrezkoak, han ezinbestekoak!

Ainhoa Barberan eta Ainhoa Lete
(Batxilergoko Bazarako 16 ordezkarien izenean)
Aretxabaleta/Arrasate/Eskoriatza

Arizmendi Ikastolakoek, Lodosako Ibaialde Ikastolaren egoera ikusita, Leintz bailarako hiru herritan, Eskoriatzan, Aretxabaletan eta Arrasaten, ekitaldiak egin zituzten otsailaren 24an (ostirala).

Ekitaldi horien helburua zen dirua lortzea herriko plazak betez eta bertako jendea animatuz.

Bazara batzordeko ikasleei ekimen horretan parte hartzeko proposamena egin zigutenean, birritan pentsatu gabe baiezko borobila eman genuen.

Ostiraleko atsedenaldian Almeneko ikasleak jolastokira irtetean, lagun koadrila handi bat ikusi genuen.

Zeharo harrituta geratu ginen Lodosako guraso, ikasle eta irakasleak zirela ohartu ginenean, ez baikenekien horrenbeste etorriko zirenik, 110 lagun!

Sekulako giroa jarri zuten ordu horietan normalean nahiko isilik egoten den futbol zelaian.

Trikiti eta pandero soinu artean hasi ziren ekitaldiak herri guztietan.

Hasieran haurrak nagusi izan arren, poliki-poliki gurasoak ere gerturatzen joan ziren, plazak giro bikainez betez.

Bertara hurbildu ginen guztiok elkartasunaren indarra zuzenean bizi izateko aukera izan genuen, eta baita zenbait momentu hunkigarriz gozatzekoa ere.

Eguraldia ere lagun izan genuen arratsalde osoan zehar, denon lana dezente erraztuz.

Haurrak ederki asko portatu ziren, Ibaialde Ikastolaren logoa aurpegian, globoetan edota paperean margotuz.

Lodosarrak animatzeko mezuak idatzi genituen guztiok muraletan, gure grinaren zati bat behintzat erakusteko asmoz.

Jendeak eskua poltsikoetara eramatea ere lortu genuen!

Jendearen borondatearekin zer lor daitekeen ikustea esperientzia aberasgarria izan da guretzat.

Arizmendi Ikastolako ikasle eta Bazara batzordeko ordezkari garen aldetik, zalantzarik ez dugu hurrengo batean ere horrelako zerbait sortuz gero laguntzeko prest egongo garela.

Izan ere, ekimen hau guretzako ez da betebeharra izan, plazera baizik.

Euskaraz bizi nahi dut

Aitor Aranzabal
(Euskal Herrian Euskaraz)
Bergara

Azken urte hauetan lan ugari egin da gure hizkuntza geure herrian modu normalizatu baten erabili ahal izateko.

Horren adibide garbiak dira sortutako ikastola, egunkari, euskara elkarte, film…

Baina hauek guztiak eta beste hainbat lortzeko, hainbat jenderen etengabeko lana egon da.

Hala eta guztiz ere, oraindik lan asko dago egiteko, oztopoak handiak baitira.

Euskararen normalizazio prozesu honetan erabilera ezinbestekoa da, baina berau sustatzea ez da soilik euskaldunon bizkarra zigortzea.

Erabilera sustatzea euskaraz bizitzeko aukerak sortzea ere baita: ikasketak euskaraz burutu ahal izatea, hedabideak euskaldunak izatea, sendagile edo epaile euskalduna izatea... Hori gabe, euskara erabiltzeko oso eremu txikia izaten jarraituko baitugu.

Eta erabilera sustatzeko herritarron nahia ezinbestekoa da.

Asko gara euskaraz bizi nahi dugunak, jadanik euskaraz bizitzeko hautua egin dugunak eta geure eguneroko jardunean hori praktikan jartzen dugunak.

Hori dela eta, garai berri hau euskararen garaia izango dela bermatu behar dugu denon artean.

Orain herritarron aukera da, milaka herritarrek euskaraz bizitzeko erabaki sendoa erakusten badugu, euskaraz bizitzeko baldintzak lortuko ditugu, eta berandu baino lehen euskaraz biziko gara, herri hau euskaraz biziko da.

Testuinguru honetan, Bergaran ere euskaraz bizitzeko hautua egiten dugun pertsona kopurua ahalik eta handiena izan dadin *Euskaraz bizi nahi dut astea* egiten ari gara. Martxoaren 6tik 10era.

Honekin batera, martxoaren 17an Euskal Herrian Euskaraz-ek antolatuta Donostian egingo den Euskaraz Bizi egunera animatu nahi zaituztegu.

Zibilizazio krisiari alternatiba feminista

Sergio Campo eta Julia Monge
(Gorripidea)
Arrasate

Gorripidean betaurreko bioletekin begiratzen ikasi nahi dugu, sexu-genero mailatik aztertu ahal izateko eta gure jendartea atxikitzen duen ezberdintasun nagusienarekin erabateko oharpena izan dezagun.

"Zibilizazio krisia" deitua izan den hori erantzuterakoan, geure gogoetekin parte hartu nahi dugu.

Zibilizazio krisia dugu, ez finantzak edo BEG gainbehera datozelako, aitzitik, eta batez ere, bizitzari berari eustea arriskuan jartzen duelako.

Bizitzea ulertzen dugu, Iparrean zein Hegoan, baldintza duinez osatuta.

Planetaren muga fisikoekin arduraz jokatzen duena, sostengarria izan nahi duelako.

Kapitalaren nahiei amore ematen ez dion bizitzea, bere buruaz jabe nahi duelako izan.

Aldarrikatu nahi dugu aspalditik mugimendu feministak, eta bereziki kasu honetan ekonomia feministak, azaltzen duena: gizonen eta emakumeen arteko ezberdintasuna kuestionatzea produkzioa erreprodukzioaren gainetik jartzen duen eredu ekonomikoa kuestionatzea da baita ere.

Inoiz baino gehiago bizitzaren alde ekin behar dugu, jakinik behar humanoak, ondasun eta zerbitzuekin bezala, baita harreman eta hunkitzeekin osatzen dela.

Logika kapitalistaren eta sozialaren antolamendu heteropatriarkalaren arteko batzeak lana enplegutik bereizi du, ekoizgarria dena bakarrik baloratuz.

Honek ekarriko du sexuen arteko bereizketa aberastasunaren sortze eta banatzearekin; lanaren bereizketa sexuala edo emakumeen parte hartze eta baztertze laborala.

Hau guztia gutxi balitz, merkatuak zein neoliberalismoak bultzatzen ari diren mozketen eromen honetan, krisitik irteteko errezetak bizitzearen euskarritasunaren banaketa are gehiago zailtzen eta desorekatzen ari dira.

Gutxieneko soldataren izoztea, IRPFaren erreforma, alargun pentsioaren hobetzearen luzatzea, aitatasun baimena zabaltzearen luzatzea, dependentzia legea martxan jartzeari moratoria edo zaintza eta arretarako baliabide publikoen gutxitzea (haurtzaindegiak, dependentzia zerbitzuak, eta abar), halako neurriek bereziki emakumeengan dute kontrako eragina.

Emakumeok gara bazterketa ekonomikoaren eragina gehien jasaten dugunok, lan prekarietatea edo ordaindutako lana eskuratzeko zailtasun handiak.

Berdintasun politikak zalantzan jartzen dira, krisi garaia hauetan halakoak luxua diren aitzakian.

Berriro ere, aitzakia zuria lanaren bereizketa sexuala indartzeko, eskema patriarkaletara itzuliz, zeinean emakumeak lan bikoitzean espezializatzea baitakarren; alegia, ordaindu gabeko sendiarena eta lan merkatuarena, gaizki ordaindua eta noizbehinkakoa.

Eta hau guztia gutxi balitz, gastu publikoan ematen ari diren mozketek euren biktima gustukoenak dituzte emakume institutuak edo genero bortizkeria borrokatzeko zerbitzuak.

Berdintasun politika hauek zalantzan jartzea ez da ezustea, eraso kontserbadore gaitza, katolikoa eta patriarkala da:

-PSEren ahalegina bortizkeria matxistaren kontrako borroka Barne Sailean kokatzeko edo etxeko bortizkeria bezalako esamoldeak erabiltzen hastea berriro.

-Azkunaren ordenantza sexofobikoa (EAJren, PPren, PSEren eta EBren laguntzarekin) prostituten eta kaleko sexuaren kontra.

-Abortuaren plazoen legearen ezabatzea eta hurrengo eguneko pilularen zalantzan jartzea.

-Hiritartasun Hezkuntzaren ikasgaiaren ordezkatzea…

Dena dela, Gorripidea gisa borroka honetan parte hartu nahi dugu kapitalismoa gainduiko duen ikuspegi feministaren batetik.

Horregatik, Martxoaren 8an kalean egongo gara mugimendu feministaren laguntzen euren aldarrikapenekin; eta, batez ere, gure nahia azaldu nahi dugu urteko gainontzeko egunetan ere egoteko sexu eta generoen arteko berdintasunerako borrokan.

Gora, borroka feminista!

Atez ate Arrasateren eta Debagoienaren lehentasuna?

Juan Karlos Garitano, Maria Ubarretxena, Ibon Arrupe eta Juan Ramon Mendieta
Arrasate

Arrasateko EAJ-PNV taldea Zero Zabor filosofiarekin bat dator, eta birziklapenak duen garrantzia azpimarratzen dugu.

Honen adibide garbia da gure taldean ingurugiroan espezializatutako profesionalak daudela, hondakinen gestioa ondo ezagutzen dutenak, eta bide honetatik egin behar dugula argi daukagu:

Gure eguneroko politika "Zero zabor" filosofiarekin erabateko konpromisoa da.

Hau da, hondakina sortu baino lehenago gutxitzea, bere bizitzan zehar berrerabiltzea, birziklatzea edo konpostatzea, hala badagokio.

Gainontzeko errefusa, erre edo erraustea eta honi etekina atera energia bihurtuz.

Zuei guztioi, herritarroi, gure idatzia zuzentzeko arrazoia zera da: Arrasateko eta Debagoieneko udal gehienak gobernatzen dituztenek ez dute onartzen gobernuan ez gauden beste udal taldeekin atez ateko zabor bilketa modeloaren azterketa eta eztabaida egiterik.

Gehiago esango dizuet, ehunka milaka euro eman dizkiote Debagoieneko Mankomunitateari sistema hau ezartzeko.

Gainera, erabakia alde batek bakarrik hartu du, unilateralki, udal bakoitzean ezertxo ere eztabaidatu gabe.

Erabakiak hartzeko modu autoritario hauek kultura demokratikoaren gabezia dutela erakusten dute.

Nahitaezkoaren kultura da, behartutakoa, iluna eta atzera egiterik uzten ez duena.

Bildu bere gehiengo nagusiaren erabilera okerra egiten ari den adibide garbia dugu hau.

Beraz, herritargoaren aurrean salatu nahi dut jokabide hau, eta aurrerantzean komunikabideen bitartez informatuko zaituztedala esan nahi dizugu; izan ere, udaletxean ezin dugu ezertxo ere egin informazioa zuengana irits dadin.

Hasteko, erreflexio bat egin nahi dizuet: ba al du justifikaziorik hainbeste milioi euro gastatzeak zabor bilketa sistema hau ezartzeko?

Debagoienak ez al du beste behar garrantzitsuagorik?

"Politika arazoak bilatu, aurkitu eta nahastuta dauden irtenbideak ematearen artea da" (G.Marx).

Hau da, zabor bilketa sistema lehentasunezko arazo bilakatzea, orain dugun bilketa sistemari etekin gehiago atera gabe, eta irtenbide bezala atez atekoa proposatzea, ez al dago lekuz kanpo?

Bosgarren edukiontziaz gora eta behera

Josu Zaloña
(Aretxabaleta Zero Zabor taldearen izenean)
Aretxabaleta

Ukaezina da zaborraren gaiarekin arazo garrantzitsua dugula esku artean, eta eztabaida ahoz aho dabilela; hainbat gizarte eragilek alarma soziala sortzeko baliatu duela nabaria da, gainera.

Arazoa hor dago, gero eta hondakin gehiago sortzen baitugu, gero eta ontzi gehiago, enbalatutako produktu gehiago, poltsa gehiago...

Era berean, gero eta gutxiago berrerabiltzen ditugu gauzak, eta "usar y tirar" delako hori gero eta barneratuago dugu.

Bestalde, sortzen dugun hondakin horren ehuneko txiki bat besterik ez dugu gaika berezituta jasotzen (papera-kartoia, ontzi arinak, beira eta organikoa), 2007an, EAEn, %30,5 besterik ez; azken urteetan ere, kontenedoreen bidezko gaikako bilketa moteldu egin da (*Larrun* aldizkaria – 148. zenbakia).

Hala, gaika biltzen ez duguna zabor bihurtzen da.

Goian azaldutako hau bera da Europako Parlamentuko 2008/98/CE zuzentarauak ere jasotzen duena; lehenik murriztu behar dela, bigarrenik berrerabili, gero birziklatu, eta soilik ondoren, beste balorizazio bat eman, hala nola energia bihurtu.

Erraustegiaren aukera lehenesten ari dena oker ari da, beraz.

Eskualdeko udalak, hondakinak atez ate jasotzeko sistema ezartzeko erabakia hartzekoak direla eta, bosgarren edukiontziaren erabilera sustatzea dela bidea aldarrikatu dute batzuek, konponbide gisa-edo, baina egia zera da, ez lukeela, inondik inora, sortzen dugun hondakinen gehiengoa gaika jasotzea bermatuko, ezta ikaragarrizko kanpaina etengabe bat aurrera eramanez ere.

Hori esaten duena seriotasun gutxirekin berba egiten ari da; edo bestela, jar dezala mahai gainean horren erakusgarri den kasuren bat.

Datuak adierazgarriak dira, gainera: Usurbilen, 2010. urtean, 55.560 kilo gai organiko jaso zen, urtarrilean zehar, Aretxabaletan bosgarren edukiontziaren bidez, aldiz, 6.640 kilo, edo, bestela esanda, bederatzi aldiz gutxiago (500 biztanleko aldea dute).

Berriz diogu, bosgarren edukiontziak ezin dio aterabiderik eman zaborraren arazoari, borondatezko izaera baitu –nahi duenak ez du zertan erabili–, eta, gainera, zaborraren bilketa ez da pertsonalizatua; norberak arduraz jokatu edo ez jokatu libre da.

Guk, aldiz, argi dugu: ez daukagu zaborrarekin bakoitzak gura duen moduan aritzeko inongo eskubiderik, arazoa guztiona baita.

Alde horretatik, eskualdeko udalek hartutako erronka txalotzen dugu, gaika biltzeko erarik eraginkorrena era parte hartzailean ezartzearen aldeko apustu sendoa egin baitute.

Ziur gaude, herritar guztiok, hartutako konpromisoaz harro egoteko eta gustura sentitzeko arrazoi asko izango ditugula aurrerantzean.

Zabor bilketa sistemak Aretxabaletan

Mikel Uribetxebarria Barrena
(Aretxabaletako EAJko zinegotzia)
Aretxabaleta

Gaur egun Aretxabaletan indarrean dagoen zazpi edukiontzi desberdinetan oinarritutako sistemaren bidez sailkatzen ditugu zaborrak etxean: papera-kartoia, beira, plastiko eta metalezko ontziak, organikoa, ehunak, olioa eta errefusa.

Etxeko zaborraren %85-90 gaika sailkatzen dugu, eta dagokion edukiontzira eramaten.

Beraz, gaika sailkatzearekiko helburua lortzen dugula esango nuke, sistema hau erabiltzen duten beste aretxabaletar askok bezala.

Azken berrien arabera, badirudi atez ateko sistema ezarri nahi dela.

Etxetik edukiontzietara zuzenean zaborra eraman ordez, etxe aurrean jarriko zaizkigun kakoetan utzi beharko dugu zaborra, eta orain arte mekanikoki batzen ziren edukiontzien ordez, langileek eskuz batuko dituzte kakoetan utzitako ontziak.

Edozein egunetan zaborra ateratzeko aukera izan ordez, egutegi jakin bat jarraituz atera beharko dugu zabor mota bakoitza, hein batean gure bizimodua egutegi eta ordutegi horretara baldintzatuz.

Guztiz deserosoa, sarri etxean zaborra pilatzera behartuko gaituena.

Azken finean, gaur egun guk geuk edukiontzietara eramaten dugun zabor berbera kakoetan eskegi beharko dugu.

Zaborra ez da gutxituko, zaborra biltzeko sistemak ez baitu eraginik sortuko dugun zabor kantitatean.

Zaborraren prebentzioa aurretik landu beharreko gaia da.

Beraz, zaborraren gaikako bilketa maila bera lortzea posible izanik, eta edukiontzietan oinarritutako sistema erosoagoa, merkeagoa eta txukunagoa bada, ez dut inolako abantaila errealik ikusten; are gehiago, atez atekoa atzerapausoa iruditzen zait.

Indarrean dagoen bosgarren edukiontzia (organikoarentzat edukiontzi marroia) bultzatu beharra dago, garbi dagoelako gaikako bilketa portzentaje ezin hobeak lor daitezkeela gauzak ganoraz egiten badira.

Herritarrak bultzatuz, sentsibilizatuz...

Bukatzeko, bosgarren edukiontzia (organikoarentzako marroi bezala ezagutzen dena) erabiltzen ez duten aretxabaletar guztiei, udaletxean izena eman eta bosgarren edukiontzia erabiltzen hasteko deia luzatu nahi nieke sistema honen onurak proba ditzaten.

Azken urteetan aurrerapauso nabarmenak egin dira zaborraren gestioan Gipuzkoan; beraz, jarrai diezaiogun definitutako bideari, bultza dezagun bosgarren edukiontzia eta zuzendu ditzagun indarrak zaborren prebentziora.

Bildu eta herri partaidetza

Aintzane Oiarbide, Rafa Amasorrain, Juanje Alberdi, Maite Barrena eta Ander Alberdi
(Bergarako EAJko zinegotziak)
Bergara

Atez ateko zabor bilketaren ezarpena dela eta, Bergarako EAJko zinegotziok Udal Gobernuaren jarrera salatu nahi dugu.

Lehenik, Debagoieneko Mankomunitateko ingurumen arduradunen ahotik komunikabideen bitartez jakin genuen Debagoieneko herrietan atez ateko zabor bilketa ezarriko zela. Zerrendan lehenak, Oñati, Bergara eta Elgeta.

EAJk ez du ordezkaririk mankomunitate honetan azken udal hauteskundeen emaitzen ondorioz.

Gure bailarako udal guztietan oposizioan gaude, eta Bilduk dauka gehiengo nagusia (Elgetan izan ezik). Honek zer esan nahi du? Debagoieneko udal gehienetan ez daukagula ezertxo ere erabakitzeko ahalmenik.

Demokrazia batean, gehiengoa da gobernatzen duena, baina gutxiengoak errespetatuz eta entzunez.

Gauza bitxia gertatzen ari da Bilduk gehiengo nagusiz gobernatzen duen udaletan.

Ezker Abertzaleak urtetan egin dituen eskaeren artean erreferendumak eta galdeketak aldarrikatu ditu.

Orain, ordea, gehiengo nagusiz gobernatzen duten herrietan, herri partaidetza zabalduko zutela esan, gobernatzeko eredu berria zetorrela esan, eta herriari bizkarra ematen ari dira inolako konplexurik gabe.

Bergarako alkatea birritan prentsaurrekoetan agertu da atez ateko zabor bilketaren alde eginez. Eta hau guztia Bergarako Udalean inolako erabakirik hartu aurretik!

Bergarako EAJko udal taldeak behin eta berriz eskatu dio Gobernuari zaborren bilketa sistemari buruzko eztabaida eta informazioa, bai guretzat eta bai herriarentzat, erabakirik hartu aurretik. Behin eta berriz ezetza jaso dugu eta Gobernuaren erantzuna honakoa izan da: atez atekoa da onena herriarentzat.

Parte-hartze prozesua amaitutzat eman dute Bergarako Plan Estrategikoaren konklusioekin.

Baina harrigarriena zera da. Konklusio horietan bertan herriari galdeketak egitea aipatzen dela. Orain. ordea, Bilduk eta Ezker Abertzaleak filosofia berria azaldu dute: zero kontsulta edo lehenengo ezarri eta gero galdetu.

Bergarako herritarrek atez atekoarekin daukaten kezka eta ardura kontuan izanda, hau al da herritarrengandik hurbil dagoen udalgintza?

Ilargi-egutegi biodinamikoa

Anton del Campo
Arrasate

Aurten bi egutegi ikusi ditut, bata Debagunek Arrasaten eta bestea Biolurrek Bergaran argitaratuak hurrenez hurren.

Antzerakoak dira biak eta biodinamikoak deritzonak.

Egutegi hauetan lau urtaroak, hamabi hilabeteak eta ilargiaren ilargialdiak agertzen dira, (ilberria, ilgora, ilbetea eta ilbehera), baina baita ere goranzko eta beheranzko ilargiari dagozkion aldiak.

Hasieran, eta Josu Naberanek (*Aintzinako euskaldunen ilargi-egutegia* liburuaren egilea) dioen bezala: "Hilabetea, izenak berak aditzera ematen duenez, ilargiaren ziklo osoarekin dago lotuta; hobeto esanda, ilargiak bere (lau) faseak osatzen dituena da. Gero etorriko ziren ilargiaren egiazko orbita neurtu ahal izateko.

Aurrerago zera esaten du: "Baliteke, lagun batek ohartarazi didanez, ilgora eta ilbehera izenak goranzko eta beheranzko ilargiari deitzea".

Jarraitu baino lehenago esan behar dut nire asmoa ez dela bi egutegi hauen egileak kritikatzea, ideiak printzipioz zuzenak baitira, bakarrik aurkitu ditudan akats batzuk zuzendu baizik.

Esate baterako, Debagunek argitaratutako egutegia aztertzen badugu, ekainean, esate baterako, berdez margotuta agertzen dira 4tik 19ra dauden egunak, eta, han esaten denaren arabera, bi astebete hauek ilgora ilargialdiari dagozkio.

Hala ere, ikusten da ilbetea 4an ematen dela eta 19an ilberria; hau da, normalean ilargialdi honi ilbehera esaten diogu.

Zer gertatzen da ba?

Ilgora ez da ilberri eta ilbete artean dagoen aldia

Gauza bera da ilgora eta goranzko ilargia?

Aipatutako bi egutegiak aztertuz, bi akats aurkitu ditut; lehena, goranzko eta beheranzko ilargia esan beharrean ilgora eta ilbehera esaten da.

Bigarrenez, ondo definitzen da zer den goranzko ilargia, baina gero aldi honi dagokion aldiari, ilargiaren altuera horizontean handia den egunak hartzen dira.

Nire ustez. zuzentzeko, ilgora eta ilbehera jarri beharrean, ilargi goiena eta behea jarri beharko litzateke, esanez ilargialdi hauek ilargiak altura handia eta txikia duenean direla.

Nahi bada, ilargia ekliptikaren iparraldean ala hegoaldean dagoenean.

HERRIAK

OÑATI

Lehen sektorearendako 96 metro koadroko lokala Berezaon

- Industrialdearen egoitza sozialaren bulegoa erosiko du Oñatiko Udalak
- 55.000 euro ordainduko dituzte; ataria, komuna, bi gela eta bilera gela ditu eraikinak

MIREIA BIKUÑA | OÑATI

Oñatiko Udalak "lehen sektorearen aldeko aurrekontua" onartu zuela idatzi genuen Goienan orain dela aste batzuk, eta horren adibide da azken osokoan, otsailekoan, hartutako erabakietako bat: lehen sektorearen ekipamendurako lokala erosiko dute. Berezao industrialdeko egoitza sozialaren bulegoa izan zena, alegia. Orain arte Debagoieneko Industrialdearen jabetzakoa zen eraikina, eta 55.000 euroren truke eskuratu du Udalak.

Berezao industrialdearen sarreran, eskuinaldean dagoen lokalak 96 metro koadro ditu. Solairu bakarrerako eraikina da eta ataria, komuna, bi gela eta bilera gela ditu. Gainera, ur-hornidura, saneamendua eta argindar-hornidura ere baditu aurretik.

Eraikina bera barrutik eta gunea eraberritzeko obra zibila bere gain hartuko du Udalak. Bestalde, lehen sektorearendako egokia den ekipamendua Landa Garapenerako Elkarteak emango duen dirulaguntzarekin erosiko dute.

1.500 litroko zisterna

Berezaoko lokala lehen sektorearendako izango da. Oraindik ez dute zehaztu nola eta nortzuek erabiliko duten.

Udal arduradunek zehaztu duten bakarra da lehen sektorearendako dela eta herriko esne-ekoizleek esnea uzteko zisterna bat izango dutela. 1.500 litroko edukiera izango duen ontzia azaro -abenduan egongo da erabilgarri. "Aurtengo kanpaina orain arte moduan egingo dugu, marmitekin. Hurrengo urtekoa lokal berrian egingo dugu", esan digu Imanol Barrena esne-ekoizleak.

Hain zuzen ere, herriko esne -ekoizleek egindako eskaera oinarri hartuta erabaki du Udalak lokala erostea. "Zailtasunak genituen esnea modu egokian banatzeko. Produktua erosten zigun gaztandegiak geroz eta traba gehiago ipintzen zigun eta bilketa zerbitzua bertan behera uzteko mehatxua egin zigun", esan digu Barrenak. Hori horrela, esnea gorde ahal izateko zisterna bat eskatu zioten Udalari herriko 12 esne-ekoizleek.

Berezao industrialdeko egoitza sozialaren bulegoa erosiko du Udalak lehen sektorearendako. | MIREIA BIKUÑA

DATUA

12

ESNE-EKOIZLE

Oñatin 12 esne-ekoizle daude; elkarte bat sortu dute indarrak batzeko.

DATUA

1.500

LITRO

Lokal berrian ipiniko duten zisternak 1.500 litroko edukiera izango du.

IMANOL BARRENA | ESNE-EKOIZLEA

"Zisterna bateratua lehen pausoa da, baina ezinbestekoa esne-ekoizleendako"

Imanol Barrena eta beste 11 esne-ekoizlek elkarte bat sortu dute. Indarrak batu gura dituzte. "Pozik" hartu dute Udalaren erabakia.

Lehen sektorearendako lokala erosiko du Udalak.

Bai, eta oso pozik gaude, gure eskaera aintzat hartu dutelako. Gure sektorea zahartzen doa eta ez dago erreleburik. Halako erabakiak inportanteak eta beharrezkoak dira. Lehen pausoa da, baina ezinbestekoa.

Esnea gordetzeko zisterna bat ipiniko dute.

Esne-ekoizleon esnea gordeko dugu han. Zisternak beso bat dauka esnea mugitzeko, eta etengabe mugitzen du bakteriarik ez sortzeko. Tenperatura ere mantentzen du: 2-4 gradu artean egongo da esnea.

KONTZEJUPETIK

Esne guztia batera egoteak ze onura ekarriko dizue?

Egun, esne-ekoizle guztiak leku baten geratzen gara gaztandegikoarekin. Nork bere marmitan eroaten du esnea, eta kamioira botatzen dugu. Bada, zisterna berriarekin, guztiok utziko dugu esnea leku berean.

Elkartea sortzeko puntuan zaudete.

Bai, hala da. Estatuak eta beste egin ditugu, eta orain, erregistratzea falta zaigu.

Zergatik sortu duzue elkartea?

Beharrezkoa zelako. Indarrak batzea ezinbestekoa da bizirik irauteko. Oñatin 12 esne-ekoizle gaude eta ni naiz gazteena. Gehienak 60 urtetik gorakoak dira, eta batzuk 70 urte ingurukoak. Etorkizuna iluna da, eta argi apur bat topatzeko elkarrekin egin behar dugu lan.

SORTUKO DIRA BESTEAK
Xabier Lete gogoan
kantaldirako sarrerak

Zuretako nahi?
Adi astelehenean!

Eta gogoratu!
Astelehenean ere Jakioneko otarreak irabazteko aukera!

goienakluba
Abantailaz betetako kluba!

goienakluba 2012

Tel.: 943 25 05 05 | e-posta: kluba@goiena.com | goienakluba.com | Urteko kuota: 50 €.

Itsaso Aginagalde | Merkecartuchos

"Kartutxoek erabilpen asko dituzte"

Kartutxoak saldu eta momentuan kargatzeaz gain, tonerrak ere eskaintzen dituzte Arrasateko Merkecartuchosen | MIRIAN BITERI

Itsaso Aginagalde kartutxoa betetzen. | MIRIAN BITERI

Noiztik dago Merkecartuchos zabalik?
Urri amaieran zabaldu genuen Merkecartuchos, Loramendi kalean, Arrasaten, Mondragon Unibertsitatearen parean.

Zer egiten duzue Merkecartuchosen?
Inprimagailuendako tintazko kartutxoak kargatzeaz gain, bateragarriak eta originalak saltzen ditugu. Horrez gain, tonerrak ere saltzen ditugu; azken hori bereziki enpresei zuzendutako zerbitzua bada ere, partikularrei ere eskaintzen diegu. Enpresei konpromiso bako aurrekontuak egiten dizkiegu, eta prezio bereziak eskaini. Inprimagailuendako orriak eta CDak ere saltzen ditugu.

Kartutxoak kargatzeko makina berezia daukazue, ezta?
Bai, hala da. Momentuan betetzen ditugu, eta zenbatgarren karga den apuntatzen joaten gara. Bezeroak dendara etorri behar du inprimagailuan duen kartutxo hutsarekin, eta hori tintaz betetzen zaio. Dena dela, bezeroak kartutxorik ez badauka, inprimagailuaren erreferentziarekin etorri beharko du eta kartutxoa salduko diogu.

Marka bakoitzak bere tinta dauka; ez da edozein sartzen. Tintaren kalitatea originalena bezalakoa da. Esaterako, HP markarendako hiru tinta mota dauzkagu. Adibide bat baino ez da; kargak egiteko aukera eskaintzen duten marka guztietarako tintak dauzkagu. Erabiltzen den materiala eta kartutxo birziklatu batzuk Alemaniatik iristen dira eta beste batzuk Iruñetik; Merkecartuchosen egoitzan bertan egiten dira.

Enpresekin nola egiten duzue lan?
Enpresek inprimagailuen modeloak bidaltzen dizkigute; horrekin, guk konpromiso bako aurrekontua egiten dugu, eta haiek onartzen badute, eskaera egiten digute. Egun baten edo biren buruan produktua eroaten diegu enpresara bertara; eta tonerrak eta kartutxo hutsak jasotzen dizkiegu birziklatzera eroateko; kartutxoak kargatzeko baldin badira, beteta bueltatzen dizkiegu.

Oinarria birziklatzea da...
Zalantza barik. Kartutxoa erabili eta zakarrontzira bota beharrean, jendeak jakin behar du gehienak birzikla daitezkeela. Kartutxoek erabilpen bat baino gehiago izaten dute; askotan, sei edo zazpi aldiz betetzen dira. Ingurumena zaintzearekin batera, poltsikorako ere onuragarria da, merkeago irteten delako.

Langabeek %30eko deskontua dute kargetan

Enpresendako ez ezik, bestelako deskontuak ere badituzue, ezta?
Bai. Langabeei %30eko deskontua egiten diegu kargetan, eta, horretaz gainera, txartel bat daukagu, eta erosketak edo kargak egiten joaten diren heinean puntuak batzen joango dira bezeroak; 100 puntu egiten dituztenean, 10 euro lortuko dituzte gastatzeko.

Tonerrak ez dira birziklatzen. Zer egiten duzue hutsik daudenekin?
Eusko Jaurlaritzak baimenduta, Bioservice enpresarekin egiten dugu lan. Tonerrak jasotzen ditugu eta haiei eroaten dizkiegu, bai tonerrak eta baita birzikla ezin daitezkeen kartutxoak ere.

Bezeroek orain arte nola hartu dute garestiagoak diren kartutxo originalaren ordez bateragarriak direnak erostea?
Pozik gaude harrerarekin. Orain-dik badaude batzuk originalak bakarrik eskatzen dituztenak, baina beste asko bateragarriak erosten hasi dira, probatu nahian -edo. Sentsibilizazioaz gain, krisiak izan dezake horretan eragina. Kartutxo bateragarriak probatu dituztenak pozik daude horiekin, eta errepikatu egin dute.

Denda Arrasaten baldin baduzue ere, bergararrendako zerbitzu berezia duzue, ezta?
Hala da; partikularrek ez dute Arrasatera etorri behar. Bergaran, hutsik dauden kartutxoak jasotzeko tokia daukagu: hain justu, Irizar pasealekuan dagoen Sugoi dendan. Hurrengo egunean beteta jasoko dute toki berean.

Mantentze-lan berezirik badute kartutxoek?
Ez, baina bezeroendako hainbat aholku orokor ditugu: kartutxoa hutsik dagoenean ez inprimatzea, inprimagailuaren burua inprimatzen duenean 300-500 gradu artean berotzen delako eta hozteko tinta behar duelako beti; astero zerbait inprimatzea; plastikozko estalkia gordetzea, hutsik dagoenean babesteko; buruan zinta edo pegatinarik inoiz ez jartzea, apurtu egiten delako; eta kartutxoaren lehen karga egiterakoan, inprimagailua hutsik dagoela jakinarazten badu ere, inprimatzen jarraitzea.

Itsaso Aginagalde eta Rakel Martin, kartutxo birziklatuekin. | M.B.

Garbi daude Arrasateko bidezidor nagusiak

Deba ibaian eta Aramaio errekan ere egin ditu Udalak txukuntze-lanak

Udal langileak, traban dauden zuhaitzak mozten, Malvinetan. | PELLO GARAI

UBANE MADERA | ARRASATE

Mendizale batek baino gehiagok pozik hartu du Arrasateko mendietara doazen bidezidor asko azkenaldian garbi eta txukun daudela ikustea.

Izan ere, Arrasate inguratzen duten mendietarako bideetan eta udalerriko ibaietan garbiketa-lanak egiten ibili da Arrasateko Udaleko Ingurumen Saileko lantaldea. Eta maiatzera bitartean ere lan bera egiten segituko du.

Udalarako bidezidorrak garbi

Horri esker, herriko bidezidor nagusiak garbi daude; esaterako, Udalara doazenak. "Jardun dugu Malvinen atzeko partetik Udalara bideko komentura bitarteko bidean lanean. Muxibar ingurutik Malvinetarainokoa ere garbi dago. Eta Larrangaindik Udalara bitarteko bideak nahiko egoera txukunean daude. Beraz, esan daiteke Udalarako bidezidor nagusiak garbi daudela. Hala ere, maiatzera bitartean Uribarri-Meatzerreka ingurutik Udalara iristeko bidea garbituko dugu –iaz ere garbitu genuen, baina mantentzea komeni da– eta Makatzena auzotik Antoña erreka ingurura iristen den bidea ere bai", jakinarazi du Pello Garaik, Ingurumen Saileko teknikariak.

Monterron-San Kristobal, eder

Bestelako lanen artean, Monterrondik San Kristobalerako bidea ere garbitu dute, eta San Kristobaleko lautada ere bai. "Proposamen polita da, adibidez, Monterronera doazenendako San Kristobaleraino igo, eta hango lautadatxoaz gozatzea", proposatu du udal teknikariak.

Bospasei urte lanean

Izan ere, Udaleko Ingurumen Sailak urtero ahalegina egiten du baso eta mendi-bideak egoera onean edukitzen. "Uda partean urtero-urtero garbitzen ditugu 42 kilometro-bide, baserrietara doazenak. Eta beste 20 kilometro baso-bide ere bai, makinekin. Hortik aparte, makinak sartu ezin diren tokietan eskuz garbitzen dugu. Hala, poliki-poliki bagabiltza zabaltzen bide-saretxo bat, orokorrean nahiko ondo dagoela uste dudana. Kontuan izan geroago eta baserritar gutxiagok lan egiten duela mendian eta lehen eurek egiten zuten lan hori gure esku gelditzen dela orain. Gu ezin gara iritsi denetara, baina, orokorrean, nahiko argazki baikorra dela esan daiteke, eta gehien erabiltzen diren bideetan ibil daitekeela ondo: Udalarakoetan, Kurtzetxikirakoetan, Bedoñakoetan... Nik uste dut auzo guztietan egin dela interbentzioren bat edo beste. Badaramagu bospasei urte lan hau egiten, eta urtero ez dira bide guztiak garbitzen, baina bi urtean behin-edo bai", adierazi du Pello Garaik.

Proposamenak egin daitezke

Ingurumen Saileko teknikariak emandako informazioaren arabera, Udalak berez dauka mendi-bideak garbitzeko plangintza, baina hortik kanpoko eskaerak ere onartzen ditu: "Herriko bide edo guneren bat garbitzeko proposamenak aztertzeko gertu gaude. Halakoren bat duena jar dadila gurekin harremanetan, eta begiratuko dugu".

DATUA

42

KILOMETRO

Uda partean, baserrietara doazen 42 kilometro-bide garbitzen dituzte urtero; eta baita beste 20 kilometro baso-bide ere.

Izozkailuak errekan

Mendi-bideak garbitzeaz gainera, Deba ibaian eta Aramaio errekan ere egin dituzte garbiketa-lanak, nahiz eta, berez, halakoak Diputazioaren eta Jaurlaritzaren betebeharrak izan. "Kolektorea pasatu zen tokietan zabalgunetxo batzuk daude, eta horiek garbitu ditugu. Orain dela hilabete garbiketa orokorra egin genuen; esaterako, joan den astean izozkailu bi eta hildako oilasko bat azaldu ziren, eta horiek atera egin genituen. Eta maiatz inguruan, akaso, beste garbiketatxo bat egingo dugu".

Izozkailua errekan. | PELLO GARAI

Xarma: uraren sekretuak aprobetxatuz, zeluletan lan egiten duen kosmetika

Xarma edertze zentroan argi dute osasuna, edertasuna eta norberaren ongizatean uraren propietateek zeresan handia dutela. "Ura gara, gure azala ura da", diote.

Xarma edertze zentroko lantaldea. | UBANE MADERA

> Jende askok ez daki azalaren zahartzea eta azaleko arazoak zeluletan dutela jatorria. Uraren propietateetan oinarritutako gure kosmetikak zelulen mailan egiten du lan.

Uraren sekretuekin lan eginda, kosmetika beste era batera ulertzen dute Arrasateko Xarma edertze zentroan. Aparteko emaitza esklusiboak lortzen dituzte, beti ere azala kaltetu gabe.

Izan ere, Xarma edertze zentroan osasuna, edertasuna eta norberaren ongizatea dute helburu eta horretarako berrikuntza eta bilakaeraren aldeko apustua egiten dute.

Xarma edertze zentroan zelulen mailan egiten dute lan, hau da, uraren sekretu eta propietateetan oinarritutako azken belaunaldiko kosmetika eredu batean oinarritzen dira. Sistema iraultzailea da, uraren egitura molekularra eraldatzen duena, zelulen informazioa jaso eta azalean dauden akatsak zuzentzeko. Ur bipolarra izena hartzen duen sistemaz ari gara: ur adimenduna da, izan ere, zelulei aginduak eta informazioa bidaltzeko gai da. Hala, zelulen mailan eman daitezkeen akatsak zuzentzen ditu, horien biziraupena luzatuz.

Azalak, hainbat etsai

Azalak hainbat etsai ditu. Besteak beste, estresa, elikadura txarra, sedentarismoa eta kutsadura. Xarmako lantaldeak hala azaltzen du: "Jende askok ez daki azalaren zahartzea eta azaleko arazoak zeluletan dutela jatorria. Gure kosmetikak zelulen mailan egiten du lan".

153 ikasle, 110 zuhaitz

Urteroko ohitura "berdeari" eutsi guran, Zuhaitz Eguna deitu du biharko, zapatua, Ingurumen Sailak. Garagartzako garbigunearen inguruan 110 zuhaitz landatuko dituzte 153 ikaslek (seigarren mailakoak). Bertako arbolak sartuko dituzte: haltzak, haritzak, lizarrak, pagoak... Espezie horiek aukeratu dituzte lursailaren inguru botanikoa aztertu ostean. 10:30erako egin dute hitzordua, Uribe auzoan, Garagartzara oinez joateko. Erretiratuen etxeei eta ortu ekologikoen erabiltzaileei ere egin diete parte hartzeko gonbita. Lana bukatu ostean, guztiendako izango dira ogitartekoak eta opariak.

Berdintasuna aldarri, azoka eta Takarraran lasterketa bihar

Seber Altubeko azokan 54 saltzaile eta lasterketan 70 emakume espero dira

JOKIN BEREZIARTUA | ARRASATE

Feminista naiz eta harro nago leloak protagonismo handia hartu zuen atzo, Martxoaren 8a. Eta asteburuan ere aldarrikapenak oihartzun berezia izango du. Hasteko, Martxoaren 8ko emakumeen azokak hartuko du bihar Seber Altube plaza. Askotariko produktuak jarriko dituzte salgai: jakiak, bitxiak, jantziak... 10:00etatik 14:00etara egingo da azoka.

Emakumeen azokan denetarik egongo da salgai bihar Seber Altuben. | ARTXIBOA

54 saltzaile biharko azokan

Beraz, goiztiarrenak azokako saltzaileak izango dira. 54 guztira, Euskal Herri osotik etorriko direnak eta baita kanpotik ere; Errioxatik eta Zamoratik, besteak beste. Tartean, nola ez, Arrasateko ordezkaritza ere izango da: "Arrasateko baserritarrak, bitxigileak, orratz-lanak egiten dituztenak, egurrezko lepokoak... Eta Ekin Emakumeak elkartekoak ere izango dira, taloak egiten", adierazi du Maite Barreña Emakume Txokoko ordezkariak.

Takarraran: aldarrikapena sari

Bestalde, emakume kirolzaleek hitzordua dute Takarraran egiteko. 20 bat emakumek eman dute izena dagoeneko, baina bihar izena emango dutenak aintzat hartuta antolatzaileek espero dute iazko parte hartzera heltzea. Hau da, 70 lagun. Portaloitik abiatu, eta bertan bukatuko da, ia hiru kilometroko ibilbidea egin ostean: Portaloia-Maala-Garibai-Otalora-Olarte-Zurgin kantoi-Herriko plaza-Portaloia da ibilbidea. Hiru itzuli egin beharko dituzte korrikalariek, 2.820 metro egin arte. 12 urtetik gorako edozein emakumek har dezake parte lasterketan. Maila bakarra izango du, eta ez dute kronometraje ofizialik egingo. Helmuga itxi, berriz, azkeneko korrikalaria iristean itxiko dute. Izan ere, korrikalarien artetako lehia lortu gura barik, "emakumeak kirola egitera animatu" eta oro har, berdintasunaren aldeko aldarrikapena ditu ardatz Takarraran-ek.

> ESANAK
>
> **"Leloa aintzat hartutako aldarrikapenak sarituko ditugu"**
>
> MAITE BARREÑA | EMAKUME TXOKOA

> DATUA
>
> **70**
>
> LASTERKARI TAKARRARAN-EN
>
> Emakume Txokoak iazko parte hartzera heltzea espero du, gutxienez. Iaz 70 emakumek egin zuten bat deialdiarekin.

Partaidetza saritu egingo dute antolatzaileek, sariak emango dituzte-eta lasterketaren amaieran: besteak beste, lehenengo hirurei, azkenari, nagusienari, gazteenari eta nobedade moduan, Barreñaren arabera, "aldarrikapenaren saria" ere emango dute: "*Feminista naiz eta harro nago* leloa aintzat hartuta egiten diren pankarta, kamiseta edo bestelakoak kontuan hartuta originalena sarituko dugu".

Amaitzeko, gaztegunean ere bat egingo dute aldarrikapenarekin. *Gaur Ama!!!* izeneko antzezlana egingo dute hezitzaileek (19:00), bihar mural erraldoia egingo dute (18:00) eta domekan, berriz, Dirty Brothers taldeak kontzertua eskainiko du (18:00).

JOKIN BEREZIARTUA

Minbizia eta elikaduraren gainekoa ere, jendetsua

Osasuna eta elikadura ardatz izan dituen hitzaldi zikloa amaitu da eguazteneko saioarekin. Azkenengoan ere jende asko erakarri zuen Dorleta Martinezek. Besteak beste, minbizia elikaduraren bidez prebenitzeko hainbat aholku eman zituen. Gainera, meditazio saio labur bat ere gidatu zuen publikoarekin batera. Aurreko saioetan moduan, entzuleei denetariko galderak egiteko aukera eman zien hizlariak.

Mariasun Melgar, odola ateratzen. Ubane Madera

Poliklinikarekin batera egiten ditu analisi klinikoak Edersalud zentroak

Osasun egoera behar bezala zaintzeko oinarrizko tresnetako bat analisiak izaten dira. Edersalud zentro medikoan Mariasun Melgar aretxabaletarra arduratzen da odol ateratzeez.

Mota guztietako analisi klinikoak egiten dituzte Edersalud zentro medikoan: analitika orokorrak, haurdunaldiekin lotutakoak, hormonalak… "Aseguru pribatu edo partikular ia guzti-guztiak onartzen ditugu. Horrez gain, kanpoko edozein etor daiteke analisiak egitera; hau da, ez dauka zertan Edersalud-eko medikua izan analisi eskaera egiten duena", azaldu du Mariasun Melgarrek.

PREZIOEN TAULA

Analitika arrunta:	70€
Anemiaren analitika:	21€
Kolesterola:	4,50€
HDL+triglizeridoak gehituta:	16,50€
Glukosa:	4,50€
Haurdun testa:	13€
Haurdun geratzeko arrisku neurgailua:	58€
Txiza lagina:	20€
Bagina lagina:	20€
Fetuaren sexua:	65€

BIZKORRA ETA EROSOA

Analisi zerbitzuarekin lotuta, Edersalud zentroak eskaintzen dituen abantailak dira ez dagoela itxaron-zerrendarik, analisien emaitzak jasotzeko bi egunekin nahikoa izaten dela kasu gehienetan, eta kalitate eta prezio onak dituela.

ZERBITZU INTEGRALA

Analisi klinikoen zerbitzua gehituta, beraz, Nafarroa etorbidean zabaldu duten Edersalud zentro medikoak osasunarekin lotutako zerbitzu integrala eskaintzen dio bezeroari, Debagoienean aski ezaguna den lantalde mediko profesionalarekin. Izan ere, gure ibarrean 40 urte baino gehiagoan zerbitzua eman duen Consultorio Ginecologico eta Policlinica Gipuzkoa uztartzen ditu bere baitan Edersalud zentroak.

Consultorio Ginecologicoko mediku taldea. Amaya Arruti

Consultorio Ginecológico Miramón
edersalud
ZENTRO MEDIKOA
Nafarroa etorbidea 4, Arrasate ■ Tel.: 943 79 20 18
www.edersalud.com

Ane Herrero | Ford Mugarri Arrasateko entrenatzailea

"Mailaz igotzea erreala den? Baietz uste dut, saiatuko gara"

- Ligako txapeldun, hurrengo erronka igoera fasean du Arrasateko taldeak
- Asteburu batean jokatuko dute fase hori, hiru partidu hiru egunean

XABIER URTZELAI | ARRASATE

Ane Herrerok entrenatzaile moduan egin duen debutean denboraldi izugarria egiten ari da Ford Mugarri Arrasate. Liga amaitzeko lau jardunaldiren faltan Euskadiko txapeldun dira, eta igoera fasea jokatzeko sailkatu dira. Iaz ere jokatu zuten fase hori, Bartzelonan, baina aurten anbizio handiagoarekin joango direla onartu du Herrerok.

Irailean, denboraldia hasi aurretik egin genizun elkarrizketan ez zenuen halakorik aurreikusiko; entrenatzaile moduan debut ezin hobea izan da Euskadiko Txapelketa moduko kategoria batean.

Ez, ez nuen halakorik espero. Banekien denboraldi ona egingo genuela talde ona neukalako, baina ez horren ondo ibiliko ginenik.

Arrate taldea desagertu izana ez da albiste ona izan. Baina, Ford Mugarriri mesede egin dio.

Bai, Arrate desagertu izana ez da inondik inora albiste ona, Gipuzkoan eskubaloiko erreferenteetako bat zelako, baina egia da handik etorri diren jokalariek izugarri lagundu gaituztela. Eta ez horiek bakarrik, Aitor Txabarri etorri izana, eta Pelloren itzulera ere garrantzitsuak izan dira. Iazko taldea oso ona zen, baina jokalari gutxi zeuden; eta hori konpondu egin dugu aurten; gainera, taldeak gora egin du baita kalitatean ere. Iaz falta izan zena aurten eskura izan dut nik.

Aurten etorri diren jokalariek ze ekarpen egin diote taldeari?

Lehenengo nazional mailan jokatu duen jendea da, eta Txabarrik, esaterako, Asobal mailan ere jokatu du. Maila handiagoko kategoriak dira horiek, eta partidu zailetan izan beharreko esperientzian egin dute ekarpen handia. Joko aldetik ere igarri da euren presentzia, defentsan, jokalarien artean berba egiterako orduan... Kontuan hartuta lehengoek bazekitela eskubaloian jokatzen, hasieratik izan dugun ilusioa, jokalari berriak ze ondo moldatu diren taldera, eta hemengoek ze ondo hartu dituzten... bada, horren guztiaren baturak sortu du talde indartsu hau.

"Geratzen diren ligako partiduetan ez dugu inork minik hartzerik nahi"

Oraindik lau partidu geratzen dira liga amaitzeko.

Hala da, eta nahiz eta gure helburua lortu dugun, liga irabazi dugun, partidu horiek intentsitatez jokatu behar ditugu. Izan ere, intentsitatez jokatzen ez denean, jokalaria despistatuta kantxaratzen denean, orduan etortzen dira lesioak. Eta pena hartuko nuke orain norbait lesionatuko balitz. Pena hartuko nuke nik, eta noski, jokalariak.

Iaz igoera fasea jokatzea saria izan zen denendako; esperientzia berri bat bizitzeko asmoz joan ziren Bartzelonara. Susmoa daukat aurten anbizio handiagoaz joango zaretela.

Oraindik ez dakit non jokatuko dugun igoera fase hori, eta asmoa iazko bera izango da, taldeak asteburu-pasa ederra egin eta fase ona jokatzea. Baina bai, badakigu aurten talde osoagoa dugula eta lehenengo mailara igotzeko ahalegina egin nahi dugu. Taldea aukera guztiak aprobetxatzera joango da.

Erreala da Lehen Nazional maila moduko kategoria batekin amestea?

Nik uste dut baietz, badugula igoera fasean lan ona egiteko moduko taldea, nahiz eta halakoetan zortea aldeko izateak ere garrantzia izaten duen, hiru egunetan hiru partidu jokatzen direlako. Bestalde, goiko kategoria garestiagoa da, bidaia luzeagoak dira eta babesle gehiago beharko genituzke; baina saiatu egingo gara.

Ane Herrero. | X.U.

Ford Mugarri Arrasateko jokalariak, joan den domekan, pozarren. | AMAIA TXINTXURRETA

ZALDIBAR

SAILKAPENA

	TALDEA	P	J
1	Iriztu	34	14
2	Dribling	34	14
3	McAwen	33	14
4	Dublin	29	14
5	Aldatz	27	14
6	Abokajarro	27	14
7	Sonografos	27	14
8	AT Betrayer	23	14
9	Lasagabaster	18	14
10	Iluntz	16	14
11	Fidel & Discipulos	15	14
12	Iluna	9	14
13	Ekaitz	5	14
14	Aston Birra	4	14
15	Portaboleiros 2.0	4	14

PARTIDUAK

MARTXOAK 10, ZAPATUA

09:30 (1) Abokajarro - Portabolei. / **Iriztu**
10:30 (2) Iriztu-Sonografos / **Aboka.**
11:30 (3) Ekaitz-Lasagabaster / **Sonog.**
12:30 (4) Dublin-Dribling / **Lasagabas.**
13:30 (5) Aldatz-McAwen / **Dublin**
16:00 (6) Betrayer-Fidel & Disci. / **Iluntz**
17:00 (7) Aston Birra-Iluntz / **Betrayer**

MARTXOAK 11, DOMEKA

10:30 (A) 4ko irabaz.-Iluna / **5eko irab.**
11:30 (B) 1eko irabaz.-5eko irabaz. / **A ira**
12:30 (D) 7ko irabaz.-2ko irabaz. / **1. irab.**
13:30 (E) 3ko irabaz.-6ko irabaz. / **D irab.**

Kopa txapelketa jokatuko dute asteburuan

Oraingo asteburuan jokatuko dute Zaldibarren ia-ia kopa txapelketa osoa. Zapatuan lehenengo kanporaketak jokatuko dituzte, eta aurrera egiten dutenek domekan izango dute hurrengo kanporaketa. Adi partiduen ordutegiei! Zapatuan lehia bakoitza zenbaki batekin izendatuta dago, eta lehia bakoitzeko irabazleak zenbaki hori izango du domekan. Eta domekako partiduak hizki batekin daude izendatuta; izan kontuan hori epaile lanak egin behar dituzuenerako.

Dragoikoak Gasteizen eta Oiartzunen lehiatuko dira

Gimnasiarekin lotutako bi hitzordutan Arrasateko partaidetza izango da asteburuan. Batetik, aerobikeko Gasteiz Hiria txapelketan Dragoi gimnasia taldeko zortzi gimnasta lehiatuko dira. Bestetik, Oiartzunen Udaberri Torneoko lehen fasea jokatuko dute alebin, infantil eta kadete mailetakoek. Gasteizen jardungo dutenak dira, taldeka (5. mailan): Aintzane Rodriguez, Jone Goikolea, Leire Gonzalez, Leire Poyato eta Saioa Arriola. Bikoteka izango dira (5. mailan): Nerea Otxoa eta Olatz Fernandez. Eta bakarka jardungo du, bosgarren mailan baita ere, Eider Altubek.

Arrasateko Xake Taldeak harrobi ona du kategoria txikietan

Asteburuan jokatu zuten, Arrasateko Etxaluzen, eskolarteko xake torneoa. 48 jokalarik parte hartu zuten kategoria txikietan. Ibarrekoekin batera Azkoitiko xakelariek ere parte hartu zuten, Gipuzkoako txapelketako finalera sailkatzeko asmoz. Bost txandatara jokatu zuten torneoan, Liher Urrutia arrasatearra izan zen trebeena; torneo perfektua egin zuen, jokatu zituen bost partidak irabazi zituen-eta. Bigarrena Eneko Carrascal arrasatearra izan zen. Carrascalek Liherren kontrakoa baino ez zuen galdu. Bi gazteak Arrasate-Arlutz D taldean dabiltza.

Malen Ruiz de Azua bigarren Espainiakoan

Malen Ruiz de Azua eta Istar Dapena, entrenatzailearekin. | JONATHAN PEREZ

X.U. | ARRASATE

Valentzian egin dituzte asteburuan Espainiako gazte mailako atletismo txapelketak, eta Malen Ruiz de Azua zilarrezko dominarekin itzuli da, pertika saltoaz marka pertsonala onduta eta Euskadiko marka berria ezarrita (3,71 metro). Irabazleak, Castelloko Paula Linaresek bost zentimetro gehiagoko saltoa egin zuen (3,76) eta hirugarren Manresako Monika Clemente sailkatu zen. Gizonezkoen kategorian Istar Dapena zortzigarren izan zen, 4,01 metroko jauzia eginda. Aipagarria, baita ere, Arrasateko atleta beterano Maria Jose Gilek nekaezina dela erakutsi zuen beste behin, Gijonen urrea irabazita. Gil-ek 6.000 metroko lasterketan hartu zuen parte, eta 70 urtetik gorakoen mailan azkarrena izan zen.

Gaztetxea, Euskal Herriko hip-hop onenaren topagune

Gaur hasiko da jaialdia, Goienetxe Anaiak eta Norte Apache taldeekin

MIRIAN BITERI | ARRASATE

Sei urteko geldiunearen ondoren, IV. hip-hop jaialdia egingo dute asteburuan Arrasateko gaztetxean, eta Euskal Herriko puntako artistak batuko dira han. Gaur gauean hasiko dira ekimenak, Goienetxe Anaiak eta Norte Apache taldeen emanaldiekin. DJ Biguria, Mr Fru eta ZKH Nafarroako kideek osatzen dute Goienetxe Anaiak. Euskara hutsean egindako rap abestiak joko dituzte, *Anaia Nagusia* diskoan jasotakoak.

Nafarren ondoren, Barakaldoko Norte Apache igoko da agertokira. Gaizkak eta Raycok sortu zuten taldea 2007. urtean; garai haietan ez zegoen rapa euskaraz egiten zuenik, eta hori goratzeko asmoarekin lanean jarri ziren. Joan den urtean, Gaizkak taldea utzi, eta Aitor eta Ibon iritsi ziren; Euskal Herri osoan dabiltza astebururo zuzenekoak eskaintzen.

Norte Apachekoak gaur igoko dira agertokira. | GAUILUNAK

Skate, breakdance eta grafitia

Zapatua ekint zaz josita dator. Arratsaldean, OV-System, Z-Braun, Millerindub eta Vegan 4 Satan disko-jartzaileek ekoiztutako musikarekin gozatu ahal izango dute zaleek. Horretaz gainera, Arrasateko Arraska skate taldeak skate erakustaldia egingo du eta Bergarako Samu Crew kolektiboak, ostera, breacdancea. Grafitiei ere tokia egingo diete gaztetxeko hormetan.

EGITARAUA

GAUR, EGUBAKOITZA

22:30 Goienetxe Anaiak eta Norte Apache.

BIHAR, ZAPATUA

16:30 DJ emanaldia (OV-System, Z-Braun, Millerindub, Vegan 4 Satan), breakdance eta skate eta grafiti erakustaldiak.

22:00 Rap kontzertua: 121 Sound System eta Revolta Permanent.

01:00 Trifulca Posse taldea.

Gauean, musika itzuliko da. 121 Sound System eta Revolta Permanent taldeek rap kontzertua eskainiko dute. Lehenengoak 121 Crew talde bizkaitarraren kideak dira, baina, guztiek etortzerik ez dutenez, Sound System formatuan datoz. Revolta Permanent ere Bizkaitik dator; 16 urteko gazteak indartsu datoz euskaraz abesten. Jaialdiari amaiera borobila emateko, Trifulca Posse taldearen emanaldiarekin gozatu ahal izango dute zaleek; hain justu, Donostialdeko hiru disko-jartzailerekin: DZ, Pata eta Syr.

Gaurko kontzertuetarako sarrera hiru euro kostatzen da eta biharkoa, bost euro. Kamisetak salgai daude Iluntz tabernan eta Nothing Without dendan.

Kokeinen alde rockzaleena Kooltur Ostegunetan

M.B. | ARRASATE

Labetik atera berri duen *Izan* izeneko lana aurkeztuko du Kokein boskote eibartarrak eguenean, martxoak 15, Arrasateko gaztetxean. Kooltur Ostegunak ekimenaren harira antolatutako kontzertua 22:00ean hasiko da eta sarrerak bost eurotan salduko dituzte.

Lau urteko isilune luzearen ondoren, bueltan da ostera ere boskotea: Zaloa Urain abeslaria, Haritz Lete bateria jotzailea, Jatsu baxu jotzailea eta Txitxes eta Iker gitarra jotzaileak. Oraingo hilean kaleratutako taldearen laugarren lana denborarekin egin dute, presa barik. Kantuak apurka landu eta forma ematen, eta kantu sorta izan dutenean, grabazio lanak hasi dituzte. Lanaren ekoizpen osoa taldeak egin du; Haritz Letek berak grabatu du diskoa Kaki eta Martxel Arkarazoren laguntzarekin, Andoaingo Garate estudioan.

Rock-and-rolla

Lan berria orain arte argitaratutakoak baino "rockeroagoa eta gitarreroagoa" dela diote taldekideek. Horren harira, gaineratu dute orain arte landu ez dituzten estiloak sartu dituztela; esaterako, rock-and-rolla.

Hamabi abesti

Lan berria 12 kantuz osatuta dago, eta, horiek aurkeztearekin batera, gainerako diskoetako abestiak ere joko dituzte eguenean eskainiko duten kontzertuan: hain justu ere, *Kokein* (2002), *Lotuta egon arren* (2004) eta *Mundu margotu berri bat* (2007) lanetakoak.

Bueltan da Kokein taldea. | GAUILUNAK

Emakume asmatzaileen bizitza erakusgai

Astelehenean zabalduko dute erakusketa

M.B. | ARRASATE

Martxoaren 8aren harira, emakume ingeniari, arkitekto eta asmatzaileek egindako lana jasotzen duen erakusketa zabalduko dute astelehenean, hilak 12, Arrasateko Kulturateko klaustroan. Emakume Txokoak antolatuta, XIX. mende bukaerako eta XX. mende hasierako 18 emakumeren bizitza eta asmatutako gailuei buruzko informazioa jasoko dute hara joaten direnek.

Emakume Txokoko dinamizatzaile Amets Beltran de Gebarak nabarmendu du feminismoaren eta zientziaren inguruan egiten duela hausnarketa esandako erakusketak. Horren harira, antolakuntza lanetan dabilen Enkarni Gomezek gaineratu du arlo teknikoan oinarritu direla: hain justu ere, ingeniaritzaren historiografian oinarritu dira. Emakume horien asmakizunak askotarikoak direla erakutsiko da horretan, hala nola zaintza eta pertsonen inguruko, autoen haizetakoak, betaurrekoak, material gogorrak, zubiak, fardelak eta Tipp-Exa ere asmatu zituztela agerian utziko dute.

Martitzenean bisita

Esan bezala, Kulturateko klaustroan egongo da ikusgai erakusketa hori martxoaren 23ra bitartean, 17:30etik 20:30era. Horren gaineko bisita gidatuak egiteko asmoa ere badute datorren astean; hain justu ere, martitzenerako, hilak 13, hitzordu bikoitza zehaztu dute: 18:30ean gaztelaniaz izango da bisita eta 19:30ean, euskaraz.

'La invención de Hugo' filma hiru bider emango dute

M.B. | ARRASATE

Ikusleen eskaerari erantzunez, zapatuan, 19:30eko saioan, Martin Scorseseren *La invención de Hugo* filma hiru dimentsiotan ikusi ahal izango da Amaia Udal Antzokian. Haurrendako film hori, hasiera batean, ohiko ordutegian ematekoa zen: hain justu, bihar eta etzi, 17:00etan. Baina hainbat eskaera jaso direnez, helduendako filmari zapatu arratsaldekoa kentzea eta *La invención de Hugo* filmari ematea erabaki dute; hortaz, hiru emanaldi izango ditu horrek.

Bestalde, helduendako zineman, Clint Eastwooden *J. Edgard* filma eskainiko dute: bihar, zapatua, 22:00etan; etzi, domeka, 19:30ean; eta astelehenean, 20:30ean.

Laburbiraren IX. edizioa

Bestalde, martitzenean, *Laburbira* film laburren IX. zirkuitua izango da, 20:30ean, AEDk antolatuta. Fikziozko lau lan, animaziozko bi, dokumental bat eta bideoklip bat emango dituzte: *Hemen nago*, *Izena duena*, *Urrezko eraztuna*, *Aberria*, *Ohe azpiko zera*, *Zeinek gehiago iraun*, *Kantuka-Revolta Permanent* eta *Instalación*.

Restaurante
UGARAN
Jatetxea
Garagartza auzoa
Tel.: 943 79 76 58
ARRASATE

Lore
• Lurrindegia
• Kabina
• Fotodepilazioa
Olarte kalea 10
Tel.: 943 79 52 50

MONTE TABERNA
edari, jana eta kirola
Maalako errabala 2
Tel.: 943 79 20 56

Jesus Elortza | Bergarako alkatea

"Bizi dugun krisiak herria hobeto gestionatzen erakutsiko digu"

Jesus Elortzak bederatzi hilabete beteko ditu alkatetzan domekan; atez atekoa, aurrekontuak eta museoa jorratu zituen Goiena telebistan

Jesus Elortza alkatea *Harira* saioan izan zen mar

EDU MENDIBIL | BERGARA

Joan den ekainaren 11n, Pazkoetan, Bergarako alkate izendatu zutenetik bederatzi hilabete beteko dira domekan. Jesus Elortza *Harira* telebista saioko gonbidatua izan genuen martitzenean. Ubera auzoko alkatea zenean, txalupa baten zebilela eta alkatetza hartu zuenetik, aldiz, transatlantiko baten doala dio Elortzak; alboan tripulazio ona duela nabarmendu zuen alkateak Goiena telebistan. Herritarren intereserako gai mordoa jorratu zituen alkateak Eneko Azkarate saioko aurkezlearekin eta ikusleekin batera.

Udal aurrekontua oraindik onartzeke dago. Zer aurrera dezakezu aurrekontuen gainean?

Azken txanpan gabiltza. Ez dira garai onak hauek, eta igarriko dugu hori. Sarrerak nabarmen jaitsi dira eta zailtasunak izan ditugu aurrekontua orekatzeko. Hurrengo astean oposizioari aurkeztuko diogu, ekarpenak egiteko aukera izan dezan, eta hilaren amaieran edo apirilaren hasieran onartzea da asmoa.

Zein alor izango dira kaltetuenak ta zein sarituak?

Kaltetuak herritarrak izango direla esango nuke, haiengan eragin zuzena dutelako. Gastu arruntarekin saiatu gara herritarrak ahalik eta gehien babesten. Argiteria publikoan eta beste hainbat kontutan aurrezteko neurriak hartuko ditugu. Azken baten, bizi dugun krisiak erakutsiko digu herria hobeto gestionatzen. 2007an 29 milioi inguruko aurrekontua zuen Bergarak eta 2011n, berriz, 21 milioi pasatxo. Gastuak gutxitu eta sarreren araberako murrizketak egin behar izan dira. Bestetik, ur zerbitzua eta kaleko garbiketa bere gain hartu ditu Udalak, baina, hala ere, gastua murriztea lortu da. Enplegu publikoaren aldeko apustua egin du Udalak, kalitatezko zerbitzua eskainiz eta kontrola geuk eramanez. Horren balorazio positiboa egiten dugu.

Zelan dago Seminarioko permutaren gaia?

Patronatoa osatzen dugun alde guztiok ados gaude, baina Gipuzkoako Diputazioak markatzen du erritmoa; izan ere, hark du ordezkaritzaren zati handiena, %60 ingururekin. Guregatik balitz, bihar bertan sinatuko genuke permutaren akordioa, baina aurretik plangintza ekonomiko sakona egiteko beharra ikusten dugu. Plangintza ekonomiko horretan, besteak beste, Arrizuriagan egin beharreko lanen aurrekontua zehaztu beharko da.

Uned zentroa Arrizuriagan kokatuko litzateke, beraz. Eta Seminariorako zer aurreikusi duzue?

Bai, Uned ikastetxea Arrizuriagara eramatea da asmoa eta Seminarioan, hasiera baten, museoa eta Udal Liburutegia kokatuko lirateke.

Eta Seminarioko elizan?

Kultur emankizunetarako aretoa kokatzea aztertzen gabiltza. Lokal aproposa izan daiteke horretarako, kontsultatutako hainbat adituren iritziz.

Auditoriuma izan da aspaldiko ametsa. Amets horri uko egin behar zaio garai hauetan?

Ametsak inoiz ez dira baztertu behar, baina une honetan ezinezkoa da erabilera askotariko aretoa egitea. Edozelan ere, agintaldi amaierarako auditoriumeko proiektua eginda uztea da gure asmoa.

Arrizuriaga berritzeko lanak nork ordainduko lituzke?

Patronatuak. Hasiera baten, aurrekontua 5 milioi euro inguru izan daiteke, nahiko egoera kaskarrean dagoelako eta obra dezente egin beharko liratekeelako.

Aspaldiko beste egitasmo bat Miguel Altuna ikastetxe berriarena da. Hasi dira Artabila ingurua txukuntzen, baina noizko ikastetxe berria eta etxebizitzak han?

Aurreko astean izan ginen Jaurlaritzan, Etxebizitza Sailean, eta *feeling* txarra sumatu genuen han. Momentuan ez dago dirurik egitasmoa aurrera ateratzeko, eta, jakin dugunez, aurten ez da diru partidarik izango Miguel Altuna berriko lanetarako. Diru partidarik ez badago, nekez egin daitezke gauzak.

Zenbait herritarren eta, bereziki, hango dendarien kezka Oxirondo azokari buruzkoa da. Badago asmorik Udalaren partetik azoka biziberritzeko?

Orain dela gutxi mahai gainera etorri den gaia da, baina, beste hainbat konturekin gertatzen den moduan, diru faltaren arazoa hor dago. Herriko merkataritza indartzeko egitasmoarekin lotzen dugu Oxirondoko azokarena. Azken hilabeteotan Jaurlaritzarekin, Beart elkartearekin eta Ikertalde aholkularitza taldearekin elkarlanean ari gara, herriko merkataritza indartzeko ideiak aztertuta. Esate baterako, herri barruan denda ugari itxi dituzte azkenaldian, eta,

OPOSIZIOKO ALDERDIEN BALORAZIOA ETA ALKATEARI GALDERAK

Aintzane Oiarbide | EAJko bozeramailea

"Egoera ekonomikoaren gaineko kezka"

"Nahiz eta beraien programan ez azaldu, Udal Gobernua osatzen duten alderdiak konturatzen hasiak dira egoera ekonomiko kezkagarrian dagoela Bergara eta industria esanguratsuenak ere nahiko kinka larrian daudela. Sustapen ekonomikorako neurriak abian jartzea eskatzen gabiltza aspalditik, Udal Gobernuak gai horri heldu diezaiola; izan ere, funtsezkoa da herriaren etorkizunerako. Krisiaren ondorioak nabariak dira eta Bergaran bizi dugun arazoarekin oso kezkatuta gaude".

▶ ALKATEAREN ERANTZUNA

"Mahai bat eratu dugu egoera ondo aztertzeko eta hor dira, besteak beste, hainbat ikerkuntza zentrotako ordezkariak, Mankomunitatekoak, Unedeko eta Miguel Altunako adituak... Mundu mailako arazoa da eta zer egin daitekeen aztertzen gabiltza. Gure ahultasunak eta puntu fuerteak aztertu eta horren arabera jokatuko dugu. Zalantzarik gabe, horixe da gure erronka nagusietako bat eta edozein ekarpen ongietorria izango da".

Atez atekoak ez du zaborren gaia konpontzen. Zergatik erabaki duzue sistema hori ezartzea?

"Zero Zabor filosofiaren alde egin dugu hasieratik eta atez ateko sistema da filosofia horrekin ondoen datorren sistema. Atez atekoak behartu egiten zaitu birziklatzera eta bosgarren edukiontziak zure esku uzten du hori".

Zaborren gaia erabakitzeko, zergatik ez herri kontsulta egin?

"Zer galdetzeko? Birziklatu nahi dugun ala ez? Jendeak argi dauka... Bergaran atez atekoa ezarri edo erraustegia jartzea galdetzea ere posible litzateke....".

Mari Karmen Barrenetxea | PSE-EEko bozeramailea

"Ez gaituzte aintzat hartzen"

"Oposizioa ez gaituzte aintzat hartzen, eta bozeramaileen batzordea eratzea beharrezkoa ikusten dut Udalaren funtzionamendu hoberako. Bestetik, egoera ekonomikoa nahiko larria dela kontuan izanda, Mizpirualdeko zorra Diputazioak bere gain hartu beharko luke. Horixe eskatu genuen aurreko baten udaletxean. Diputazioa zor horren kargu egingo balitz, Mizpirualde egoitzara zuzendu beharreko diru hori beste hainbat gauzatarako bideratzeko aukera egongo litzateke. Bestetik, aurreko Udalaren ildotik ikusten dugu Udal Gobernu hau".

▶ ALKATEAREN ERANTZUNA

"Udaletxean ateak zabalik dauzkagu oposizioarendako zein edozein herritarrendako. Oposizioaren iritzia kontuan izaten dugu eta ez da egia baztertzen dugunik. Mizpirualderi dagokionez, besteak beste, irisgarritasun aldetik ez dago behar bezala gertatuta eta egokiena egoitza berria egitea litzateke. Bien bitartean, modulu psikogeriatrikoa homologatu ahal izateko behar diren hobekuntzak egingo ditugu Diputazioarekin batera".

titzenean. | ENEKO AZKARATE

"Seminarioko permuta aurretik plan ekonomikoa egin nahi dugu"

"Gastu arruntaren jaitsierarekin herritarrak babesten saiatu gara"

"Aurten ez da partidarik izango Miguel Altuna berria Artabilan egiteko"

ondorioz, erakusleiho asko nahiko degradatuta daude. Horri nolabaiteko soluzioa emateko, herriko artistek erakusleiho horiek apaintzeko ideia aztertzen gabiltza, herri barruari bizitasun apur bat emateko.

Bestetik, herriko urbanoaren aldeko apustua egin duzue Udaletik. Zein da orain arteko balorazioa?

Abenduan hasi ziren urbano berriak lanean, eta oso balorazio ona egiten dugu. Zerbitzua bikoiztu egin da eta lehen heltzen ez zen hainbat tokitara iristen da gaur urbanoa; Bolura, esaterako. Urtarrileko datuek erakusten dutenez, erabiltzaile kopurua bikoiztu egin da joan den urteko datuekin konparatuta. Autobus modernoak dira, gutxituendako ere egokituta, eta trafiko arazoari irtenbidea topatzen lagun dezake urbanoak. Kiroldegiarekin eta beste hainbat zerbitzurekin gertatzen den moduan, oraindik ere zerbitzu defizitarioa da urbanoa, baina argi daukagu herritarrei zerbitzu hori eskaintzea funtsezkoa dela, onurak besterik ez duelako ekartzen herriarendako garraio publikoaren erabilerak.

Azkenaldian zeresan ugari eman dute Ibargarain espaloia zabaltzeko udal brigadak egindako lanek. Zergatik iraun dute horrenbeste? Ez da hobe herrian egin beharreko zenbait lan azpi-kontratatzea?

Lan horiek udal brigadak egin behar izan ditu, horretarako dirurik ez zegoelako. Egia da bi hilabete inguru daramatela hor lanean, baina hainbat hoditeriarekin eta bestelakoekin sortutako arazoengatik izan da. Gainera, brigada ez da dedikatzen horrelako lanetara eta haien eginkizunen artean jaietarako prestaketa lanak egitea dago; agertokiak eta bestelakoak jarri, adibidez. Aratusteak izan dira tartean, besteak beste, eta hori izan da lanak horrenbeste luzatzearen arrazoia. Zorionez, lanak bukatzear daude eta ondo geratu da Ibargaraiko gune hori.

Ikusle batek planteatutako galdera: egia al da AHTko lanengatik Angiozarrerako bidea itxi egin beharko dutela?

Nik dakidala ez. Kamioiendako -eta pista zabala zabalduko dute lanen ondoan, baina Angiozarrerako bidea itxi egingo dutela ez da egia.

Udaleko lanera bueltatuz, EAJK zure dimisioa eskatu zuen osoko bilkura baten pankarta batzuk baimentzearren... Zelan dago kontu hori?

Pankarta horiek erakustearena ekintza politikoa iruditu zitzaidan eta EAJren erantzuna ere erantzun politikoa izan zen. Partidu bati zuzendutako kritika bezala ulertzen dut pankartok erakustea eta EAJren erreakzioa neurriz kanpokoa zela iruditu zitzaidan.**Beste ikusle batek bidalitako galderarekin amaituko dugu: Udal Musika Banda ondo ezagutzen omen duzula dio ikusle horrek...**

Udal Musika Banda eta Bergarako Orkestra Sinfonikoari buruz 10ekoa merezi dutela esango nuke. Lan ikaragarria egiten dute. Espainia mailan Valentzian-eta tradizio handia dago musika bandekin, baina Bergarakoa ez da atzean geratzen. Onenetakoa da, eta, behin baino gehiagotan konprobatu izan dudanez, primerako giroa daukate Bandan eta Orkestran. Primeran, errege baten moduan tratatu izan naute beti.

Gazteendako bereziki lana sortzeko neurririk aurreikusten du Udalak?

"Edozein ekarpen entzuteko gertu gaude, baita PSE-EEren aldetik datozenak. Gai horretan ezer gutxi egin dezakegu, enplegu publikoa sortzea ez bada. Gobernuaren eskumena da eta bere alderdia dago momentuan Jaurlaritzan".

Hainbat istripu izan direnez, Arrizuriagako azterketa sakona egitea komeniko litzateke.

"Egia da andre bat jausi zela eta erorikoaren ondorioz, hainbat zauri izan zituela. Euri jasak ere eragina izan zuen. Baina segurtasun neurri guztiak betetzen dira Arrizuriagan".

HERRITARRAK ALKATEARI GALDEZKA

Museoak agintaldiko proiektu izarra izaten jarraitzen du?

"Bai, horrela da. Turismoa bultzatzen jarraitu nahi dugu, herriarendako interesgarria delako eta daukagun ondareari esker *know-how* bat daukagulako honez gero. Seminarioko eraikina ez da Udalarena oraindik baina permuta gauzatzen denean hantxe kokatuko da museoa. Altxor oso ikusgarria daukagu eta permuta gauzatu bitartean museoa beste leku baten jartzeko aukera ere aztertzen dihardugu. Ikusiko dugu zertan geratzen den".

'Botiloia'-ren arrastoak nabariak dira hainbat lekutan. Neurririk?

"Arazo hori herri guztian dago eta ez da gai erraza. Herri askotan ematen den arazoa da eta aztertzen gabiltza zer nolako soluzioa eman gaurko gazteen ohitura horri. Oraindik ere ikasi egin behar dugu zaborrak garbitzen eta txukun uzten erabilitako tokiak. Udaltzainek ez dute gauez lanik egiten eta ezer gutxi egin dezakete... Bestalde, jarrera poliziala ere ez dugu izna nahi. Guassen ere zikinkeria asko egoten da eta hango jabeekin bildu izan gara zenbait aldiz".

Zergatik ixten da Agorrosin asteburu eguerdietan?

"Agorrosinek izan duen erantzunarekin oso pozik gaude. Kirola egiteko erreferentziazko gunea bilakatu da herritar askorendako. Zerbitzua zabaltzeak gastu handiagoa dakar atzetik, nahiz eta gure asmoa ahalik eta zerbitzu onena ematea den. Ez dugu erraz ikusten eskaera horri irtenbidea ematea, baina aztertuko dugu eta ikusiko da zer egin daitekeen, erabiltzaile asko baititu Agorrosingo kirolguneak".

Bidegorria ez da oraindik iritsi hainbat tokitara, Goiko Estaziora tartean.

"Gipuzkoako Diputazioaren konpetentzia da bidegorri sarearena eta beraiekin aztertu beharreko kontua da. Noiz egin daitezkeen lan horiek ez dakit. Behin baino gehiagotan esan dudan moduan, ez dira garai onenak hauek edozein proiekturi ekiteko diru falta nabarmena delako erakunde guztietan. Edozelan ere, bidegorri sarea ahalik eta leku gehienetara zabaltzea da asmoa eta gai horrekiko sentsibilitate handia dago Diputazioan".

Atez ateko sistema martxoaren 26ko osoko bilkuran onartuko dute

Herritarrak informatzeko hiru faseko prozesua jarriko dute abian; datorren astean, hainbat ekitaldi izango dira Zabalotegin eta udaletxean

T. MADINA/E. MENDIBIL | BERGARA

Bergarako Bilduk agerraldia egin zuen eguaztenean udaletxean, atez ateko sistemaren alde agertzeko. Jesus Elortza alkateak aurreratu zuenez, martxoaren 26ko osoko bilkuran atez ateko sistema ezartzea onartuko dute. Era berean, datorren astean hasita, hiri hondakinen inguruan herritarrak informatzeko hiru faseko prozesua jarriko dute abian. Elortza alkatearekin batera, Lauri Askargorta, Leire Iruin, Maren Belastegi, Ariane Kareaga eta *Piti* Madariaga azaldu ziren komunikabideen aurrean guzti horren berri emateko.

Jesus Elortza alkateak esan zuenez, birziklatzearen alde daudelako eta orain arteko sistemak ez duelako birziklatzea bermatzen egin dute atez atekoaren aldeko apustua. Elortzaren ustez, orain arte hondakinen kudeaketa ez da behar besteko ondo egin, eta aurrerapausoak eman arren, ez da nahikoa hondakinak selektiboki kudeatzeko. Bere esanetan hondakin gutxiago sortzea da gakoetako bat, eta beste bat, berrerabiltzea eta birziklatzea.

Jesus Elortza alkateak eta Bilduko beste bost zinegotzik prentsaurrekoa eman zuten eguaztenean. | TXOMIN MADINA

Ekitaldiak hurrengo astean

Esan bezala, hiru faseko prozesua jarriko dute abian hurrengo astean herritarrak informatzeko helburuarekin. *Informazio-komunikazio* fasea deituriko lehen fasean, informatzea eta gaiarekin kontzientzia hartzea dira helburuak. Aste Santura arte luzatuko da prozesu hau eta hainbat ekintza egingo dituzte: eguaztenean, hilaren 14an, mahai-ingurua izango da Zabalotegiko aretoan, 19:00etan, Juan Karlos Alduntzin (Bildu), Rebeka Ubera (Aralar), Denis Itsaso (PSE-EE) eta Maria Eugenia Arrizabalaga (EAJ) politikarien parte-hartzearekin.

Eguenerako, hilaren 15erako, bi ekitaldi iragarri dituzte: Markel Azkargortak eta Pedro Iturbek *Antzuolako kasua: erabakia, erreakzioak eta bizipenak* hitzaldia egingo dute osoko bilkuren aretoan izango da, 15:00etatik 16:00etara. Bestalde, Bilketa masibotik zero zaborrerantz izenburupean, Imanol Azpirozek zero zabor filosofia azalduko du leku berean, 19:00etan.

Egubakoitzean, hilaren 16an, Hernanin eta Antzuolan bizi diren bergarar batzuek atez atekoarekin izan dituzten bizipenak kontatuko dituzte 19:00etan, osoko bilkuren aretoan.

Beste bi fase

Bigarren faseari *Atez atekoan sakontzen* deitu diote, eta bertan aurreikusten dira auzoetan batzarrak eta herritarrekin, herri eragileekin eta merkatariekin bilerak egitea apiriletik ekainera bitartean.

Hirugarren fasea udazkenean iritsiko da. Kontsulta-kontraste fasea izango da: auzoz auzo batzarrak egingo dituzte, eta plangintza teknikoa herritarrekin kontrastatzeko fasea ere izango da.

Eguazteneko prentsa aurrekoan adierazi zutenez, hezkuntza munduan ere gai honen inguruko lanketa espezifikoa egingo dela aurreratu zuten Bilduko zinegotziek. Honetaz gain, merkataritzan, industriaguneetan eta landa eremuan ere plangintza bereziak egingo dituzte, eta iragarri dute gune horien behar eta premietara egokitutako planak izango direla.

Era berean, auto-konpostajearen alde ere egiten du Bergarako Bilduk, "ziklotik hondakinak ateratzea ahalbideratzen duelako". Hala, auto-konpostajea bultzatzeko ikastaro zein ekimenak jarriko dituzte abian datozen hilabeteotan; Mankomunitate mailakoak izango dira ekintza horiek.

Ezker Abertzalea, udal gobernuarekin

Bergarako Ezker Abertzaleak prentsa aurrekoa egin zuen Artatsen, astelehenean. "Zaborrik gabeko Bergara eta Gipuzkoa" nahi dutela adierazi zuten eta atez atezko hondakinen bilketa sistemaren aldeko iritzia plazaratu zuten. Hogeita bost lagunek egin zuten agerraldia. Ibai Redondok eta Amagoia Aristegik irakurri zuten Ezker Abertzalearen iritzia hondakinen kudeaketaren gainean: "Orain arte, hondakinen kudeaketa gaizki egin da eta gaur egun hondakinekin dugun arazoari irtenbidea emango diogu gauzak ongi egiten hasita". Hainbat komunikabidetan martxan den "manipulazio kanpaina" salatu zuten eta babesa erakutsi zioten udal gobernuaren erabakiari; "atez atekoa hedatuz gero aurrerapen handia da, ingurumenari eta osasunari ekarpen handia egingo diogu eta errauskailua ez da behar izango. Gure osasunak eta gure seme-alabenak ez al du merezi?". Asteleheneko agerraldian 25 lagunek hartu zuten parte.

OHARRAK

ERRAMU-ZAPATURAKO TXOSNA ESKAERAK

Erramu-zapatuan bi txosna izango dira, bata Seminarioko patioan eta bestea Munibe plazan. Interesa duten elkarteek martxoaren 16ra arte aurkez ditzakete eskaerak. Eskaera orriak eta baldintzen plegua udaletxeko idazkaritzan eta *www.bergara.net* webgunean daude eskuragarri.

GAZTETXEAN EKITALDIAK

Gaztetxean bilera irekia izango da gaur, egubakoitza, 22:30ean. Zapatu gauean, EHEk, Ikasle Abertzaleek eta Jardunek antolatutako *Euskaraz bizi nahi dut* astearen barruan kontzertua izango da, ordu berean, eta domekarako Zero Zabor filosofiaren gaineko kafe tertulia iragarri dute: *Incinerando el futuro* dokumentala emango dute eta ondoren solasaldia izango da.

1978AN JAIOTAKOAK

1978an jaiotakoek bazkaria egingo dute martxoaren 17an Tartufon, 14:30ean. Izen-ematea (15 euro aurreratuta) Euskadiko Kutxako kontu honetan egin daiteke: 3035 0020 52 0201111624. Izen-ematea martxoaren 14ra arte zabalik. Facebooken ere baduzue ospakizunaren berri, *78ko Kintadia* izeneko atalean.

1982KOEN BAZKARIA

1982an jaiotakoek bazkaria egingo dute Erramu-zapatuan, martxoaren 31n. Agorrosingo tabernan izango da bazkaria eta martxoaren 22rako 25 euro ordaindu behar dira Caja Ruraleko kontu honetan: 3008 0198 27 2475491219.

PAZKOAK: BILERA IREKIA

Mendekoste jaiak antolatzeko bilera deia egin du Udalak. Martitzenean, hilaren 13an, bilera irekia izango da kultura etxean, 19:00etan.

BIZIKLETA ASTEA

Bizikleta astearen barruan, martxoaren 13tik 15era *GPSaren erabilera ordenagailuan* ikastaroa izango da Irizarren, 19:00etatik 21:00etara. Argibideak 660 80 67 03 telefonoan edo *basque_adventure@yahoo.com* helbide elektronikoan.

Mujika gozotegia
Gozogintzan nahi duzuna eskatu
Artisautza eta tradizioa
Artekalea 3 - BERGARA
Tel.: 943 76 10 34
mujikagozotegia.blogspot.com
mujikagozotegia@gmail.com

TELEIXA BILTEGIAK
Eraikuntza materialak
Telleria (Labegaraieta)
BERGARA
Tel.: 943 76 27 93

TOKI-ONA
Bodegoia-taberna
Eguneroko janariak
Txitxizotzak
Kazolatxoak
Txabierroak
Matxiategi 1. BERGARA
Tel.: 943 39 53

UGARTE
AROZTEGIA - ALTZARIAK
AROZTEGIA
San Juan 1a
Tel.: 943 76 54 91
ALTZARI DENDA
Ikerleku zeharbidea
Tel.: 943 03 46 30
BERGARA

BERGARA
MARMOLERIA
PEDRO SALEGI OSA
Sukalde eta bainu enzimerak
Urarte 8 BERGARA
Tel.: 943 76 11 99 / 14 47
Faxa: 943 76 04 77

'Erreka Mari' haurrentzako antzerkia bihar

X.U. | BERGARA

Bergarako haurrek Euskal Herriko azken lamina ezagutu ahal izango dute bihar, zapatua, arratsaldean. Izan ere, Txontxongilo antzerki taldeko lagunen eskutik etorriko da Erreka Mari Bergarara (Zabalotegi aretoa, 18:00, sarrera 3 euro).

Bi pelikula domekan

Domeka arratsaldean bi film emango dituzte Zabalotegi aretoan: 17:00etan William Shakespeare idazlearen lana oinarri hartuta *Gnomeo y Julieta* gazteendako animaziozko filma emango dute (Kelly Asbury, 86 minutuko iraupena).

19:30ean, berriz, Rupert Wyatt-ek zuzendutako *El origen del planeta de los simios* filma egongo da ikusgai (iraupena: 107 minutu). Film hori 7 urtetik gorakoendako da aproposa.

Kantu jira eta kantu afaria hilaren 23an

X.U. | BERGARA

Euskal kantuak sustatzeko eta horiek ez galtzeko helburuarekin, Jardun euskara elkarteak kantu jira eta kantu afaria egingo ditu aurten ere: "Asmoa da euskal abestiak ezagutzea, ikastea eta kantatzea. Euskal kantutegia ezagutzera ematea eta abesti hauen letra eta mezuen bidez euskararen aldeko jarrerak sendotzea". Martxoaren 23an izango da, egubakoitza.

Kantuan egiteko liburuxkaz lagunduta, eta trikitilariek giroa alaituta, 20:00etan San Martin plazatik abiatuko dira kantuan eta 21:30ean Artatse elkartean egingo dute afaria. Txartelak eskuragarri daude Arranon, Ariznoan eta Jardun euskara elkartean. Txartelak 12 balio du (Jarduneko bazkideeentzat), eta 15 gainontzekoentzat.

Soraluce BKEk derbia jokatuko du MUren kontra, senior mailan

Santo Tomasen kantxan irabazi izanak azken asteotako bolada txarra eten du

X.U. | BERGARA

Gipuzkoako senior mailan derbia jokatuko dute Soraluce BKEk eta Mondragon Unibertsitateak. Kategoriaz igo zirenetik, Bergarakoek azken bi hilabeteetan izan dute orain arteko bolada txarrena, sei partidu galdu dituzte-eta jarraian. Bolada txar hori, baina, garaiz eten dute; izan ere, liga amaitzeko oraindik sei partidu geratzen dira eta Santo Tomasen kantxan lortutako garaipenak konfiantza emango die Jon Beistegiren mutilei.

Hala, zapatuan 16:30ean Labegaraietan aurrez aurre izango duten kontrarioa ez da opariak egitera etorriko, Arrasatekoak ere garaipen beharrean daude -eta: bi talde horien artean hiru puntuko aldea baino ez dago. Horrenbestez, jaitsiera postuengatik lehian dabiltzan bi talderen arteko derbia izango da.

Bergarakoak, iaz Eibarren jokatutako partidu garrantzitsuan. | JULIO CALLEJA

Sentzazio onak bueltan

Joan den astean, sailkapenean askoz aurrerago dagoen Santo Tomas taldeari irabazi izanak (54-64) erakusten du talde horren benetako gaitasuna.

Lehenengo minutuak ez ziren batere onak izan, bi taldeak makal ibili ziren taulari begira, kontzentrazio falta handiarekin. Bigarren zatian etorri zen Bergarakoen errakzioa. Markagailuan atzetik zihoazen (32-28), baina partzial ederra egin (17-3) eta alde horri eutsi zioten amaierara arte (54-64).

Santo Tomasi irabazi izanak erakusten du taldearen maila

Lau t'erdiko txapelketako finalerdiak 13an

X.U. | BERGARA

Datorren martitzenean, hilak 13, jokatuko dituzte Soraluce lau t'erdiko txapelketako finalerdiak. 19:30ean, lehenengo partiduan Ander Mugurutza bergararrak Yoldiren kontra jokatuko du eta bigarren partiduan Arratibel eta Bixintxo Bilbao izango dira zein baino zein gehiago.

Martitzeneko kanporaketetan Bilbaok Peñas utzi zuen kanpoan (9-22) eta Arratibelek beste horrenbeste egin zuen Jakarekin, 22-15 irabazita.

SHOTOKAN

Karatekek lan ona Gipuzkoakoan

Bergarako Shotokaneko karatekek lan ona egin zuten Hondarribian jokatu zuten Gipuzkoako txapelketan. Infantil eta alebin mailetan lehiatu ziren karatekak eta hainbat domina eskuratu zituzten. Katan Maddi Iñarrak hirugarren postua lortu zuen eta kumitean podiumean egon ziren Ibai Sanz, Asier Muñoz, Urko Nogales eta Gorka Markez.

Eskubaloiko mutilek Elgoibarren jokatuko dute zapatuan

Joan den astean, lehenengo zati negargarria jokatu ostean bigarrenean buelta eman zioten partiduari, eta, justu-justu izan bazen ere, garaipen garrantzitsua lortu zuten etxean (30-29). Puntu horiek ematen duten lasaitasunarekin joango dira Josetxo Muniategiren mutilak bihar, zapatuan, Elgoibarrera; ligan bigarren daude Elgoibarkoak.

Pol-Pol mendi elkarteak bi irteera ditu martxorako

Beteranoek martxoaren 18an egingo dute egun osoko mendi irteera, Bizkai aldean. Sodupetik Ganekora joango dira oinez, eta handik Bilbora jaitsiko dira. 08:00etan irtengo dira, eta tiketak bulegoan daude. Mendi eskiko irteera ere egingo dute asteburu horretan, Frantzia aldera (Osssue bailarara). Martxoaren 13an egingo dute batzarra guztiaz berba egiteko (19:00).

Ur bizietan ere lan ona egin dute Bergarako piraguistek

Bidasoako uretan 88 piraguista batu ziren joan den asteburuan. Aurreikusi baino ur biziagoak izan zituzten, eta, hala ere, Bergarako gazteek lan txukuna egin zuten. Azpimarratzeko moduko lana egin zuten, besteak beste, Unai Otaduik, Mikel Zubizarretak, Iker Mansok, Javier Del Reyk, Aitziber Iturriagak eta Leire Ugaldek.

Orfeoiak urteroko batzar orokorra egingo du 13an

Bergarako Orfeoiko urteko batzar orokorra Santa Marina elizako sakristau etxean egingo dute martxoaren 13an, martitzena. Orfeoiko kideei eta bazkideei batzarrera joateko dei egin diete. Hala, lehenengo deialdia 20:00etan izango da eta bigarrena, 20:30ean.

CLINICA DENTAL
BERGARA
Bidekurutzeta 36 behea
20570 **BERGARA**
Tel.: 943 76 05 77
ZERBITZU INTEGRALA
Behar duzun espezialitatearen araberako lantalde profesionala.
• Odontologia orokorra
• Protesiak
• Inplanteak
• Endodontzia
• Hortz-estetika
• Ortodontzia (Doako azterketa)
• Periodontzia
ESTREINATU IRRIBARREA
Inplante tratamendua:
• Azterketa eta aurrekontua doan.
• Inplante unitario osoa, gehienezko prezioa 112 €/ hilabeteko*
* Urte baterako finantzaketa
ASEGURUAK
DKV / Previasa • Aegon • Mapfre • Sanitas
Adeslas / IMQ / Iquimesa • Santa Lucia
Previsora Bilbaina • Ocaso
Mutuak
PADI Haurren hortzak zaintzeko Osakidetzaren programa
Hirugarren adinekoentzako deskontu bereziak!
PSE 99/94

BIZKOTXOAK, ERREILENOAK ETA TOSTOJAK
Larrañaga
San Pedro, 9 - Telefono, 761051
R.S.I. 209374 - SS
BERGARA

Txandarekin deskontu handiak eta erosteko produktuak kalean

Denboraldia bukatzeko 'outlet'-a egingo dute gaur eta bihar

MIREIA BIKUÑA | OÑATI

Aurretik, Arrasaten eta Bergaran egindako moduan, Txanda dendarien elkarteak *outlet*-a egingo du gaur, egubakoitza, egun osoan, eta bihar, zapatua. Elkarteko dendariek kalera aterako dituzte euren produktuak, eta deskontu handiekin salgai ipiniko dituzte. *Txanda Outlet* izango da. "Aspaldian buruan geneukan ideia da. Krisiak gogor astindu du, salmentak asko jaitsi dira, eta denboraldia bukatzeko *outlet*-a egitea pentsatu dugu", esan digu Txandako zuzendaritzako kide Aitor Ugartek.

Lehenengo *outlet*-a gaur eta bihar egingo dute dendek duten ohiko ordutegiarekin: gaur, egubakoitza, goiz eta arratsaldez; eta bihar, goizez.

Txandaren lehen azoka horretan 27 dendak parte hartuko dute, eta norberak denda aurrean ipiniko ditu salgai produktuak. Eguraldi txarra egiten badu, produktuak denda barruan salduko dituzte.

Txandaren *outlet*-a iragartzen duen kartela Kale Barriko denda baten. Produktuak kalera aterako dituzte . | M. BIKUÑA

Urtean bat edo bi

"Deskontu handiak". Horixe eskainiko dute dendariek. Biltegian gordetako eta udazken-negu denboraldiko produktuak likidatu gura dituzte. "Beherapenen ondoren, oraindik materiala geratzen zaigu biltegian. Batzuei beste batzuei baino gehiago: denboraldia txarra izan delako, dendako produktuak aldatu egin direlako, produktu berriak ekarri direlako... Ea, bada, deskontu handiekin ondo saltzen dugun", dio Ugartek.

Bi helburu ditu Txandaren *outlet*-ak: "Dendetan pilatutako produktuak saldu gura ditugu, prezio onean, eta herritarrek aukera izan dezatela gustuko dutena merke-merke erosteko", esan digute.

Herritarren erantzuna zein izango den jakin barik ere, Txandako kideen asmoa da urtean behin edo bitan egitea *outlet*-ak. Betiere, denboraldiko beherapenak bukatu ondoren.

Merkataritza "dinamizatu"

Herriko merkataritza dinamizatzeko eta bultzatzeko asmoz hainbat ekitaldi antolatzen ditu urtero Txandak. Elkartetik kanpo dauden merkatari eta ostalariei dei berezia egingo diete Txandako kide izateko. "65 gaude egun, baina zenbat eta gehiago izan, orduan eta gauza gehiago lortu ahal izango ditugu", dio Ugartek.

Euskal Herriko Itzuliaren kontura opariak

Apirilaren 6an eta 7an Euskal Herriko Itzuliak hartuko du Oñati, eta festa hori aprobetxatu gura du Txanda elkarteak promozio berezia egiteko. Erosketak egiteko Txanda txartela erabiltzen duten bezeroek sari zuzenak irabazi ahal izango dituzte. Guztiak ere, ziklismoarekin zerikusia dutenak: bizikleta bat, maillotak, eskularruak, galtzerdiak, kamisetak... Datafonoak esango du saria nork irabazten duen, baina sari guztiak apirilaren 7an banatuko dituzte, erlojupekoa bukatu ondoren.

Gainera, Txandako dendariek erakusleihoak apainduko dituzte tropela herrira heldu aurretik. Horietan ere, noski, txirrindularitza izango da gai nagusia.

PARTE HARTZAILEAK

- Beloki iturgintza
- Hirukar liburu-denda
- Distira estetika zentroa
- Bellotza loradenda
- Ane mertzeria
- Mendizabal kirolak
- Olalde oinetakoak
- Viky oinetakoak
- NI moda
- Maibi dekorazioa
- Arantza mertzeria
- D'OR estetika
- Urrutia gizonak
- Aranburu pinturak
- Urtatza mertzeria
- Kuttun lentzeria
- Itziar optika
- Juanitosa bazarra
- Kukumiku haur moda
- Zelaia etxetresnak
- Kimu-Urtxin loradenda
- Amalur belar-denda
- Baio moda
- Laket lurrindegiak
- Elortza burdindegia
- Haritza liburu-denda
- Arkauz optika

Udaberriari ongietorria egingo diote erretiratuek

M.B. | OÑATI

Bi ekitaldi nagusi antolatzen dituzte Pake Lekuko erretiratuek urtean: Erretiratuen Astea eta udaberriari ongietorria. Azken hori hilaren 13tik 16ra arte egingo dute. Askotariko ekintzak izango dira.

Martitzenean, hilaren 13an, berbaldia egingo dute erretiratuen elkartean, 17:00etan; eguaztenean antzerkia ikusteko aukera izango dute. Gernikako Gure Arbola Zaharra antzerki taldeak *En la solución estaba el problema* antzezlana egingo du Santa Anan, 17:00etan. Sarrera doan da; eguenean bingo berezia egingo dute elkartean, opariekin, 17:00etan; eta egubakoitzean gatz museora eta Dorletara joango dira.

Spinning maratoian izena eman daiteke

M.B. | OÑATI

Hilaren 24an egingo dute II. areto-bizikleta maratoia, baina oraindik zabalik dago izena emateko epea. Interesatuek *www.oinati.net* atarian eman behar dute izena, hilaren 21a baino lehen. Oñati, Bergara, Zumarraga, Arrasate, Aretxabaleta, Legazpi eta Antzuolako spinningeko udal kirol zerbitzuen erabiltzaileek 15 euro ordaindu beharko dituzte eta gainerakoek, 20.

Oraingoz, 80 lagunek eman dute izena, baina 140 bizikleta ipiniko dituzte spinningeko erabiltzaileen esku.

Oñatiko Udalak eta E-goitek Kirol Zerbitzuak enpresak antolatutako maratoia hiru ordukoa izango da (16:00-19:00), eta spinninga ematen duten irakasleek emango dituzte eskolak.

MAIDER ARREGI

Atez atekoaren kanpaina abian

Astelehenean hasi zuten *Atez ate, auzoz auzo* kanpaina herritarrekin. ETEO zaharrean egindako batzarrean 107 lagun elkartu ziren, eta Udal Gobernuko eta Zero Zabor taldeko kideek emandako azalpenak entzun zituzten. Hurrengo batzarra hilaren 13an egingo dute, Zuazola institutuan, 19:00etan. Herriguneko, Otadui zuhaiztiko eta Bidebarrietako bizilagunak gonbidatu dituzte, besteak beste.

OHARRAK

ODOL-ATERATZEA
Urteko hirugarren odol-ateratzea egingo dute gaur, egubakoitza, Txantxiku Ikastolan, 18:00etatik 20:00etara. Hurrengoak egingo dituzte apirilaren 20an, maiatzaren 18an eta ekainaren 15ean.

ANTZERKIA
Emakumeen Egunaren aitzakian Theatrola konpainiak *Gona gorriak* antzezlana egingo du domekan, 18:30ean, Santa Anan. Sarrerak leihatilan salduko dituzte.

HITZALDIA
Kutxa Ikasgelek antolatuta, eta Bergarako UNEDen laguntzarekin, *Nola hurbildu film batera. Hizkuntza zinematografikoa* hitzaldia egingo du Zigor Etxebestek hilaren 13an kultura etxean, 18:00etan.

BILKETA
Etxeko traste zaharrak eguenero batzen dituzte. Interesatuek 943 71 19 38 telefonora deitu beharko dute trasteak non utzi behar dituzten jakiteko.

Aloñako espeleologia taldekoak Saratxotik irteten. | AMET

'Uraren bidea' izeneko diapositiba emanaldia

Espeleologia taldeak egingo du hilaren 14an

M.B. | OÑATI

Aloña Mendi Espeleologia Taldekoek (AMET) diapositiba emanaldi bikoitza egingo dute datorren astean, Oñatin eta Eskoriatzan. *Uraren bidea* delako proiekzioa egingo dute: Oñatin, hilaren 14an, 19:00etan, kultura etxean; eta Eskoriatzan, hilaren 16an, 19:00etan, kultura etxean.

Bi urteko lana

Aloña Mendiko espeleologoek azken bi urteetan egindako esplorazioak eta lanak batu dituzte diapositiba emanaldian. Esplorazioak egin dituzte Oñatin, Aretxabaletan eta Arrasaten, eta horietan askotariko lanak egin dituzte: ur azpiko esplorazioak, eskaladak, hezurren aurkikuntza, galeria berriak... "Bi urte oso emankorrak izan dira. Lan handia egin dugu, eta orain erakutsi egingo dugu", esan digute espeleologia taldekoek.

Irteera eta esplorazio horietan guztietan erretratuak egin dituzte, eta orain, emanaldi batean batu dituzte.

Oñati Herrira mugimendua hilaren 31n aurkeztuko dute, eta gaur, egubakoitza, batzar irekia egingo dute

Oñati Herrira mugimendua hilaren 31n aurkeztuko dute, baina aurretik hainbat gauza lotu behar dituzte. Bide horretan, batzar irekia egingo dute gaur, egubakoitza, 18:00etan, ETEO zaharrean. Herritar guztiak gonbidatu gura dituzte. "Herrira mugimenduak presoen eta iheslarien eskubideak aldarrikatu eta etxera ekartzeko lan egiteko asmoz" sortu dute.

Aloñako Lagunek eta Natur Eskolak Zuhaitz Eguna egingo dute domekan, Duru eta Aloña artean

Aloñako Lagunak taldekoek Natur Eskolakoen eta basozainaren laguntzarekin Zuhaitz Eguna egingo dute domekan, hilaren 11n, Duru eta Aloña artean. 09:30ean Durun elkartuko dira eta 50 haritz landatuko dituzte. Ondoren, hamarretakoa egingo dute Duruko txabola batean. Oraingoz, 37 lagunek eman dute izena. Parte hartzeko: *aloinalagunak@gmail.com* helbidean edo Fernando Maiztegik Patrue kalean duen tailerrean.

Txirri, Mirri eta Txiribiton Juniorren emanaldiko sarreren dirua, Corpus berperako lasteketarako

Antxintxiketan kirol taldeak Txirri, Mirri eta Txiribiton Junior taldeak emanaldi bikoitza egingo du hilaren 17an, Zubikoa kiroldegian: 16:00etan eta 18:00etan. Sarrerak salgai daude sei eurotan Oñatiko Mizken eta Kikun; Arrasateko Luan; Bergarako kultura etxean; eta Aretxabaletako ludotekan eta Arkupen. Sarrerekin jasotako dirua Corpus bezperako lasterketara bideratuko dute. "Babesleak topatzeko zailtasunak ditugu", esan dute.

30 oñatiar ibili ziren Lilatoian korrika egiten eta patinetan

Bost kilometroko lasterketa egin zuten hilaren 4an Donostian

MIREIA BIKUÑA | OÑATI

Emakumeen 23. Lilatoi lasterketa jokatu zuten hilaren 4an Donostian. 2.400 korrikalarik hartu zuten irteera Bulebarrean bost kilometro egiteko asmoz, eta haien artetik 30 oñatiarrak ziren. 29k korrika egiten zuten ibilbidea eta batek, patinetan. Guztiak itzuli ziren "oso pozik" Donostiatik.

Oñatiarren artean denbora onena Susana Arresek egin zuen (ikus ondoko taula), baina halako probetan denbora eta sailkapepa "gutxienekoa" dela esan digu: "Lilatoiak duen onena korrikalarien artean sortzen den giroa da. Nor bere erritmora doa, ahalik eta lan txukunena egitera eta ondo pasatzera".

Euria, hasieran

Lilatoian parte hartu zuten emakumeekin batera, euria ere protagonista izan zen. Lehen metroetan busti egin ziren korrikalariak. "Eguraldi iragarpena ez zen ona, baina uste baino gutxiago busti zuen. Lehen metroetan euria egin zuen, baina korrika egiteko tenperatu ederra zegoen", esan digu Arresek.

Oñatitik joandako korrikalarietako batzuk taldean joan ziren eta beste batzuk, bakarrik. "Ni Abixaran taldeko kideekin joan nintzen, eta oso gustura egon ginen. Errazagoa da taldeka korrika egitea, bakarka baino", esan digu.

Azkarrenak

Bada, Lilatoian festa giroa nagusi bada ere, irabazleak ere baditu. Eneritz Sein pasaitarra izan zen azkarrena korrikalarien artean, eta, gainera, probako errekorra ondu zuen. Patinatzaileen artean Mirian Elortza donostiarra izan zen onena eta gazteen artean, Uxoa Irigoien.

Abixaran taldeko kideetako batzuk Lilatoia hasi aurretik. | SUSANA ARRESE

SAILKAPENA

LILATOIA KORRIKA		
174	Susana Arrese	25.06
181	Izaro Elortza	25.13
221	Arrosane Galfarsoro	25.54
343	Sandra Velasco	27.15
424	Amaia Bikuña	27.43
426	Aitziber Etxeberriarteun	27.44
440	Amaia Ayesta	27.50
497	Nuria Velasco	28.11
630	M. Jose Ibarrondo	28.51
636	M. Mar Blanco	28.54
646	Amaia Uriarte	28.58
648	Itziar Igartua	28.58
650	Arantxa Barrena	28.58
712	Miren Urkiola	29.24
733	Ainara Diaz de Gereñu	29.28
797	Nerea Pedrosa	29.42
834	Itziar Larrea	29.55
966	Nerea Altube	30.40
1.146	Izaskun Legaristi	32.18
1.146	Eloisa Amiano	31.25
1.354	Edurne Ruiz	32.18
1.354	Rakel Lopez	32.18
1.366	Leire Barbero	32.21
1.369	Usue Ugarte	32.22
1.371	Sandra Madina	32.23
1.372	Aintzane Ezeolaza	32.23
1.451	Maria Azpitarte	32.44
1.928	Gemma Carrascal	35.14
2.004	Lide Ormazabal	35.49
LILATOIA PATINETAN		
9	Nerea Mendiola	14.18

RICARDO ARRIZABALAGA

Aloñako karatekak dominekin itzuli ziren

Hondarribiko Jostaldi kiroldegian jokatu zuten karateko Gipuzkoako infantil mailako txapelketa hilaren 3an, eta Aloñako ordezkariak sei dominarekin itzuli ziren: Uxue Guridik urrezko domina lortu zuen kumitean; Kevin Martinek zilarrezkoa kumitean; Ane Guridik zilarrezkoa kumitean eta brontzezkoa katan; Naia Rodriguezek brontzezkoa kumitean; eta Axel Reinstadlerrek brontzezkoa kumitean.

12 merkatari eta taberna bihar Ixadebalde azokan

Iturrigorri pilotalekuan egingo dute, egun osoan (10:00-20:00)

MIRARI ALTUBE | ARETXABALETA

IV. merkealdien azoka egingo dute bihar, hilak 10, Aretxarte merkatarien elkarteko kideek. Iturrigorri pilotalekuan jarriko dituzte merkatutako produktuekin betetako postuak, eta sekula baino merkatari gehiago elkartuko dira oraingoan: hamabi. Egun osoan egongo dira bertan (10:00-20:00), eta jatekoa eta edatekoa ere izango da.

Ixadebalde azokako postuak pilotalekuan, iaz, martxoan. | M.A.

Eskaintzak, 5 eurotan hasita

Udalaren eta Loramendi elkartearen laguntzarekin egingo dute azoka, azken urteotan legez, eta musikarekin girotuko dute pilotalekua. Merkatariek, berriz, eskaintza paregabeak izango dituztela iragarri dute; jantzi-dendetakoek, esaterako, negu partean atzera geratutako arropa eta osagarriak eroango dituzte, eta 5 eurotan hasita eskaini; hau da, %80 arteko beherapenarekin. Gainerako komertzioek ere eskaintza politak izango dituzte, baita eguneko produktuetan ere. "Dagoeneko hirugarren urtea da, laugarren Ixadebalde azoka, eta orain arte izandako arrakastari eutsi gura diogu", diote Aretxarteko kideek, eta gaineratu: "Herritarrak beste behin ere hurrera daitezen gurako genuke. Aurten, gainera, sekula baino gehiago izango gara".

Hona hemen bihar Iturrigorri pilotalekuan izango diren komertzioak: Kilima eta Haurrak, umeendako arropa-dendak; Mari Carmen, oinetako-denda; Asensio, Zare eta Belar Meta, jantzi-dendak; M-5, kirol-denda; Leintz, mertzeria; Txilarra, belar-denda; Kioskoa; Gertu, prestatutako janari -denda; Brasileña, kafe-denda; eta Orly, Akorde eta Eguzki tabernak. Jatekoa eta edatekoa eskainiko dute haiek pilotalekuan.

Arratsalde partea girotzeko (17:00-19:00) umeendako tailerrak izango dira. Eta azokan erosketak egiten dituzten bezeroen artean zozketarako txartelak banatuko dituzte: aste bukaera kanpoan pasatzeko bi egonaldi zozketatuko dituzte, azoka itxi aurretik.

DATUA

12

POSTU

Hamabi saltoki izango dira Iturrigorri pilotalekuan, eta horiekin batera taberna.

Martxoaren 16an zozketa

Bestalde, urteko lehenengo zozketarako txartelak banatzen dabiltza Aretxarteko kideak bezeroen artean. Zozketa hori martxoaren 16an, egubakoitza, egingo dute, eta saria hauxe da: bi lagunendako afaria sagardotegian eta gaua eta gosaria landetxe batean, hain zuzen ere.

Saiheski mokadutxoa bihar UDAren eskutik

Giokela jaia egingo dute Herriko Plazan, kirol elkartearendako dirua batzeko asmoarekin

M.A. | ARETXABALETA

Azken urteotan egin duten legez, Giokela jaia antolatu du Aretxabaleta Kirol Elkarteak biharko, martxoak 10. Herriko Plazan egingo dute jaia (18:00), jatekoa eta edatekoa eskainita.

Jan eta edan euro eta erdian

Iosu harategiaren laguntzarekin (Juan eta Javi harakinak) Giokela kalitate-marka duen saiheskia plazako arkupeetan erre eta eskainiko diete herritarrei, euro baten truke. Saiheski mokadutxoari laguntzeko ardoa eta sagardoa izango dituzte aukeran, euro eta erdi ordainduta –jatekoa eta edatekoa hartuta–.

Ikasturtean pare bat jaialdi egin izan dituzte azken urteotan Aretxabaletako Kirol Elkarteko kideek, eta helburua da dirua batzea elkarteko talde guztiendako –asteroko zozketarako txartelak ere salduko dituzte–. Era berean, herria girotu eta herritarrak elkartera joatea gura dute.

Saiheskia erretzen plazako arkupeetan orain dela bi urte. | M.A.

Musika eskolako ikasleek dantza erakustaldiak egingo dituzte aste osoan Arkupen

Leizarra musika eskolako dantzarien emanaldiak izango dira astelehenean hasi eta egubakoitzera bitartean Arkupeko Zaraia aretoan. Orain arte ikasitakoaren berri emango dute emanaldiotan. Hona ordutegia: astelehenean, 18:45-21:00; martitzenean eta eguaztenean, 17:00-20:45; eguenean, 17:00-18:15; eta egubakoitzean, 17:00-20:45. Sarrera debalde da eta herritarrek zabalik dituzte ateak, baina sartzeko txartela hartu beharra dago.

Trakzio mekanikodun ibilgailuen gaineko zerga ordaintzeko epea zabalik dago udaletxean

Herriko ibilgailuen 2012ko errolda egin du Udalak, eta ikusgai dago udaletxean. Era berean, trakzio mekanikodun ibilgailu horien zerga ordaintzeko epea zabaldu du, eta apirila bukatu bitartean ordaindu beharra dago, udaletxera joanda –helbideratutako ordainagiriak izan ezik.

Argibide gehiago gura izanez gero, edo erreklamazioren bat aurkeztu, udaletxeko kontu-hartzailearengana joan behar da ohiko ordutegian.

Garbitasun zerbitzua eskatzeko epea bukatzear dago

M.A. | ARETXABALETA

I Etxeko garbitasunaren gaineko prestakuntza ikastaroa bukatu berri dute hainbat emakumek, otsailean hasita, eta orain, ordaindutako praktikak egingo dituzte herriko etxeetan. Hain zuzen ere, garbitasun zerbitzua debalde eskainiko diete bost hilabete arteko umeak dituzten Aretxabaletako familiei, eta eskaera egiteko epea gaur, martxoak 9, bukatuko da. Izena emateko udaletxera –943 71 18 62– jo dezakete interesatuek, edo honako telefonora deitu: 630 24 78 71. Argibide gehiago gura dituenak ere bertan jasoko ditu. Lau astean emango dute garbitasun zerbitzua etxeetan: martxoko azken bi asteak eta apirileko beste bi –Aste Santuan ez–. Astean bi egunean izango da, egunean bi ordu.

Hamaika emakumek egin dute lanerako prestakuntza ikastaroa, gehienak etorkinak. Hainbat eskola jaso dituzte, adituen laguntzarekin; besteak beste: garbitasun lanen gaineko ezagutza orokorrak; ingurumen kontuen gainean jakin beharrekoak –zaborraren birziklatzea…–; amatasuna gurean zelan bizi den argibideak, eta abar.

Mobiliario ARENAZA
ALTZARIAK
DISEINUA
APAINKETA
Bizkaia 1 - Tel.: 943 79 08 07
ARETXABALETA

PIENSOS SUNZUE S.A.

FELIX PAGALDAY
Laborantza tresnak
Ongarriak- Haziak
Mitarte 7 behea
ARETXABALETA
Tel.: 943 77 00 33 / 943 79 42 56

Jon Díaz
Harakina
Loramendi 1
Tel.: 943 79 71 69
20550 ARETXABALETA

Gaurtik aurrera jardun osora dago lanean Ana Bolinaga alkatea udaletxean

M.A. | ARETXABALETA

Ana Bolinaga alkateak bukatu ditu eskolan egin beharreko praktikak, eta, gaurtik, udaletxean dago goiz eta arratsalde. Batzordeetan, bileretan eta osoko bilkuretan parte hartu du orain arte ere, baina ezin izan da egon herritarrak hartzeko; hemendik aurrera bertan izango da, udaletxearen ohiko ordutegian.

Iaz ekainean hartu zuen alkate ardura Bolinagak, baina uztailean jakin zuen sei hilabeteko praktikak egin beharko zituela derrigorrez, eskolan. Hala, irailetik martxoaren 8ra arte praktika horiek egiten ibili da; bien bitartean, udaletxean, Jose Luis Martin, Euskara eta Hezkuntza zinegotzia, egon da herritarren zerbitzura asteko hainbat egunean.

Berdintasuna bultzatzea helburu duen ipuin kontaketa bihar umeendako

M.A. | ARETXABALETA

Maite Franco ipuin-kontalariak *Panpinak Aitorrentzat* kontaketa saioa eskainiko du bihar (11:30) Udal Liburutegian –sarrera debalde da–. 4 urtetik gorako umeendako saioa da.

Emakumeen Nazioarteko Egunaren barruko ekitaldien artean dago saioa, berdintasuna bultzatzeko helburuarekin sortutako ipuin-kontaketa da-eta; helburuen artean ditu sexu-rolen banaketa bukatzea eta emakumeen eta gizonen eskubide eta eginbeharren arteko berdintasuna bultzatzea. Hori guztia umoreak, misterioak eta ezustekoek zipriztinduta eskainiko du Francok.

OHARRAK

'SHERLOCK HOLMES' FILMA

Sherlock Holmes. Juegos de sombra filma izango dute helduek aste bukaeran: gaur eta bihar (22:00); domekan (19:30); eta astelehenean (16:00).

'ALVIN Y LAS ARDILLAS 3' UMEENDAKO FILMA

Urtxintxa bihurrien azken abenturak izango dituzte umeek bihar eta etzi (17:00).

'LA FUENTE DE LAS MUJERES' FILMA

Emakumeen Nazioarteko Egunaren bueltan antolatu dute martxoan eguenetako zinekluba, eta Radu Mihaileanu errumaniar jatorriko zuzendari frantsesaren filma emango dute hilaren 15ean (19:30). Hainbat sari jasotako filma da.

ARTERIETAKO HIPERTENTSIOA BERBAGAI

Ezagutu eta kontrolatu arterietako hipertentsioa berbaldia egingo du Alberto Montero medikuak martxoaren 27an, martitzena (19:00).

EMAKUMEEN GAINEKO ARGAZKI ERAKUSKETA

Emakumeak protagonista izaneko argazki erakusketa dago martxo osoan Arkupeko erakusketa aretoan. Aretxabaletako emakumeak dira protagonista, sasoi batekoak eta oraingoak: lanean, kirolean, kultura ekimenetan…

ATXABALTA LEHIAKETA

Hartu parte eta irabazi hainbat sari

Loramendi

13. Aretxabaletako Isurieta auzoko zein baserritako armarriri gehitu zitzaion, bertako semea Navas de Tolosako gerran egotearren, urrezko sei kate-maila zuen bordatura?
a) Ugalde-enea b) Isurieta Azpikoa c) Isurieta Aurrekoa
d) Isurieta Garaikoa
14. Noiz erabiltzen da esamolde hau? *San Pedro bolotan dabil.*

Erantzunak eta zure datuak (moztu azpialdea) Loramendi Elkartera ekarri (16:00-20:00) edo bidali hona: Aretxabaletako 96 posta-kutxa edo *lehiaketatxabalta@gmail.com*.

13:____ 14:_____
Izen-abizenak:_____ Tel.: _____
Azken eguna: martxoaren 16a.

Aurreko galderen erantzunak:
11: Abadearen neskameari.
12: c) zaztar.

Basotxo erretiratuen elkartean egindako batzar bat. | M.A.

'Immigrazioa gurekin dago eta gu gara' hitzaldia eguenean

Basotxo erretiratuen elkarteak antolatu du, Udalarekin batera, eta hausnarketa eragin gura du

MIRARI ALTUBE | ARETXABALETA

Basotxoko kideak duela hilabete batzuk hasi ziren immigrazioaren gaineko hausnarketa egiten. Lehenik, 40ko, 50eko eta 60ko hamarkadetan Aretxabaletara bizi izatera etorritako erretiratuen iritziak jaso zituzten inkesta bidez, eta gero, eztabaida mahaia antolatu zuten.

Orain, bigarren pausoa emango dute: egun datozen etorkinen bizipenen berri jasotzea, hain zuzen ere. Hala, hausnarketa eragin gura duen berbaldia antolatu dute, Udalarekin elkarlanean. Erretiratuendako ez ezik, herritar guztiendako ere izango da saioa: eguenean, hilak 15, egingo dute, Arkupen.

Etorkinen bizipenak ezagutu

Immigrazioa gurekin dago eta gu gara izenarekin antolatutako saioaren helburua hauxe da: egungo etorkinen egoera ezagutzea; oraingoen eta sasoi baten etorritakoen egoerak alderatzea; eta kanpotik datozenei harrera egin eta elkarrizketa bultzatzea.

Pedro Etxebarria Basotxoko zuzendaritzako kideak aurkeztuko du ekitaldia, eta duela hilabete batzuk immigrazioaren gainean egindako eztabaidamahaiaren ondorioak azaldu. Gizarte Zerbitzuetako zinegotzi Maider Aizkorbek Udalaren jarreraren berri emango du: immigrazioaren gaineko politika; helburuak; eskaintzen dituzten zerbitzuak; horien erabilera…

Eta hitzaldia borobiltzeko, azken urteotan guregana etorritako hiru lagunek bizitakoaren berri emango dute: etortzeko arrazoiak; itxaropenak; gurean jasotako harrera; zailtasunak… Hain zuzen ere, saharar bat, portugaldar bat eta kolonbiar bat izango dira.

"Gure helburua ez da, inondik ere, eztabaida bultzatzea; gure helburua da entzutea, sentitzea, sasoi batean bizi izandako gure egoera eta oraingoena alderatzea eta Udalak immigrazioaren kontuarekin nondik jotzeko asmoa duen ezagutzea", diote hitzaldia antolatu duten Basotxoko kideek, eta gaineratu: "Geu edo geure arbasoak ere etorkin izan ziren, eta orain, beste batzuk datoz gure artean bizi izatera".

Atxorrotz kultura ondare izendatu dute dagoeneko

Jaurlaritzak dekretuz hartu zuen erabakia martitzeneko gobernu kontseiluan

MIRIAN BITERI | ESKORIATZA

Atxorrotz kultura ondare da dagoeneko. Eusko Jaurlaritzako Gobernu Kontseiluak dekretuz erabaki zuen joan den martitzenean Atxorrotzeko Gazteluaren Gune Arkeologikoari monumentu kategoria ematea.

Izendapena Atxorrotzen babesa ziurtatuko duen figura legala da. Babesguneak mugatzearekin batera, Jaurlaritzak bi eremu zehaztu ditu: hain justu ere, tontorra eta behealdean dagoen aisialdigunea. Eta hemendik aurrera ingurune horretan han egin daitezkeen ekintzak mugatu ditu. Ermita inguruko eremua da garrantzitsuena, eta, hortaz, horretan ezarri dira neurri zorrotzenak: hain justu, ekintza kulturalak bakarrik egin ahal izango dira han, eta, beharra izanez gero, ermita zutik mantentzeko lanak, besterik ez. Bigarren eremuan, ostera, basogintza eta abeltzaintza jarduerak baimenduta egongo dira, baina mugekin egin ahal izango dira horiek ere. Horretaz gain, Gipuzkoako Diputazioak ingurunean egiten diren ekintza guztiak baimendu beharko ditu, eta Jaurlaritzari jakinarazi.



Jaurlaritzak bi babesgune izendatu ditu. | JAURLARITZA

Eskoriatzako Udalak orain dela urtebete egin zuen Atxorrotz kultura ondare deklaratzeko eskaera, eta Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak joan den urteko irail amaieran eman zion espedienteari hasiera; gazteluak balio historikoa duela eta kultura aldetik ondasun interesgarria dela arrazoitu zuen orduan monumentu izendatzeko espedienteari hasiera emateko.

Uste baino lehenago

Izendapena aurtengo irailerako espero zuten Udalean, baina lehenago heldu da. Horren harira, Ibarraundiko teknikari Nerea Aranak azaldu digu ez zutela horren goiz espero, eta, hortaz, harrituta geratu direla Jaurlaritzaren azkartasunarekin. "Sorpresa" bai, baina baita poza ere, kasu egin dietelako eta Atxorrotz babestuta geratzen dela izendapen horrekin.

Alde zaharra eta megalitikoak

Atxorrotzez gain, Eskoriatzan badaude beste hainbat toki babestuak daudenak. Horren harira, Aranak gogorarazi digu bi multzotan daudela horiek banatuta: alde batetik, monumentu moduan kalifikatuta daudenak daude; hain justu ere, Eskoriatzako alde zaharra monumentu multzo bezala dago sailkatuta, eta monumentu megalitikoak ere babestuta daude udalerrian: Asuntzeta mendebaldea eta ekialdea, Puntiaga eta Alabitarteko tumuluekin batera, Mugarriluzeko zutarria ere monumentu megalitiko moduan babestuta daude. Orain Atxorrotz ere gehitu behar zaio monumentu moduan kalifikatuta daudenei. Bestetik, monumentu moduan inbentariatuta daudenak daude. Bi eremu daude horren barruan: Apotzaga elizateko hilerria eta Zubiateko labea.

Espeleologia erakusketa Inkernun eta Mirentxun

M.B. | ESKORIATZA

Espeleologiarekin lotutako argazki ikusgarriak erakusgai jarriko dituzte gaur, egubakoitza, herriko Inkernu eta Mirentxu tabernetan. Arrasate-Oñati espeleologia taldekoek utzitako irudiak dira horiek; erakusketa horren ardura duen Gartxot Zubizarretak jakinarazi digu, denera, 11 argazki direla, eta horietan lur azpiko galeriak eta eskaladakoak azaltzen direla, besteak beste. Gaur arratsalderako jarri nahi dituzte irudi horiek esandako bi tabernetan; hilaren 18ra arte egongo dira argazkiak ikusgai.

'Uraren bidea'

Argazki erakusketa ez da Arrasate-Oñati espeleologia taldekoek Eskoriatzan egingo duten ekintza bakarra. Martxoaren 16an, taldeak egindako *Uraren bidea* izeneko bideo emanaldia egingo dute. Kultura etxean izango da hori, 19:00etan. Taldeak azkeneko bi urteotan Oñatin, Aretxabaletan eta Arrasaten egindako esplorazio eta lanak biltzen dira.

OHARRAK

ZALDIBAR BARRUTIK IKUSI

Martitzenean, hilak 13, Zaldibar antzokia bisitatzeko izena eman daiteke gaur arte. Interesa dutenek 943 71 46 88 telefono zenbakira dei egin edo *komunikazioa@eskoriatza.net* helbidera idatz dezakete. Udalak bi bisita gidatu antolatu ditu proiektua eta orain arte egindako lanak gertutik ezagutzeko: lehenengoa 18:30ean izango da eta bigarrena, 19:30ean. Bakoitzak 20 minutu inguru iraungo du.

KARAOKEA LUDOTEKAN

Gaur, egubakoitza, karaokea izango dute Tortolis ludotekan, 18:00etan. Bazkide eta bazkide ez direnei dago zuzenduta esandako ekimena. Horrez gain, eguenean, hilak 15, txotxongiloak egiten ikasiko dute umeek, ordu berean.

KIROL HITZORDUAK

Bihar, zapatua, hiru norgehiagoka daude kiroldegian: 10:30ean, saskibaloian Eskoriatzako gazteak Easoren kontra lehiatuko dira. Arratsaldean, ostera, areto futbola dago. 16:00etan, gazteetan, Eskoriatza eta San Prudentzio; eta 18:00etan, lehenengo erregionalean, etxekoak eta Boca Seniors.

DANTZA ETA HANKAPALUAK

Gaztelekuan dantzak izango dituzte bihar, zapatua, 18:00etan; eta etzi, ordu berean, hankapalu ikastaroa.

Igor Artzuaga eta Luis Vil arabarrak. | GOIENA

Igor Artzuagaren eta Luis Vilen proiektu berria gaur Inkernun

M.B. | ESKORIATZA

Asteon ere kontzertua dago Inkernu tabernan. Igor Artzuagak eta Luis Vilek batera egindako *Mara-mara* izeneko lana aurkeztuko dute, 22:30ean; betiko moduan, debalde izango da kontzertu horretarako sarrera.

Igor Artzuagak sortutako kantuen bilduma aurkeztuko dute; horretan Luis Vilen parte-hartzea funtsezkoa izan da, bai ekoizpenean eta baita moldaketetan ere. Bien artean instrumentazio aberatsa eta zaindua (gitarra gordinak, akordeoia, pianoa, aho-soinua eta perkusioak, besteak beste) duen diskoa osatu dute; kantu guztiak azpian bakoitzaren eraginak jasotzea lortu dute, koherentziari eta osotasunari uko egin gabe. Euskarazko hamar kantu dituen lanak pasodoblea, AEBen eta Mexikoren arteko mugaldeko doinuak, country-folka, rock gordina, pop doinuak eta kabaret kutsua ditu, besteak beste.

Igor Artzuaga laudioarrak Exkixu talde ezagunean eta Mikel Urdangarinen lehen diskoetan parte hartu zuen, bakarkako kantu egile ibilbideari ekin zion arte. Aiarako Luis Vilek ere ibilbide luzea du: Ironic Cancer Phobia, Triturbo, Drellas eta Ricoamor taldeetan ibilia da, bakarrik ibiltzen hasi zen arte.

Izena zabalik bikoteen gaineko tailerrerako

M.B. | ESKORIATZA

Eskoriatzako Udaleko Gizarte Zerbitzuak *Bikoteko gatazkak, krisia edo aukera?* tailerra antolatu du, eta martitzenera arte luzatu du izena emateko epea (hilak 13). Parte-hartzea doan da, eta interesatuek 943 71 31 36 telefono zenbakian eman behar dute izena.

Tailer horren helburua gatazkak modu eraginkorrean kudeatzen ikastea izango da; bereziki, bikote-gatazkak. Gipuzkoako banandutako gurasoen elkarteko adituek (AGIPASE), besteak beste, zertarako erabili ahal ditzakegun, gatazka baten aurrean zer egin eta gatazkaren erdian nola komunikatu azalduko dute.

Umezaintza zerbitzua

Hiru saio egingo dituzte: hain justu ere, martxoaren 14an, 21ean eta 28an. Kultura etxean izango dira horiek, 18:00etatik 19:30era. Udaletik jakinarazi dute umezaintza zerbitzua egongo dela tailerrak irauten duen bitartean.

2012ko aurrekontua onartu dute osoko bilkuran

EAJk aurkako bi boto eman arren, ez dutela inpugnatuko azaldu dute

MAIDER ARREGI | ANTZUOLA

Bilduren aldeko zazpi botori esker 2012rako aurrekontua onartuta geratu zen martitzeneko osoko bilkuran. EAJko bi ordezkarik aurka bozkatu zuten eta alderdi sozialistako Carlos Urrestaratzu zinegotzia ez zen azaldu.

Jeltzaleek adierazi zutenez, ez daude ados Udal Gobernuak aurtengo aurrekontua landu duen moduarekin. "Ez dituzte ordenatuta eta behar den moduan bidali aurrekontuak. Gainera, ez dira inolako udal batzordetatik pasatu eta guk ez dugu osokora etorri aurretik zirriborrorik jaso. Akatsak ere ikusi ditugu; esaterako, inbertsioen eranskina ez zetorren bat seigarren kapituluko diru kontuekin, hau da, inbertsioen kapituluarekin", azaldu zigun Maria Eugenia Arrizabalagak. Baina EAJk aurkako botoa eman arren ez dituztela aurrekontuak inpugnatuko, ez dietela kontra egingo, gaineratu zuen.

Mikel Jauregi Bilduko zinegotziak gardentasun osoz jokatu dutela azpimarratu du: "Oso landuta daude aurrekontuak. Udaletxean urtetan lanean dabiltzanen laguntzarekin, talde lanean egin ditugu. 2010eko eta 2011ko aurrekontuak kontuan izanda egin ditugu 2012koak. Zerbitzuak mantendu eta kalitate onean eskaini gura ditugu zerbitzu horiek, gasturako kapazitate handirik ez dugun arren; diru-laguntzen zain ere bagaude inbertsioak egiteko".

Diru-sarreren hazkundeari dagokienez, EAJk ez duela "normaltzat" ikusten azaldu zuen: "Sarreretako hainbat kapitulutan gehikuntza handia izan dela ikusi dugu; ez da normala urte batetik bestera horrelako partidetan hazkunde hori izatea".

Onartutako aurrekontua

Guztira, 2.505.769 euroko aurrekontua izango du Udalak 2012rako. Etxebizitza eta hirigintzarako 489.595 euro bideratuko dira, %19,54. Gizarte sustapenerako 472.943 euro, %18,87. Inbertsioei dagokienez, 125.600 euro bideratuko dituzte. Iaz baino 36.309 euro gehiago; izan ere, 89.291 euroko inbertsioa egin zuten 2011. urtean.

Agintaldi honetako erronkari dagokionez, Jauregik nabarmendu du hiru urte barru zorpetze maila jaitsi gura dutela. "Gauzak bere unean ordainduta izatea da helburua, eta ondoren datozenek zorpetze txikia izatea, arnasa har dezaten".

Bestelako erabakiak

Bestalde, etxebizitza tutelatuen eta eguneko zentroaren kudeaketa Bideberri mankomunitateari uztea onartu zuten. EAJ abstenitu egin zen arren, esleipena egiteko pleguei, aldiz, baiezkoa eman zien.

Bestetik, Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia onartzeko proposamena eta gazte txokoaren, gimnasioaren eta Torresoroko eraikinaren alokairuak berritzea onartu zituzten.

Bilduko zazpi kide eta EAJko bi batu ziren osoko bilkuran, martitzenean. | M.AIDER ARREGI

OHARRAK

ATEZ ATE
Atez atekoaren jarraipen batzordeak bilera egingo du martxoaren 15ean, 18:30ean, Olaranen.

INKESTA
Mairuaren Alardeari buruzko inkesta gaur egun osoan kalean.

FUTBOLA
Antzuolak Zumaiaren aurka jokatuko du zapatuan, 16:00etan.

Emakumeen eskubideen aldeko murala egingo dute

Gaur, genero berdintasunaren eta emakumeen eskubideen aldeko mural parte-hartzailea egingo dute, 18:00etan, Herriko Plazan. Bestalde, Martxoaren 8ko kartel lehiaketako lanak ikusgai izango dira martxoaren 10ean eta 11n eta martxoaren 17an eta 18an Olaranen, 18:30etik 20:30era.

Oinarrizko informatika ikastaroa erretiratuendako

Hilaren 26tik 30era bitartean eskainiko dute informatika ikastaroa, 16:00etatik 18:00etara. Hilaren 15a da izena emateko azken eguna, erretiratuen tabernan. Horrez gain, Oñatiko erretiratuen elkarteko kideek antzezlana eskainiko dute 17:00etan, Torresoroan, hilaren 15ean.

Andoni Larrañaga | Diseinugilea

"Sormena eduki behar da, baina 'txispa' etortzen denean, hobe lanean bada"

M.A | ANTZUOLA

Andoni Larrañagak badu eskarmentua diseinuaren arloan. Iaz udan egindako umorezko publizitate kanpaina batengatik saria jaso berri du antzuolarrak Madrilen.

Andoni Larrañaga, Madrilen. | ADAKI

Nolatan kanpaina hau?
Barne kanpaina bat izan zen. Langileok ekain gogorra izan genuen, eta askatzeko asmoz egin genuen, oporrak bazetozela iragarrita. Ez genuen *Smile Festival* lehiaketara aurkezteko asmoz egin. Erlaxatzeko eta ondo pasatzeko egin genuen, bezeroei oporrak hartzen genituela esanez. Irailean, aldiz, ikusi genuen jaialdira aurkez genezakeela.

Nolako esperientzia izan da?
Oso esperientzia polita izan zen. Denok joan ginen Madrilera saria jasotzera. Estatu mailako oso agentzia indartsuak izan ziren bertan. Lanak kalitate handikoak ziren. Jende asko ezagutu genuen!

***Verano azul* du izena lanak.**
Profil aproposa du *Verano azul* -ek. Jende askok ezagutzen du eta musika ere berehala identifikatzen da. Oporrekin lotzen du jendeak. Gainera, sare sozialetan egindako deialdiari esker, garai hartako bizikletak lortu genituen grabaziorako. Sarrera asko izan ditugu *www.adaki.com* helbidean.

Ze estilotako lana egiten duzue?
Oso jende ezberdinak osatzen dugu lantaldea, denetarik egiten dugu. Gainera, bezeroari egokitu egin behar dugu. Nork bere estiloa markatzen du, baina bileretan zehazten dugu.

Sormen lana nolakoa da?
Sormena eduki behar da, baina ideia edo *txispa* etortzen denean, hobe lanean egotea. Lan prozesua da, *brifing*-a egin behar da aurrena. Bezeroak zein produktu saldu edo komunikatu nahi duen esaten digu, aurrekontu jakin batekin. Horren arabera egokitzen gara. Lineak erabaki, eta bezeroari aurkezten diogu. Ados badago *brifing*-arekin, estrategiarekin, aurrera egiten dugu eta sormen lana hasten da. *Brainstorming*-arekin hasten gara, eta gero, bezeroari aukera pare bat aurkezten dizkiogu.

Jendea ausartzen da?
Oso gutxi arriskatzen dira, orokorrean. Guk proposamen ezohikoak egiten ditugu, baina ez dira askotan irteten.

Sortzailerik badago hemen?
Bai, Euskal Herrian agentzia indartsuak eta oso jende ona dago, ez dago kanpora joan beharrik lan onak ikusteko.

Dena asmatuta dago?
Beti egin daitezke gauza berriak. Lehengo gauzei beste ukitu bat ematen zaie orain, adibidez; nostalgiarekin eta gai sentimentalekin lotutakoak.

Sariak lortu dituzue...
Publi Festival-en, Diputazioarendako ekologia lan batengatik saria eskuratu genuen. Baita webguneak egiteagatik ere: Buber saria.

Ze proiektu dituzue orain?
Gipuzkoa barrualdeko turismo bulegoendako webgunea egiten ari gara. Baita enpresendako irudi korporatiboak: Fagor Automationen webgunea...

"Bideoan erabili ditugun bizikletak Twitter bitartez lortu ditugu"

GAILUR
taberna eta gozotegia
Buztinzuri 13 ANTZUOLA
Tel.: 943 78 70 32

MUJIKA HARATEGIA
Berezitasunak: Etxean hazitako zekorrak eta oilaskoak
Kalebarren 1
ANTZUOLA
Tel.: 943 76 64 34

LARREA
TABERNA
Kalebarren 17
ANTZUOLA

EGAÑA
Era guztietako arotz lanak
Tarima eta parketa jartzea
Zoruen kutxilatu eta barnizatuak
Kalegoi 21, ANTZUOLA Tel.: 943 76 64 23

Zuhaitz Eguna giro onean igaro dute ikasleek

J.B. | ARAMAIO

San Martin eskolako Lehen Hezkuntzako ikasleek Zuhaitz Egun a ospatu zuten eguaztenean. Urtero moduan San Adrian baselizaren inguruan egin zuten landaketa. Irteeran parte hartu zuen Lierni Altuna alkateordearen arabera "oso ondo" joan zen eguna: "Oso gustura ibili gara", adierazi du. Hainbat zuhaitz landatu ostean hamaiketakoa egin zuten, giro ederrean.

Ikasleak zuhaitzak landatzen. | L.A.

Lehen Hezkuntzako ikasleak

Lehen Hezkuntzako ikasleen artean 3., 4., 5. eta 6. mailakoek egin zuten irteera. Autobusa hartu zuten San Martin eskolan eta kurtzetara igo ziren. Zuhaitzak landatu eta hamaiketakoa egin ostean ikasle guztiak jaitsi ziren autobusez, hirugarren mailako ikasleak ezik.

Izan ere, azken horiek Zuhaitz Eguna beste gai batekin lotu eta San Kristobalen geratu ziren.

Kontsumorako prestakuntza hizpide izango dituen hitzaldi sorta Sastiñan, Alaiak elkartearen eskutik

Alaiak erretiratu elkartearen eskutik eta Eusko Jaurlaritzako Kontsumobide Institutuak antolatuta, kontsumorako prestakuntza hizpide izango duen hitzaldi sorta eta tailer praktikoak egongo dira datorren astean Sastiñan.

Hitzaldiak hilaren 13an eta 14an izango dira (17:00). Lehenak erosketa arduratsuak izango ditu berbagai eta tailer praktikoa lehenago egingo da, hilaren 12an (17:00). Bigarren hitzaldiak, berriz, elikadura eta nutrizioa izango ditu hizpide eta tailer praktikoa hilaren 15ean egingo da (17:00).

Haur zein gurasoak ederto ibili ziren patinaje ikastaroaren lehen saioan, joan den domekan. | AIZPEA AJURIAGERRA

Patinajea, eskolako haurren harremana sendotzeko aitzakia

Guraso elkarteak aurten ere antolatu du ikastaroa; datozen bi domeketan ere batuko dira kiroldegian eta hilaren 25ean Gasteizko izotz pistara joango dira

JOKIN BEREZIARTUA | ARAMAIO

Iazko arrakasta ikusita aurten ere patinaje ikastaroa antolatu du San Martin eskolako guraso elkarteak. Aizpea Ajuariagerra gurasoaren arabera, haurrek patinatzen ikasteaz gain, eskolako haur eta gurasoen arteko harremana sendotzea ere badu helburu ekimenak: "Eskolaz kanpo ere elkartzeko aitzakia da, beti ere ondo pasatzea helburu dugula". Joan den domekan egin zuten aurtengo lehen saioa eta arrakasta borobila izan zen: "Haurrak zein gurasook oso gustura ibili ginen, denok pozik", dio Ajuriagerrak.

55 bat lagunek eman dute izena. Lehen saioan ez ziren denak agertu, Lilaton lasterketa zela -eta ama batzuk eta horien seme -alabak Donostian izan zirelako. Hala ere, parte hartzea altua izan zen.

Gurasoak zein haurrak irakasle

Ikastaroa hiru taldetan banatu dute. Lehen taldean, Haur Hezkuntzako umeek lehen urratsak egiten dituzte patinen gainean. Bigarren taldean 12 urtera arteko ikasleak daude eta horiek ariketa ezberdinak egiteko gai dira patinen gainean. Azkenik, hirugarren taldean gurasoak dira protagonista. Gurasoen artean ere ere denetarik dago: "Batzuk hasiberriak dira, beste batzuk iaz egin zuten ikastaroa eta badaude trebeak diren beste guraso batzuk", dio Ajuarigerrak. Gurasoek eta trebeak diren ikasleek egiten dituzte irakasle lanak.

Gasteizerako autobusa bete

Etzi eta hilaren 18an ere Aramaioko kiroldegian elkartuko dira eta ikastaroarekin amaitzeko Gasteizko izotz pistara joango dira martxoaren 25ean: "Iaz bete egin genuen autobusa Gasteizera joateko eta aurten ere hala izatea espero dugu". Bestalde, ikasturtea amaitu aurretik mendi irteera bat antolatu gura dutela adierazi digu Ajuriagerrak.

GOIAZ! Debagoieneko Lanbide Heziketaren Azoka 2012 Apirilak 19-20

LANBIDE HEZIKETAKO ESPERIENTZIAK EZAGUTUZ

"Lan arloan hobetzeko ikasi nuen goi mailako heziketa zikloa Miguel Altuna institutuan"

LANBIDE HEZIKETA - ENPRESA

- Ikasketa orduen %25 inguru enpresan bertan ematen da.
- Enpresetako praktikek lan merkatua eta enpresen beharrak ezagutzeko aukera ematen dute.
- Ikasle asko praktikak egin dituzten enpresan bertan gelditzen da lanean.

ESKAINTZA ETA ESKAERAREN LOTURA

- LHko ikasleek lana topatzeko batazbesteko denbora 26,7 egunekoa da (2008ko promozioa). Unibertsitateko ikasketak dituztenek 8 ,5 hilabete behar dituzte lan esanguratsu bat topatu arte.

LANBIDE HEZIKETA - UNIBERTSITATEA

- Espainian, unibertsitateko matrikulazioen %8,3-a Lanbide Heziketatik datozen ikasleak dira.

DEBAGOIENEKO MANKOMUNITATEA

Lanbide Heziketaren azoka egingo dute apirilaren 19an eta 20an. Jose Fernandez aretxabaletarrak FP2 ikasketak egin zituen Aretxabaletako Lanbide Eskolan bere garaian, eta Copreci-n hasi makinari. Aurrerago Erregulazio Sistemen Goi Mailako Heziketa ziklo bat egin zuen Bergarako Miguel Altuna Institutuan. Egun Ederlan-eko mantentze-lanetarako talde-burua da.

Zer dela eta hasi zinen Lanbide Heziketa ikasten?

Makinari nenbilen Copreci-n, eta galdetu nuen mantentze-lanetarako zein aukera nituen. FP2 automozio ikasketak nituen eginak eta erantzun zidaten beharrezkoa zela goi mailako heziketa zikloa izatea. Horregatik, GMHZ bat ikasten hasi nintzen, 33 urterekin.

Nola ezagutu zenuen Lanbide Heziketa?

Bidea zehaztuta neukan, enpresaren exijentzia zelako. Miguel Altunara joan eta informazioa eskatu nuen, eta gero gainerako guztia antolatu: familia-bizimodua, laneko ordutegia...

Non egin zenituen praktikak?

Ederlan-en, lau orduko praktikak; gauez Copreci-n lan egin eta gero joaten nintzen. Ez neukan egin beharrik baina jendea ezagutu nahi nuen, erremintak, arazoak...

Lanera begira onurarik izan du Lanbide Heziketako ikasketak egin izanak?

Zalantza barik. Nik mantentze-lana gura nuen eta goi mailako heziketa zikloa egin nuen arlo profesionalean hobetzeko. Baita barne -promozioaren bidez lortu ere.

Zer hobetuko zenuke Lanbide Heziketan?

GMHZan behar den guztia ikasteko bi urte gutxi da; hiru urtetara luzatuko nuke. Eta praktikak hasieratik jarri, hainbat egunetan enpresara joanda, horrek segurtasuna ematen duelako lanean.

ITUR-ZURI EMAKUME ELKARTEA

Emakume Astea, Lilaton eta guzti

Emakume Astea gaur amaituko da San Martin eskolako bingo afariarekin (21:00). Orain arteko ekintzekin pozik daude Itur-Zuri emakume elkartekoak eta nabarmendu dute aurten nobedadea izan dela Aramaioko taldetxo batek Donostiako Lilaton lasterketan parte hartu duela: "Oso egun polita igaro genuen, talde giroan, eta oso giro onarekin. Aupa Aramaioko neskak!", adierazi digute goiko argazkian agertzen direnek.

ELGETA

Bildu haserre 2012rako Aralarrek egindako murrizketa proposamenarekin

Egokiago ikusten dute Asentzioko proiektua, oraingoz, alde batera uztea

LARRAITZ ZEBERIO | ELGETA

"Ulergaitza suertatzen zaigu herritarrei zerbitzuak murrizteko proposamena mahai-gainean jartzea, Udalak beste arlo batzuetan murrizteko aukera daukala jakin dakigunean", esan dute asteon Bilduko ordezkariek.

Bi batzorde-burutzak uzteko erabakia otsaileko Ogasun batzordean Aralarrek aurkeztutako murrizketa proposamenaren haritik datorrela azaldu dute. Bertan, Foru Funtseko dirua bueltatzeko 2012ko aurrekontutik 52.758 euroko murrizketa egin behar zela azaldu omen zitzaien, baita murrizketa proposamen bat aurkeztu ere.

Proposamen horrek Bilduri onartezinak egin zitzaizkion zenbait murrizketa jasotzen zituen, hala nola UEMAtik irtetea (5.907 euro), urritik abendura arteko kirol zerbitzua murriztea (5.549 euro) eta herriko mendien mantenurako diru-lerroa kentzea (2.000 euro). "Proposamen hori plenoan aurkeztuko zela esan zuten, onartua izateko, eta Aralarren eta EAJren oniritzia jaso zuen", dio Bilduk.

Asentzioko proiektu bat, berriz ere, desadostasun iturri. | L.Z.

Bilduren proposamena

Foru Funtsari aurre egiteko Asentzioko proiektua, oraingoz, alde batera uzteko proposamena egin zuen Bilduk. "Egia da, bai, helduko den dirulaguntza 168.000 eurokoa dela, baina kopuru horrekin itsutu beharrean beste zifra bat azaldu gura genuke: 65.000 euro. Hori da Elgetako Udalarendako proiektu horrek suposatuko leukena", azaldu dute. "Gerrikoa Udalak estutu ahal duenean herritarren zerbitzuei estutzea kapritxotsua izatea deitzen diogu". Udal Gobernuak ematen dien konfiantza gutxienera ere heltzen ez dela ikusita, batzorde-burutzak uztea erabaki dutela jakinarazi dute.

Ulertu ez, errespetatu bai

Bilduren adierazpenen aurrean Oxel Erostarbe alkateak aurreko astean esandakoa errepikatu du; "Ulertu ez arren, errespetatzen dugu Bilduren erabakia". Erostarbek azaldu du krisi egoera dela-eta 2012ko aurrekontuak onartu zituztenean zeuzkaten aurreikuspen batzuk aldatu egin direla, eta murrizketak egin beharko direla. Oraindik, baina, Udalak ez duela murrizketa horien inguruan erabakirik hartu esan du. "Bilduk erabakia hartu aurretik utzi ditu bi batzorde-burutzak".

Emakumeen eskubideen aldeko murala egingo dute gaur plazan

L.Z. | ELGETA

Genero berdintasunaren eta emakumeen eskubideen aldeko murala eraiki nahi du Udalak gaur, barikua. Herriko Plazan egingo dute, 18:00etan hasita. Bertan izango dira gaztelekuko, gaztetxeko, erretiratuen elkarteko eta guraso elkarteko ordezkariak. "Hala ere, herritar guztien parte-hartzea oso garrantzitsua da", esan dute Gizarte Ongizate Sailetik. Txokolatea, musika eta festa giroa ere iragarri dituzte.

Gaztetxean kontzertua

Martxoaren 8ko jaiak gaztetxean jarraitu du 22:30ean hasita emanaldia egingo dute eta Sabur eta Toxikas taldeek. Azken hori neskaz bakarrik osatuta dago. Sarrera hiru euro da.

Erakusketa Espaloian

Eguaztenetik, bestalde, Bideberri mankomunitateak antolatutako kartel lehiaketara aurkeztutako lanak daude ikusgai Espaloian. Nerea Villak irabazi du aurten lehenengo saria —350 euro— eta Koldo Izagirrek bigarrena —150 euro.

Erakusketa domekara arte egongo da zabalik, eta bertan, lehiaketara aurten aurkeztutako sei lanak eta iaz egindako lehiaketara aurkeztutako lanak egongo dira ikusgai.

FRONTENIS TXAPELKETA

AURREKO JARDUNALDIKO EMAITZAK	
Iban Retolaza-Xabier Ubera / Mikel Zubiaurre-Danel Cusi	25-08
Adrian Gorostiza-Asier Osoro / Oskar Sarasua-Xanti Dosuna	25-10
Idoia Serna-Asier Osoro / June Dosuna-Xanti Dosune	25-11
Idoia Elkoro-Enrike Elkoro / Rebeka Ubera-Mikel Arkarazo	25-13

PARTIDUAK BARIKUAN, HILAK 9, 19:30EAN

Haritz Gallastegi-Enrike Elkoro / Andoni Elortza-Eneko Maguregi

PARTIDUAK DOMEKAN, HILAK 11, 10:30EAN

Jon Irazabal-Ibon Untzetabarrenetxea / Adrian Gorostiza-Asier Osoro
Rebeka Ubera-Mikel Arkarazo / Maite Mandaluniz-Jabier Larrañaga
Hodei Zenitagoia-Mikel Beretxinaga / Oskar Sarasua-Xanti Dosuna

200 lagunetik gora domekako mendi irteeretan

L.Z. | ELGETA

Euskal Mendizale Federazioak Ibiltarien Jaia egingo du domekan, hilak 11, Elgetan. Bi mendi ibilaldi iragarri dituzte: luzea 08:00etan abiatuko da kiroldegitik eta motza 09:15ean Kanpanzartik. Bada, 200 lagunetik gora espero dituzte irteera horietan. 14:15ean, iraupen luzeko ibilaldien 10. zirkuituko sariak banatuko dituzte Espaloian.

Intxortako ibilbide tematikoa ezagutzera, berriz, 40 laguneko taldea dator Urretxu -Zumarragako gaztetxetik.

Lanak egiteko, antzokia itxita astelehenetik hilaren 22ra arte

L.Z. | ELGETA

Otsaila ezkero Ibon Virumbrales eta Iker Ballarin dira kafe antzokiko ostalaritza kudeatzaileak, eta, zerbitzua hobetzeko asmoarekin, antzokian zenbait aldaketa egitea erabaki dute. Martxoan egin gura dituzte lan horiek, eta, lehenbailehen egin ahal izateko, Espaloia pare bat astez ixtea erabaki dute.

Domeka gauean, martxoaren 11n, itxiko dute antzokia, eta, hasiera baten, ez dute hilaren 23ra arte zabalduko. Epe horretan, antzokiko dekorazioan hainbat aldaketa egingo dituzte. Gainera, goiko jantokia itxi eta intsonorizatu egin nahi dute, eta aretoa beste kolore batzuekin margotuko dute. Sukaldean parrilla ere ipiniko dute. "Zerbitzua handitzea eta hobetzea da gure asmoa, bezeroei eskaintza hobea egiteko. Horregatik lanok", esan du Espaloiko Ibon Virumbralesek.

Ikus-entzunezkoa, atzeratuta

Kafe antzokia itxita egongo denez, eguenerako, martxoak 15, iragarritako Jesus Guerraren *Atlantikoko zeharkaldia* ikus-entzunezkoa bertan behera geldittzen da. Hala, berritutako aretoan erakutsiko du Guerrak ikus-entzunezkoa.

Zapatuan abiatuko da 2012ko Gipuzkoako hiru txirlo txapelketa

Hamar jardunaldi izango ditu aurten Gipuzkoako hiru txirlo txapelketak, eta zapatuan, martxoak 10, egingo dute lehenengoa Azpeitiko Garmendipen. Elgetak ordezkaritza izango du aurten ere txapelketa horretan, nahiz eta argitzeko dagoen zenbat bolari izango diren eta zenbat talde osatuko diren. "Kontu horiek lehenengo jardunaldian finkatzen dira", adierazi du Elgetako Sebas Arantzabalek.

Argi dagoena da txapelketako jardunaldi bat Elgetako bolatokian jokatuko dela. Maiatzaren 19ko jardunaldia izango da, zortzigarrena.

Erretiratuek urteko batzarra egingo dute datorren barikuan

Xalbadorpe elkarteko kideek martxoaren 16an, barikua, egingo dute urteko batzar orokorra. Ozkarbi elkartean egingo dute, 17:30ean hasita. Zuzendaritza batzordeak, besteak beste, 2011ko balantze ekonomikoa aurkeztuko du, baita ekitaldi berrirako aurreikusitako ekintzen azalpena eman ere. Amaieran pintxoak banatuko dituztela jakinarazi dute.

Bezperan, martxoak 15, podologo zerbitzua egongo da erretiratuendako; martxoko bisita, hain zuzen ere. Txanda hartzeko, deitu Nati Arrietari: 943 76 80 77.

LEINTZ GATZAGA

Mundumira jaialdian postua jartzeko eskaera-epea zabalik dago

MIRARI ALTUBE | LEINTZ GATZAGA

Maiatzaren 18tik 20ra bitartean Gatzagan ospatuko den Mundumira jaialdiko artisautza azokan postua jarri gura dutenek zabalik dute izena emateko epea –*info@ginmusica.com* edo posta bidez Ginmusica: Peña eta Goñi 16, behea, 20002, Donostia–. Apirilaren 27a izango da horretarako azken eguna eta eskaera-orria Udalaren webgunean eskura daiteke: *www.leintzgatzaga.com*.

Antolatzaileek iragarri dute epez kanpo izena emandako eskaerarik ez dutela onartuko; ezta azokan aurretik onartua izan ez den saltokirik ere. Eskaera guztiak jasotakoan, jaialdiaren antolatzaileek aukeraketa egingo dute. Aukeratzeko orduan kontuan hartuko dituzte: erabiliko den espazioa; eskainitako produktua; artisautza mota eta teknika ezberdinen sustapena; material birziklatuen eta ekologikoen erabilera; artisau agiria izatea; eta jaialdiaren filosofiarekin bat egitea.

Onartuen eta baztertuen zerrenda apirilaren 30ean argitaratuko dute jaialdiaren webgunean –*www.mundumirafesta.com*–. Aukeratuak izan direnek, gero, 20 euro ordaindu beharko dituzte lekua bermatzeko.

'Whisky' filma emango dute gaur (19:00) kultur etxean

Jaurlaritzak abian jarritako *Puntuetan* ekimenari esker, *Whisky* filma (2004, Uruguai, 108 minutu) emango dute gaur kultur etxean (19:00). Ekimen horren helburua da film independenteak, zirkuitu komertzialetik kanpo geratzen direnak, herri txikietara eramatea, eta Uruguaiko istorioa iritsiko da gaur Gatzagara.

'Sorginek' elkarrekin bazkalduta ospatuko dute Martxoaren 8a

Emakumeen Nazioarteko Eguna izango dute gogoan Sorginak elkarteko emakumeek, eta, hori ospatzeko, Gure Ametsa jatetxean elkartuko dira bihar. Urtero legez, bazkari ederra gertatuko diete bertan, eta, musika eta umore ona lagun, aparteko giroa sortuko dutela iragarri dute Gatzagako *sorginek*.

Anton Elortza. | I-GOITIA

TXIRRINDULARITZA

Anton Elortza
| Itzuliko antolatzailea

"Bi urte hauetan finantzazio berria bilatu beharko da"

X.U. | ARRASATE

Astelehenean lasai egin ahal izan zuen lo Euskal Herriko Itzuliko antolatzaile taldeko kide Anton Elortzak. Lasterketa bertan behera geratuko zela iragarri baino ordu batzuk lehenago azaldu zen babeslea, banketxe bat.

Txiripaz izan da.

Orain esan duzu ondo, txiripaz, txiripaz. Baina pozik gaude beste bi urtez lasterketa egin ahal izango delako.

Hilabete geratzen da. Lanpetuta ibiliko zarete aurrerantzean.

Bai. Egia da herrietan egin beharreko lanak oso aurreratuta genituela, baita Oñatin egin beharrekoak ere. Baina azken erabakia jakin arte kontu batzuk geldi izan ditugu, eta orain amaituko ditugu denak.

Baina atzean badago arazo larri bat, finantzazio falta.

Bai, hori hola da, baina bi urte hauek balioko dute babesle berriak bilatzeko, eta halako lasterketak finantzatzeko beste modu batzuk aztertzeko. Ni neu oso pozik nago Itzulia Oñatira etorriko delako.

Oñatiko Triatloi Taldeko kideak, eguazteneko aurkezpenean. | XABIER URTZELAI

DIATLOIA

Helburu garbia Oñatin, frantziarrei aurre egitea

Oñatiko duatloiak 21 urte beteko ditu; 300 atleta baino gehiago izango dira

XABIER URTZELAI | ARRASATE

Aurten ere atleta indartsuak etorriko dira mugaren beste aldetik Oñatiko duatloira (zapatua, 15:30). Laurent Galinier eta Daniel Dacquoise izango dira erreferentzia, eta hemengoak, aurrealdean ibiltzeko gaitasuna dutenak, bikote horri aurre egiteko asmoz irtengo dira.

Debagoienean aurrealdean ibiltzeko gaitasuna dutenak Ander Agirre bergararra (Antxintxika) eta Beñat Arnaiz (Saltoki) aretxabaletarra dira; frantziarrei bakarka aurre egiteko larregitxo, baina taldean lan eginez gero, "min egiteko gaitasuna badugula uste dut", adierazi zuen Arnaizek prentsaurrekoan. Euskal Herri mailako puntako atletak espero dituzte bihar –tartean Raul Amatriain nafarra, Arnaizen taldekidea. Aste barruan 300 lagunek emana zuten izena, bai gizonezkotan eta baita emakumezkotan ere. Nobedadeen artean aipatzekoa da emakumezkoak ordu laurden lehenago irtengo direla (20 lagunetik gorako taldea), eta bizikletan ezingo direla gizonen gurpilera joan. Astelehenean *Harmailatik* saioan zabal landuko dute lasterketa, gonbidatuekin.

Gipuzkoakoan, bikain

Joan den asteburuan egin zuten Eibarren Gipuzkoako Txapelketa, eta bertan lan aipagarria egin zuen Bergarako Ander Agirrek (Antxintxika). Sailkapen orokorrean bigarren izan zen, eta Gipuzkoako txapeldun. Harekin batera, beteranoen mailan Oñatiko Triatloi Taldeko Andoni Gartziak ere lehenengo postua lortu zuen.

"Distantzia arriskutsua da"

Oñatikoek Beñat Arnaitz (Saltoki) atleta aretxabaletarra gonbidatu zuten aurkezpenera; aurrean ibiltzeko hautagaietako bat da: "Frantziarrei aurre egiteko asmo garbiarekin gatoz. Baina Oñatikoa distantzia arriskutsua da; korrikako lehenengo hamar kilometroak erabakigarriak dira, suabe egiteko esaten dute batzuek, baina aurrekoek ihes egiten dute; hobe indartsu irten eta eusten ahalegintzea".

FUTBOLA

Aitor Lopez Rekartek baietza eman dio Mondrari

Realeko kapitain izan zenak baietza eman dio Mondrari. Aitor Lopez Rekarte gaur bertan hasiko da talde zuri-morearekin entrenatzen. Entrenatzaileak pozik daude Rekarteren erabakiarekin, baina ez dute uste asteburuan Rotetaren kontra jokatuko duenik; ez dute fitxa egiteko astirik izan.

Rekarte, artxibo argazkian. | X.U.

XAKEA

Arrasate-Arlutz taldeak badu aukera mailaz igotzeko

Euskal Ligako zortzigarren txandan Arrasate-Arlutz taldeak garaipen garrantzitsua lortu zuen Urnietan kontra; hala, ibarrekoek bidea zuzendu dute eta jaitsiera postuetatik urrundu dira. Bihar Zornotza indartsua izango dute aurrean; txikia bada ere, ibarrekoek badute mailaz igotzeko aukeraren bat edo beste.

ARETO FUTBOLA

UDAk Gipuzkoako lehen mailara igotzeko helburua du

Gipuzkoako bigarren mailan lider dago UDA, eta geratzen diren zortzi jardunaldietan ez dute hankarik sartu nahi. Gaur, egubakoitza, aretxabaletarrek partidu garrantzitsua dute hirugarren postuan dagoen Irudek Barrantol taldearen kontra, 20:30ean, Almenen.

HIRI HONDAKINEN KUDEAKETA

GOIENA TELEBISTA | MAHAI-INGURUA | HIRI HONDAKINEN KUDEAKETA EGOKIENA GAUR ETA HEMEN
MARTXOAK 14, 21:30 | GOIATZ ARANAK MODERATUA

PARTE HARTU
SAIOAREN AURRETIK: posta: *hondakinak@goiena.com*
ZUZENEAN: 943 25 05 03 | Twitter: traola *#hondakinak* | Goiena.net: ikusi streaming bidez eta egin galderak eta iruzkinak.
Zabalotegi aretoan, Bergaran, galderak egiteko aukerarekin.

Juan Karlos Alduntzin (Bildu), Denis Itxaso (PSE), Maria Eugenia Arrizabalaga (EAJ)
Rebeka Ubera (Aralar) eta Rafael Olaizola (PP),

ANTOLATZAILEAK: DEBAGOIENEKO MANKOMUNITATEA ETA GOIENA



DEBAGOIENDARROK DIOGUNA goiena

Ziklista mordoa, 2010eko irteeran. | JOSETXO ARANTZABAL

MENDIKO BIZIKLETA

Aramaion hasiko dute Euskadiko Openeko zirkuitua domekan

XABIER URTZELAI | ARAMAIO

Hainbat nobedarerekin eta urtikaria sortzen duten beldar barik egingo dute domekan Euskadiko Openeko lehenengo lasterketa Aramaion.

Norbaitek barre egingo du beldarraren kontura, baina iaz ziklistek, zirkuituko maldei aurre egitearekin batera, zizarearen tankerako gorputz luzexka duten larbak ere kontran izan zituzten. Txirrindulariek eta baita ikusleek ere. Hala, bat baino gehiago azalean gorritu ederra hartuta itzuli zen etxera. Aurten ez da halakorik egongo, hotz egin duelako; bestalde, iazko lasterketarekin alderatuta, domekan zirkuitua pixka bat lokaztuta egongo da –euri apur bat iragarri dute domekarako–. Nobedadeei dagokienez, nabarmenena da kategoria guztietako ziklistak batera irtengo direla (11:00)

Iazko aldaketekin aurrera

Iaz antolatzaileek proba goitik behera aldatzea erabaki zuten, eta zirkuitu berriaren aldeko apustua egin.

Igoera eta jaitsiera nabarmeneko zirkuitua alde batera utzi, eta bidezidorrez osatutako zirkuitua diseinatu zuten, Barajuen auzoan. Eta aurten aurrera egingo dute apustu horrekin –irteera Azkoagan izango da–. Ikusteko dago nork hasten duen denboraldia indartsu.

FUTBOLA

Aloña Mendik Tolosa hartuko du domekan Azkoagainen

Oñatiarrak dira ohorezko erregionalean etxean jokatuko duten ordezkari bakarrak; hala, Andoni Azkargortaren taldeak hirugarren dagoen Tolosa hartuko du domekan (16:30). Mondrak, Bergarak eta Aretxabaletak etxetik kanpo jokatuko dute [taulan ordutegiak]. Aipatzekoa da gazte mailako Euskal Ligan dabilen Aretxabaletak etxean jokatuko duen partidua. Mailari eusteko lehian, Antiguoko hartuko dute Ibarran domekan (16:00).

SASKIBALOIA

Natra Oñatik Estelaren kontra etxean eta MUk, Barañainen

Joan den astean galdu zituen Natra Oñatik kategoriari eusteko geratzen zitzaizkion aukera gehienak (68-62). Baina horren jakitun izanda ere, Zubikoako harmailak beteta daudela jokatuko dute bihar Estelaren kontra (18:00). Lehen Nazional mailan, berriz, MUk fase erabakigarria hasiko du Barañainen bihar (18:15). Autocares Artieda taldeak MUk besteko garaipen kopuruarekin hasiko du fase berria (4), eta sailkapenaren erdialdean daude.

ASTEBURUKO HITZORDUAK

FUTBOLA

LEHENENGO MAILA
Reala-Zaragoza
Zapatua. 18:00. Anoeta.

EMAKUM. BIG. MAILA
Mondra-AD Berrio Otxoa
Domeka. 16:15. Mojategi.

GAZTEEN EUSKAL LIGA
Aretxabaleta-Antiguoko
Domeka. 16:00. Ibarra.

OHOREZKO ERREGIONALA
Elgoibar-Bergara
Zapatua. 16:00. Mintxeta.
Roteta-Mondra
Domeka. 16:00. Herrera.
Pasaia-Aretxabaleta
Zapatua. 16:30. Don Bosco.
Aloña Mendi-Tolosa
Domeka. 16:30. Azkoagain.

ERREGIONAL PREFERENTEA
Antzuola-Zumaiako
Zapatua. 16:00. Estala.
Aretxabaleta B-Idiazabal
Domeka. 18:15. Ibarra.

LEHEN ERREGIONALA, IGOERA
Ikasberri-Mondra B
Domeka.16:30. Garmendipe.

ERREGIONALA, KOPA
Gazteak-Aretxabaleta C
Zapatua. 16:00. Unbe.

OHOREZKO GAZTEAK, IGOER.
Bergara-Ordizia
Domeka. 17:00. Ipintza.
Antiguoko-Aloña Mendi
Zapatua. 15:30. Berio.

EMAKUMEZKOEN IGOERA F.
Beasain-Arizmendi
Zapatua. 15:00. Igartza.

EMAKUMEAK, GAZTEAK
Eibar-Aloña Mendi
Zapatua. 14:30. Unbe.

ARETO FUTBOLA

BIGARREN MAILA
Aretxabaleta-Irudek
Gaur. 18:00. Almen.

SENIOR NESKAK
Arizmendi-Berastegi
Domeka. 11:30. Almen.

ESKUBALOIA

EUSKADIKO TXAPELKETA
Elgoibar-Soraluce BKE
Zapatua. 19:00. Olaizaga.
Egia Kata-Ford Mugarri Arras.
Zapatua. 20:00. Egiako.

EMAKUMEZKO PREFERENT.
Egia Bera Bera-Aloña Mendi
Zapatua. 18:15. Donostia.

LEHEN TERRITORIALA
Izarraitz Aloña-Irungo
Zapatua. 16:00. Zubikoa.

BIGARREN TERRITORIALA
Arrasate-Decotena Pulpo
Domeka. 10:00. Iturripe.

SASKIBALOIA

EBA
Natra Oñati-Club Dep. Estela
Zapatua. 18:00. Zubikoa.

LEHEN NAZIONAL MAILA
Autocares Artieda-MU
Zapatua. 18:15. Barañain.

GAZTEAK, EUSKAL LIGA
MU-Easo Basoa
Domeka. 18:00. Iturripe.

SENIOR MAILA, GIZONEZ
Soraluce BKE-MU
Zapatua. 16:30. Labegaraieta.

BIGARREN SENIOR MAILA
Orioko-Aloña Mendi
Gaur. 20:15. Orio.

SENIOR EMAKUMEZKOAK
Bera Bera-Eskoriatza
Zapatua. 20:00. Donostia.

DUATLOIA

OÑATIKO 21. DUATLOIA
Zapatua. 15:30. Oñatin.

MENDI BIZIKLETA

ARAMAIOKO 5. SARIA
Domeka. 11:00. Azkoagan.

ERRUGBIA

EUSKADIKO TXAPELKETA
La Unica-Arrasate
Zapatua. 16:00. Iruñea.

GAZTEAK
Durango/Arrasate-CRS
Zapatua. 15:00. Durango.

KADETEAK
Durango/Arrasate-Irun
Zapatua. 16:15. Durango.

ETXEAN KONPOSTA EGIN NAHI AL DUZU?

Konpostatu itzazu etxeko hondakin organikoak lorategian, ortuan edo zelaian!

Debagoieneko Mankomunitateak kudeatzen duen etxeko hondakinen bilketa zerbitzutik, batu eta tratatu beharreko hondakinen murrizketa lortze aldera, hondakin organikoen autokonpostatzea bultzatu nahi da.

Autokonposta egiten duenarentzako abantailak:
• Bonifikazioa zaborren tasetan.
• Ikastaro bat konposta zer den azaltzeko.
• Konpostagailua eta hondakinok batzeko eta garraiatzeko edukiontzia doan.

Murriztu dezagun hondakin kopurua!
Murriztu ditzagun hondakinen bilketa-kostuak!
Murriztu dezagun ingurumenari sortzen diogun kaltea!

Izenematea:
• Mankomunitateko telefonoa: 943 79 33 99 (09:00etatik 12:30era).
• *http://www.debagoiena.com/Ingurumena/Autokonposta*
• *autokonposta@debagoiena.net*.

ANTOLATZAILEA
DEBAGOIENEKO MANKOMUNITATEA

HONDAKINEKIN selektiboak gara.

KULTURA

'Bergarako eskola' badagoela erakusten duten artista handiak

- Bergarak artearekin izan duen lotura azaldu digute herriko artistek
- Simon Arrieta margolari handia izan zuten maisu gazte askok
- Beart Bergarako artisten elkartean 65 bat bazkide daude gaur egun

Xabier de Zerio, Bingen de Pedro, Ricardo Azkarg

ARANTZAZU EZKIBEL | BERGARA

Bergara eta artea eskutik lotuta doazela esan daiteke. Bergarako ondare artistikoa izugarria da, dudarik ez dago. Ondare hori, baina, ez da kaleetan, eraikinetan eta elizetan bakarrik nabari. Gaur egun, oraindik ere, artea bizirik dago Bergaran. Horren adibide dira herrian dauden artistak. Zaila da herri batean hainbeste margolari eta, era berean, hain maila handiko margolariak edukitzea.

'La Bascongada'-ren eragina

Bergarako margolarien gainean zerbait gehiago jakiteko asmoarekin Luis Laskurainengana jo genuen. Hark esan zigun Bolu auzoan tailerra duten hainbat margolari daudela. Hori ez da ohikoa izaten. Bergaran dagoen maila handiaren erakusle da, hain zuzen.

Hitzordua egin genuen margolariekin. Luis Laskurain bera iritsi zen lehenengo. Gainerakoak noiz iritsiko zain geundela, Bergarak pinturarekin izan duen harremanaz berba egin genuen. Laskurainen ustez, hainbat arrazoi daude: "Beti pentsatu izan dut Simon Arrietak egin zuen lanagatik dagoela Bergaran halako zaletasuna; baina ez da hori bakarrik, askoz ere lehenagotik dator harreman hori". XVIII. mende erdialdean Bergaran eratu zen Euskalerriaren Adiskideen Elkarteak eragin handia izan zuela dio Laskurainek: "Institutu hura arlo teknikoan oinarritzen zen, batez ere meatze eskola bat zen. Hala ere, hezkuntza tekniko horren gehigarri moduan Arte Ederrak eskaintzen zituzten". Hortaz, aspalditik dator Bergararen eta artearen arteko lotura. Gerora, hainbat margolari handi egon dira Bergaran: adibidez, Eustakio Agirreolea (1867-1952); baina Bergaran margolari handi bat egon bada, hori Simon Arrieta izan da. Gaur egungo margolarien maisua izan zen, eta Laskurainek dio "margotzen irakasteaz gain irakasten irakatsi" ziela. Margotzeko zuen trebetasunaz gain, Arrietaren meritu handiena pinturarekiko zaletasuna besteengan ere piztea izan zen. Herriko gazte askori ireki zizkien estudioko ateak Arrietak, eta, modu horretan, pinturarekiko zaletasuna eta maitasuna piztu zuen bergarar askorengan.

Beart elkartea sortu zuten

Laskurain bera Arrietaren ikaslea izan zen, eta baita Mari Paz Alustitza eta Ricardo Azkargorta ere. Talde hura izan zen gaur egungo margolarien oinarria, *Bergarako eskola* sendotu zuen Arrietak.

Bergaran, gainera, Udalak beti lagundu izan die herriko artistei. 1966an Udalak Zabalotegiko lokala utzi zien euren sormen lanak egiteko. Gerora, beste hainbat lokaletan egon izan dira: Seminarioan, *Verdury*-n, Irizarren, eta gaur egun Bolu auzoan daude. Gaur egun, gainera, Beart arte elkartearen barruan daude –*beartelkartea.blogspot.com*–. "Italiara egin genuen elkartruke baten ondorioz sortu zen elkartea", gogoratu du Bingen de Pedrok. 1992an izan zen elkartrukea. Bergarako 29 pintore Italiara joan ziren, Ortonovora. Italiarren margolanak Errotalde jauregian egon ziren ikusgai. Elkartrukearen ondoren sortu zuten elkartea. Gaur egun 65 bat bazkide dira elkartean eta Bingen de Pedro da presidentea. Elkarteak ateak zabalik ditu herritarrendako. Ricardo Azkargortak ematen ditu pintura eskolak Bearteko lokalean: "Nagusien eta gaztetxoen taldeak ditugu: nagusietan 22 bat lagun daude eta gaztetxoetan, 25". Gainerako pintoreek ere eskolak ematen dituzte Bergaran edo inguruko herrietan. Luis Laskurainek Oñatin eta Arrasaten ematen ditu eskolak; Bingen de Pedrok ere Arrasaten; eta, Juango Altunak Elorrion eta Boluko tailerrean.

Bergarako artisten lokalak ezagutu ditugu

Bolu auzoan pintura usaina nabari daiteke. Ez da kasualitatea, Bergarako hainbat margolarik han dute-eta euren tailerra. Margotzeko eta euren sormen lanak aurrera eramateko lekuak dira. Han izan gara, hainbat margolarirekin eta De Zerio eskultorearekin. Egiten duten lana bertatik bertara ikusteko aukera izan dugu. Lokal egokiak direla azaldu digute: altuak dira eta bi pisu egiteko aukera eskaintzen dute. Gainera, auzoaren beheko aldean Beart arte elkartearen lokala dago.

JUAN JOSE ALTUNA
PINTOREA

Arrasatearra da Altuna baina Bergaran bizi da aspaldian. Aita margolaria zuenez haren bidea jarraitu du. Espresionismoa, inpresionismoa... dira Altunaren lanaren ezaugarriak. Eskolak ematen ditu Bolu auzoan duen tailerrean.

XABIER DE ZERIO
ESKULTOREA

Bargotan (Nafarroa) jaio zen De Zerio. 80ko hamarkadan hasi zen eskulturaren munduan. "Euskal eskolakoa naizela diote", dio De Zeriok. Egurra, burdina eta harria erabiltzen ditu lanetan. *www.dezerio.com* atarian daude De Zerioaren lanak ikusgai.

RICARDO AZKARGORTA
PINTOREA

Fernando Azkargorta paisajistaren semea da Ricardo. 80ko hamarkadan hasi zen margotzen. Gizakiak naturarekin duen harremanaz dihardu azkenaldian. Manipulazioaren eta naturaren arteko jokoa egiten du. *ricardoazkargorta.net* atarian informazio gehiago.

LUIS LASKURAIN
PINTOREA

Laskurainen lanak errealismoan oinarrituta daude. Garbitasuna, linealtasuna, zehaztapena eta soiltasuna dira Laskurainen koadroen ezaugarri nagusiak. Koadro askotan objektuak erabiltzen ditu. *Lascurain.es* atarian informazio gehiago.

BINGEN DE PEDRO
PINTOREA

Hiru dimentsioko margolanak egiten ditu De Pedrok. *Argi ezkutua* erakusketarekin dabil orain. Argiaren erabilerarekin eta planoen erabilerarekin jolasten du. Tamaina handiko koadroak egiten ditu; horiek gordetzeko, desmuntatu egiten ditu.

ANTZERKIA | Emakumea ardatz duten emanaldiak asteburuan | 32

gorta, Juan Jose Altuna eta Lusi Laskurain, Beart elkartearen egoitzaren aurrealdean. | A.E.

Boluko tailerrak

Luis Laskurainen tailerra bisitatu genuen lehenengo. Estilo errealista du Laskurainek. *Paisaia hiritarra* erakusketako hainbat margolan ditu tailerrean. Hainzuzen, margolan horiekin munduko hainbat txoko bisitatu ditu: besteak beste, New Yorken egon zen Laskurain 2008an, 2009an eta 2011n. Gainera, objektuz beteta du Laskurainek tailerra: "Lagunek ematen dizkidaten objektuak dira batzuk".

Bingen de Pedrok hiru dimentsioko artelanak egiten ditu: "Ez dira eskulturak, atzealdea dutelako, hau da alde batetik bakarrik ikus daitezke". Tamaina handiko margolanak egiten ditu, gero desmuntatu egiten ditu gordetzeko. Parisen eta Gasteizen egin zituen ikasketak de Pedrok, eta munduan zehar ibili da bere lanak erakusten: talde erakusketak egin ditu Bilbon, Madrilen, Eslovenian (2003) eta Japonian (1996, 2001), besteak beste.

Ricardo Azkargotak natura eta gizakiaren artean dagoen loturaz dihardu azkenaldian: "Naturarekiko dugun ikuspegia azaldu gura dut: naturala da ikusten duguna?". Naturan dauden gauzei argazkia egiten die Azkargortak. Ondoren, ordenagailuaren bitartez irudi hori errepikatu, handitu... egiten du. Manipulatutako irudi hori proiektatu egiten du eta margolana sortzen du azkenik. Bestalde, akuarelarekin ere egiten ditu lan gutxi batzuk Azkargortak.

Xabier de Zerio eskultorea da. Nola lan egiten duen azaldu digu: "Lehenengo marraztu egiten dut eta ondoren kartoizko edo egurrezko maketa egiten dut". Burdinazko eskultura handiak espezializatutako enpresetan egiten diote. Gizakia eta lurra gaiak asko errepikatzen dira bere lanetan: "Euskal etnografia erakutsi gura dut". Baserriko lan tresnak erabiltzen ditu: aitzurra, laia, iltzeak... Burdinazko elementu horiek egurrarekin edo harriaren nahasten ditu de Zeriok.

Juango Altunak –*web.mac.com/yvesroos/Site/JuanJo_Altuna.html*– betidanik ezagutu izan du pintura mundua. Haren aita Arrietaren adiskidea zen. "Denetik" egiten duela dio: inpresionismoa, espresionismoa... Espainia guztian erakutsi ditu lanak Altunak, bai bakarka eta baita taldeka ere.

Kanpoan bizi direnak

Bost artista handi horien tailerrak ezagutzeko aukera izan dugu. Baina, Bergaran badaude euren tailerra duten artista gehiago: Marilu Untzurruntzaga, Santi Arrieta, Jon Balentziaga, Xabier Ugalde eta Jone Telleria, esaterako. Gainera, Bergaratik kanpo bizi diren margolariak ere badaude: Joquin Loidi, Xabier Agirre, Jose Mari Lazkano, Dani Laskurain, Jose Mari Ugalde eta Manu Muniategiandikoetxea. Artistaz betetako herria, duda barik.

Simon Arrieta maisua

Simon Arrieta (Bergara, 1915-1969) 15 urterekin hasi zen margotzen, Eustakio Agirreolearen estudioan. Madrilen egin zituen pintura eta marrazketa ikasketak. Ondoren, Ignacio Zuloaga handiaren ikaslea izan zen. Margolari inpresionista zen, eta gustuko zituen Goya, El Greco eta Velazquez margolarien lanak. Arrietaren lanak biziak eta gardenak dira.

Simon Arrieta. | GOIENA

ZABALDU BERRIA
HIPER ASIA
Fabrikatik zuzenean

0,59€

Pintzak
24 unitate

0,19€

Boligrafoa
Bic boligrafoa

TXARTELAREKIN ORDAINDU DAITEKE!

Gipuzkoa etorbidea 24 (Kabia Altzariak denda ondoan) - Arrasate
Astelehenetik igandera 09:00etatik 21:00etara

Maite Frankok 4 urtetik gorako umeendako ipuin kontakizuna egingo du Aretxabaletako liburutegian. | GOIENA

Emakumea gai nagusi duten antzezlanak aste bukaeran

Bergaran, Oñatin eta Aretxabaletan izango dira

MONIKA BELASTEGI | BERGARA

Eguenean Martxoaren 8a izan zen, eta, hori horrela, emakumea ardatz duten hainbat antzezlan egongo dira asteburuan bailarako hainbat herritan.

Bergaran gaur, egubakoitza, Oihulari Klown taldeak *Divinas* izeneko antzezlana egingo du. Muntaiak 80 minutu inguru irauten du eta Virginia Imazekin batera –hura da zuzendaria–, agertokira igoko dira Laura Lopez eta Txefo Rodriguez pailazoak.

Oihulari Klownek Ama Birjinak eta antzeko figura jainkotiarrek egingo duten terapia erakutsiko du Zabalotegi aretoan. Antzezlanean, Pertsona Jainkotiar Anonimoen izeneko laguntza taldearen asteroko batzarra ikusiko du ikusleak. Magdalena estresatuta dago, Ama Birjina errudun sentitzen da eta Jesukristok beldurra dio konpromisoari.

Ikuskizuna Zabalotegi aretoan izango da, 22:00etan, eta sarreraren prezioa 5 euro da.

Aretxabaletan, umeendako

Nagusiendako ekintzak ez ezik, umeendako antzezlana ere antolatu dute Aretxabaletan Martxoaren 8aren bueltan. Bihar, zapatua, *Panpinak Aitorrentzat* ipuin kontakizuna egingo du Maite Francok lau urtetik gorako gaztetxoenendako Udal Liburutegian. 11:30ean hasiko da emanaldia eta sarrera dohain izango da.

Martxoaren 8rako sortutako saioa da eta honako gai eta helburuak ditu: batetik, sexu-rolen banaketarekin bukatzea eta, bestetik, emakume eta gizonen eskubide eta eginbeharren arteko berdintasuna bultzatzea.

Panpinak Aitorrentzat ipuin -kontaketa saioa da, eta, ondorioz, ipuin-kontaketa saio batek eduki beharko lituzkeen osagaiak ditu: umore asko, misterioa, parte-hartzea eta baita ezusteko txikiak ere.

Oñatin, domekan

Oñatin Theatrola taldearen *Gona gorriak* antzezlana ikusteko aukera egongo da domekan, 18:30ean, Santa Ana aretoan.

Horrez gain, hilaren 23an, *Ez da kasualitatea* bertso saioa egingo dute Oñatin Martxoaren 8aren harira, Ainhoa Agirreazaldegi, Onintza Enbeita, Alaia Martin eta Uxue Alberdi bertsolariek. Arantzazu Saizek lagunduko die pianoan eta gaiak Egoitz Aizpuruk jarriko ditu.

arantzazuGaur
fundación arantzazu gaur fundazioa

Arantzazu Gaur Fundazioa Gipuzkoako Foru Aldundiak, Oñatiko Udalak, Mondragon Taldeak, Kutxak eta Frantziskotarrek osatzen dute, eta hau dute helburu: Arantzazu sustatzeko eta berritzeko prozesua bultzatzea, dinamizatzea, kudeatzea eta koordinatzea, ikuspegi orokorra eta etorkizuneko ikuspegia izanik eta santutegiaren identitate historikoa eta frantziskotarren printzipioak errespetatuz, betiere transformazio soziokulturalei irekita egonik. Fundazioak lanpostu honetarako pertsona bat behar du:

SUSTAPEN-ARDURADUNA

(Erref: 04/12)

FUNTZIO NAGUSI HAUEK IZANGO DITU:

- Arantzazuk eremu kultural, espiritual, artistiko eta natural berezi gisa dituen kudeaketa-dinamizazio-, komunikazio- eta sustapen-beharrak betetzea.
- Erakundeekin eta eragile kultural, sozial, enpresarial eta artistikoekin lankidetzan aritzea, bai eta Arantzazun egin beharreko ekimen berrietarako interesgarritzat jo daitezkeen gainerako guztiekin ere. Horrez gain, Arantzazuren funtsari balioa emateko eta munduan eta herritarren artean ezagutarazteko ekitaldi garrantzitsuak antolatzeko azpiegituretan egin behar diren hobekuntzak egitea ere izango da haren lana.

ESKAKIZUNAK:

- Ikasketa-maila: diplomatuak edo lizentziatuak.
- Frogatzeko moduko esperientzia izatea ekitaldi soziokultural, artistiko eta abarren kudeaketan, antolakuntzan eta dinamizazioan.
- Euskaraz ondo egitea.
- Euskal kultura eta kultura-jarduera ezagutzea.
- Arantzazuren eta haren ingurune kultural, natural, artistiko eta espiritualaren ezagutza ahalik eta handiena izatea.
- Bidaiatzeko prest egotea.

KONTUAN IZANGO DIRA:

- Ingelesaren eta frantsesaren ezagutza.
- Oñatin edo inguruan bizitzea.

LKS

15 eguneko epean, aurrez aukeratutakoei bakarrik erantzungo zaie.
Emandako datuak dagokien bezala isilekoak izango dira, abenduaren 13ko 15/1999 Legeak, hots, Datu Pertsonalak Babesteko Legeak ezartzen dituen irizpideei jarraiki.

MONDRAGON HUMANITY AT WORK

Interesdunek **seleccion@lks.es** *helbidera bidali behar dute curriculuma, postuaren erreferentzia adierazita mezuaren gaian, edota, bestela dagokien enplegu-eskaintzan izen eman, hemen:* **www.infoempleo.com/colaboradoras/lks/presentacion.aspx**

www.lks.es

Aramaioarrak finalerako txartel bila lehiatuko dira domekan Araian

M.B. | ARRASATE

Domekan Arabako Koadrila Arteko Bertso Txapelketako finalerdiak jokatuko dira, Araian, eta aramaioarrak ere izango dira lehian, finalerako txartelaren bila. Andramari aretoan izango da ekitaldia, 17:30ean.

Bat-batekoan eta idatzizkoan, Aramaioko talde bana arituko da lehian. Bat-batekoan, Aramaioko Marixeka izeneko taldea Aguraingo Sorginetxeren aurka arituko da. Eta idatzizkoan, Aramaioko Ai Ene!, Aguraingo Ostiral Iluntzeetako Berbalagunak taldearen aurka.

Sarrerak egun berean salduko dituzte Andramari aretoko txarteldegian. Prezioari dagokionez, 5 euro da txartel arrunta; bazkideek hiru euro ordainduko dute eta 16 urtetik beherakoek, berriz, dohainik izango dute.

Bertso barnetegia

Bertso barnetegia antolatu du Zuiako Koadrilako Euskara Zerbitzuak.

Apirilaren 10etik 12ra izango da, Sarrian, eta LHko 3. eta 6. maila artekoei zuzenduta dago. Izen-ematea martxoaren 23a baino lehen egin daiteke, Aramaioko udaletxean (945 44 50 16 telefono zenbakian) edo Zuiako Koadrilako gainerakoetan. Horretarako, 40 euro sartu behar dira zenbaki honetan: 3035 0012 74 0120025862.

Aramaion jokatutako kanporaketetako bat. | GOIENA

MusikHerria diskoetxeak agur esan du zazpi urteko lanaren ondoren

M.B. | ARRASATE

MusikHerria diskoetxea itxi egin dute. Martxoaren 4an esan dute agur, jaiotze-jaialdia egin zuten egun berean, prentsa ohar baten bitartez, eta, azken zazpi urte hauetan egindako lanaren errepasoa egitearekin batera, itxieraren arrazoiak eman zituzten. Epe horretan 74 talde eta bakarlariren 82 lan kaleratu dituzte Copyleft lizentziapean eta autogestioa bultzatuz. Baita bailarako taldeenak ere: Anger eta Ain_1 taldeena, hain justu ere.

Ixtearen arrazoiak honela azaldu dituzte: "Zazpi urteotan pertsona eta musikari bezala heltzen joan garen heinean, eta talde berriak gehituz joan diren heinean, ez ditugu ideiak eta diskurtsoak berritu edo, behintzat, ez dugu modu antolatu batean egin, eta argi dago elikatzen ez den proiektuak ezin duela aurrera egin". Bestalde, azpimarratu dute agurrak ez daukala zerikusirik "kapitalismoaren krisiarekin".

MusikHerria proiektuan erabili gabe geratu den diru apurra Lodosako Ibaialde ikastolari emango diotela azaldu dute.

Iñigo Arregi artista arrasatearrak Alemanian eta Parisen erakutsiko ditu lanak

M.B. | ARRASATE

Iñigo Arregi Arrasateko eskultorea esku bete lan ibiliko da datozen hilabeteetan. Egubakoitzean Durangoko Arte eta Historia Museoan irekiko du erakusketa eta, era berean, Alemanian eta Parisen egingo dituen beste biak prestatzen ere badihardu. Alemaniakoa Karlsruhe hirian da, Art Karlsruhe 2012 delako ferian atzo, eguena, hasi, eta 11ra bitartean, eta Victor Lope arte-merkatariaren eskutik joan da hara. Eskultura eta erliebe sorta eroan ditu.

Parisen maiatzaren 29tik ekainaren 25era erakutsiko ditu lanak, Louvretik oso gertu dagoen erakusketa areto baten.

Debagoieneko **OSASUN ZERBITZUAK**

AKUPUNTURA

INTEGU
Arrasate / Uarkape 18, behea, ezk / 943 77 13 34

ETXEBERRIA ANA
Antzuola / Errekalde 6, behea / 943 76 60 13

ALBAITARIAK

ETXEBERRIA JULIO
(DEBAGOIENEKO ALBAITARI OFIZIALA)
Bergara / 609 54 16 13

DENTISTAK

ANE LASAGABASTER
Arrasate / Otalora lizentziaduna 18 solairu artea ezk.
943 79 13 68

AGIRRE HORTZ KLINIKA
Bergara / Ibargarai 9-1B / 943 76 00 23

ARANBURU HORTZ KLINIKA
Bergara / Telesforo Aranzadi 1 / 943 76 02 46

ARRASATE HORTZ KLINIKA
Arrasate / Erdiko kale 50 / 943 79 72 23

ARREGI HORTZ KLINIKA
Arrasate / San Bixente Ferrer 1, behea / 943 79 71 90

BENGOA SAN MIGUEL ANGEL
Aretxabaleta / Durana 14, 1. / 943 79 05 57

BERGARA HORTZ KLINIKA
Bergara / Bidekurutzeta 36, behea / 943 76 05 77

CAVIGLIA SILVANA
Bergara / Simon Arrieta 3-2B / 943 76 38 54

GOROSABEL J. ALBERTO
Bergara / Fraiskozuri 5A, 1D / 943 76 56 88

IRIARTE ANE MAITE / ITZIAR ARANDO
Arrasate / Iturriotz 7 – 1 / 943 79 69 45

IRIARTE IDOIA
Bergara / Artekale 1-1C / 943 76 01 65
Elgeta / Torrealdea 2 behea ezk. / 943 76 80 06

LOPEZ DE GOIKOETXEA
Arrasate / Alfontso X. Jakintsua 5 / 943 79 17 74

MAZMELA BOLINAGA ENRIKE
Eskoriatza / Gorosarri J. plaza 3, 1. esk / 943 71 47 36

SAINZ MALKORRA ANA
Antzuola / Herriko Plaza 4 / 943 78 71 69

DERMATOLOGIA

TAMAYO CONCEPCION
Oñati / Atzeko kalea 6 behea
620 12 48 43 / 943 71 61 82

ENTZUMEN ZENTROAK

INSTITUTO OPTICO – BIOACUSTICA
Arrasate / Erdiko kale 22 / 943 79 71 68

ERREUMATOLOGIA

GORASARRI ZUBIZARRETA, XABIER DOKTOREA

TROJAOLA ZULUETA, LURDES DOKTOREA
Arrasate / Zaldibar kalea, 1-1 / 943 77 00 40

FARMAZIA

AMAIA IGARTUA SAGASTIZABAL
Oñati / Kale zaharra,1 / 943 78 01 22
amaiaigartua1@gmail.com

HOMEOPATIA

AMAIA IRIARTE (MEDIKU HOMEOPATA)
Arrasate / Nafarroa etorbidea 11
943 08 11 00 / 695 78 19 21

KIROPRAKTIKA ZENTROA

LARRAÑAGA ANDREA
Arrasate / Aprendices 2 / 943 79 92 83

LOGOPEDIA

PSIKOPEDAGOGIA ZENTROA
Arrasate / Inazio Zuloaga 10 / 943 79 48 77

MASAJISTAK

AZPEITIA IRUNE
Bergara / Ibargarai 44, behea / 943 76 73 43

ETXEBERRIA ANA
Antzuola / Errekalde 6, behea / 943 76 60 13

OPTIKAK

BEGIONDO OPTIKA
Aretxabaleta / Loramendi 10 / 943 79 98 21

OSASUN-DIAGNOSTIKOAK

UDALAITZ MEDIKU-ZENTROA
(ERRESONANTZIA MAGNETIKOA)
Arrasate / Nafarroa Etorbidea, 3 / 943 79 44 22

OSTEOPATIA

BENGOA NEREA
Arrasate / Erdiko kale 22, 3 ezk / 659 58 66 89

ETXEBERRIA ANA
Antzuola / Errekalde 6, behea / 943 76 60 13

PODOLOGOAK

ERDIKO KLINIKA PODOLOGIKOA
Arrasate / Erdiko kalea 54, behea esk. / 943 79 97 46

IKERLEKU PODOLOGIA ZENTROA
Bergara / Ikerleku zeharbidea z/g / 943 76 07 84

OINEZ PODOLOGIA KLINIKA
Aretxabaleta / Belorrieta 10 / 943 79 16 45

PSIKIATRA

GALLASTEGI PABLO
Bergara / San Martin plaza 2-1. ezk. / 943 76 26 64

PSIKOLOGOAK

GARMENDIA LANDER
Arrasate / Obenerreka 2, 7H / 943 79 35 86

NUÑEZ TXOMIN
Arrasate / Olarte 10 / 943 79 88 16

PSIKOPEDAGOGIA ZENTROA
Arrasate / Inazio Zuloaga 10 / 943 79 48 77

YOGA

SAMADHI YOGA
Bergara / Masterreka 13, behea
943 76 11 38 / 639 23 57 53.

Iragarkia jarri nahi baduzu,
deitu **943 25 05 05** zenbakira.

Ordu asko ematen ditu aretxabaletarrak entseatzen.

Asier Galiano | Disko-jartzailea

MIRIAN BITERI

"Poliki badoa ere, oraindik aurreiritzi asko daude Debagoienean elektronikaren gainean"

MIRIAN BITERI | ARETXABALETA

Aretxabaletarra da Asier Galiano. Irakasle dabil, Mungian, eta diskoak jartzea gustatzen zaio 25 urteko gazteari. Datozen lerroetan, bada, zaletasun horren gainean zabal egin digu berba.

Diskoak jartzea gustuko duzu. Noiztik zaletasun hori?

Orain dela bost urte inguru hasi nintzen, 20 urte-edo nituela. Orduan, biniloarekin hasi nintzen, eta orain, ordenagailua erabiltzen dut. Beti gustatu izan zait asko musika. Lehen, gitarra jotzen nuen, eta Aretxabaletako eta Eskoriatzako beste hainbatekin batera taldetxo batean bertsioak egiten nituen; dagoeneko desagertuta dago taldea. Denborarekin, musika estilo bat eta beste entzuten joan nintzen; tartean, elektronika. Azken hori asko gustatu zitzaidan, eta, horrenbestez, horrekin hastea erabaki nuen.

Disko-jartzaile ibiltzen zara hara eta hona, ezta?

Hala da. Joan den asteburuan, esaterako, Andorran egon nintzen, lagun batzuen sagardotegian; eta Euskal Herrian ere nahikotxo ibiltzen naiz. Esaterako, hemendik bi astera Txitxarron jarriko ditut diskoak. Oso gustura nabil zeregin horretan.

Diskoak jartzeaz gain, bestelako disko-jartzaileen lana ezagutzeko bidaiatu ere egin duzu...

Bai, horrelaxe da. Eivissan (Ibiza) eta Alemanian egon gara DJen lana gertutik ezagutzen. Toki horietan jo gurako nuke, baina ateak zabalik izateko musika ona ekoiztu behar da; estudioan sartu eta musika ona egin behar da, eta horrek denbora luzea eskatzen du. Dagoeneko hasi naiz: lagunen arteko lokala gertu daukagu horretarako, eta ordu asko sartzen ditut, dedikazioa eskatzen du; dedikazioa, baita inspirazioa ere. Agian, egun batean, zortzi ordu egon naiteke estudioan sartuta eta ez dut ezer egiten, eta beste batean, ordubetean askoz gehiago egiten dut.

Inspirazioaz gain, zer izan behar du disko-jartzaile on batek?

Egokitzen jakin behar du. Esaterako, leku batera joan naiteke diskoak jartzera, eta, orduaren arabera, giroa guztiz ezberdina izan daiteke. Lehenengo, teknika menperatu beharra dago, abestiak bata bestearen atzetik ondo jartzeko; bestetik, egokitzapena dago; eta azkenik, gustu musikal ona izatea. Nik uste dut hori dela garrantzitsuena.

Nolakoa da zure gustu musikala?

Technoa, house eta minimal oinarri moduan hartzen ditut; nik uste dut horien fusioa dela beste guztia. Elektronika guztiz nahastuta dago gaur egun.

Musikari dagokionez, nola ikusten duzu Debagoiena?

Gurako nuke jendeak beste ikuspegi bat izatea elektronikaz. Askotan entzuten dut beti berdina dela; eta hori ez da horrela. Horren inguruan ezjakintasuna dagoela iruditzen zait. Horretaz gainera, jendeak ez du onartzen musika estilo hori gustatzen zaiola, kanpokoek zer esango duten begira dago. Poliki badoa ere, oraindik aurreiritzi asko daude Debagoienean elektronikaren gainean. Dena dela, Arrasateko gaztetxean bi festa antolatu ditugu eta oso harrera ona izan dute.

Zaletasunetik oraindik ezin zara bizi, eta, hortaz, irakasle dihardu-zu, ezta?

Bai. Aurten Mungian nago, Helduen Hezkuntza Ikastetxean ingeleseko eskolak ematen ditut. Ama ere ingeleseko irakaslea da, eta txikitatik ikasi dut hizkuntza hori. Gustatzen zitzaidan, eta, amak animatuta, hori ikastea erabaki nuen. Dagoeneko bost urte daramatzat eskolak ematen, oso gustura nago.

Musikaz eta ingelesaz gain, kirolean ere ibilitakoa zara; hain justu, errugbian jokatu izan duzu...

Bederatzi urte eman nituen kirol hori praktikatzen, ukondoa apurtu nuen arte. Arrasate errugbi taldean ibili nintzen; lesioagatik utzi behar izan nuen, eta faltan igartzen dut. Oso oroitzapen onak dauzkat.

PERTSONALA

Gosari gustukoena: Zuku naturala, Cola Cao eta tostadak.

Disko-jartzaile gustukoena: Magda.

Diskoak jartzeko toki bat: Watergate Club, Berlinen dagoen aretoa. Disko-jartzaile eta produkzio-etxe onenak daude han.

Bidaia onena: Miamira. Disko-jartzaile eta produkzio-etxe onenak batzen dira martxoan.

Film bat: Gerrakoak: *El Pianista.* Txikitan, *Salvar al soldado Ryan* filmak harritu ninduen.

Bizitzeko toki bat: Hemen ondo bizi naiz.

Amets bat: Europako klub onenetan izatea.

1. ETXEBIZITZAK

101. SALDU

Aramaio. Etxe bakarra salgai. 8.000 metro koadroko lursailarekin. Lorategi, ortu eta fruta arbolekin. Oso prezio onean. 636 94 81 31

Arrasate. Aukera paregabea. 204.000 euro. Eguzki dorrean etxebizitza salgai. Eraberritua, guztia altzariz hornitua eta oso eguzkitsua. Denak kanpoaldera ematen du. Hiru logela, bi komun, egongela eta sukaldea. Hiru igogailu eta gas naturala. Interesatuok deitu telefono honetara: 650 01 05 15

Eskoriatza. Apartamentua salgai Gaztanadui kalean. Aukera paregabea. Berri-berria, eguzkitsua eta oso erosoa. Interesatuok deitu telefono hauetara: 653 71 53 58 edo 943 03 89 49

Eskoriatza. Duplexa salgai, 120 metrokoa. Berri-berria. Jantzia. Prezio onean. 679 16 24 96

Eskoriatza. Erdigunean etxebizitza ia berria salgai. 102 metro koadrokoa. Duplexa. Bi logela, ikasteko gela, bi komun, sukaldea, eta egongela handia. Garajea eta trastelekua. Beherapen oso handiarekin. 245.000 euro. 675 71 16 93 edo 688 67 63 96

Oñati. Etxebizitza salgai San Lorentzo auzoan. 60 metro koadro eta bi logela. Prezio negoziagarria. 699 78 47 49

Soraluze. Etxebizitza salgai. Hiru logelakoa. Terraza handiarekin. 608 57 37 50

103. ERRENTAN EMAN

Aretxabaleta. Etxebizitza ematen da errentan Durana kalean. Hiru logela, sukalde-egongela eta komuna. 658 70 44 62

Arrasate. 80 metro koadroko etxebizitza ematen da errentan erdigunean. Bi logelakoa. Berriztua. 659 59 71 21

Bergara. 90 metro koadroko etxebizitza ematen da errentan erdigunean. Bi plazako garaje itxiarekin. 618 62 79 89 edo 663 86 11 37

Bergara. Erdigunean 72 metro koadroko etxebizitza ematen da errentan. Bi logelakoa. Eguzkitsua. 606 65 58 08 edo 660 04 25 25

Bergara. Erdigunean etxebizitza ematen da errentan. Bi logelakoa. Berokuntzarekin. Jantzia. 649 56 34 92

Eskoriatza. Apartamentua errentan edo salgai erdigunean. Jantzia. Eraikin berria. 670 78 17 59

Oñati. Kurtzebide 1C atartean etxebizitza ematen da errentan. Hiru logela eta bi bainugela. Igogailuarekin. Etxe berria. Jantzia. Deitu 615 73 29 83 telefonora.

Oñati. Plazatik oso hurbil etxebizitza ematen da errentan. Etxe berria, igogailuarekin eta dena jantzia. Lau logela eta bi bainugela. 659 64 39 63

104. ERRENTAN HARTU

Arrasate. Etxebizitza behar dut errentan. Bi logelakoa. Deitu 610 99 70 46 telefonora.

Bergara. Etxebizitza behar dut errentan. Deitu 618 90 23 66 telefono zenbaki honetara.

Bergara. Etxebizitza hartuko nuke errentan. Bi logelakoa. Balkoi edo terrazaduna, nahiago. Hilean 600 euro ordain ditzaket. Andrea. 617 28 08 07

105. ETXEAK OSATU

Antzuola. Baserri baten logela ematen da errentan, sukaldea eta komuna erabiltzeko aukerarekin. 679 34 00 45

Arrasate. 36 urte neska pertsona baten bila etxebizitza osatzeko. 680 74 67 80

Arrasate. Logela ematen da errentan pixua osatzeko. Jende langilea bizi da bertan. 653 72 43 19 edo 699 11 45 14

Arrasate. Pertsona bat behar da Erguin aldean etxebizitza osatzeko. Ignacio. Deitu 670 59 73 62 telefonora.

Bergara. Logela ematen da errentan etxebizitza osatzeko. Erdigunean. 608 17 77 55

